

ANTONIO BERISTAIN

# HERIOTZ ZIGORRA

GERO

ANTONIO BERISTAIN

# HERIOTZ ZIGORRA

GERO
EDICIONES MENSAJERO

Itzultzailea: M.ª Eugenia Laboa Sagarzazu

© Ediciones Mensajero, S.A. - GERO Euskal Liburuak
Sancho de Azpetia kalea, 2 — 48014 BILBO
Post. Zenb. 78 - 48080 BILBO
I.S.B.N.: 84-271-1674-8
Legezko gordailua: BU - 43. — 1991
Inprimatzailea: Imprenta de Aldecoa.

# OINARRIZKO NOZIOAK

Gaur egunean heriotz zigortzat hartzen dugu, formalki errekeritutako arauen arabera, delitu astun zenbait egin dituzten delitugile errudunei agintaritza judizialak bizitza kentzea legearen aurrean konpetentea den pertsona batek edo gehiago exekuxioaz arduratuko direlarik. Herri askotan hau dugu Justiziako administrazioak onartutako santziorik (zigorra ala neurria?) gogorrena, zeinen jatorriak (eta iraunkortasunak) gizatasunaren lehen garaietatik adostasun erlatibo batez aboliziorantz zuzentzen ari den garapen motel bat adierazten bait du, nahiz berezitasun zenbait ematen den garaia, gizarte errejimena, politika erregimena eta erlijio errejimenaren arabera. Logikaz aintzineko gizarteak ez zituen gaur egun beharrezkotzat eta ezinbestekotzat jotzen ditugun prozesuzko formalitateak.

Santzio honek betidanik eta gaur egunean ere eztabaida lehiatsuak sorterazi ditu bere konplexutasun eta transzendentzia dela eta, bere ezarpen eta exekuziorako legezko teknika ezberdinetatik zientifiko eta gizarte alorretanar akartzen dituen ondorio larriak direla eta.

Honen ikertzaileek izaten dituzten zailtasun eta pultsioak kontutan izanik ere, askok bere ikastetak neurri haundi batetan honen arazoak argitzen eta ondorio zehatzak eratortzen ematen dituzte. Baiezta daiteke Zuzenbide penalean, kriminologian, krimenezko Politikan, eta zenbaitetan garrantzitsuak diren galdera guztiek heriotz zigorrari buruz hartzen den jarrerarekin erlazio zuzen nahiz zehar bat dutela. Santzio hau onartzen duen legemaileak gizarte arauak aurkitzen diren ontzian pozoi tanta bat ezartzen du. Ontzia betetzera heltzen ez bagara ere, tanta honek dena kutsatzen du, legeria osoa, justizia sistemaren eta elkarbizitzaren jitea.

Mendeku hilgarriaren sena hain dago «animalia arrazoidun»-aren sakonean finkatua, askorentzat, bere talde-expresioaren ukapen eta debekuak, heriotz penaren abolizioaren bitartez, zapuzte jasanezin bat inplikatzen duela. Arrazoi berarengatik abolizioak esanahi bat dauka, alegia, solidaritatea garaile irteten dela mendekua, beldurra eta gorrotoaren aurrean, edo eta Bandinterrek esan bezala, gizatasuna dela garaile (2). Lor daitekeen garaipenik zailena dugu hau, eta neurri batetan gizartearen garaipenerako garrantzitsuen dena.

---

(1) Heriotz zigorraren abolizionista eta mantenatzaileen artean zuzenbide penal, kriminologia eta Justizia sistema osoan modu baikor ala ezkor batez eragina duen eritzi kontrako bat dago. Antinomia honi buruz adierazgarri ditugu ondoko autore hauen orrialde batzu: BASSIOUNI Ch M., *International Extradition and World Public Order,* 1974, 359 or., 407, 450, 459, ok., BASSIOUNI, Ch. M., *Criminal Law and its Processes, The Law of Public Order,* 1959, 19, 27, 42, 111, 204, 585 ok., eta BETTIOL (G. Bettiol eta L. Pettoello Mantovani, *Diritto Penale,* Padova 12. argitalpena, 1986, 13 or., 50 or., 144 or., 834 or.) zientzia epistemologiko modernoaren aintzindari bezala. CORBI Cfr. Mariano, *Análisis epistemológico de las configuraciones axiológicas humanas,* Universidad de Salamanca argitaletxea, Salamanca, 1983.

(2) BANDINTER, *Boletín sobre prevención del delito y justicia penal, Naciones Unidas,* Viena, 11. Zb., 1984.eko abendua, 23 or.

Herri askotan ari dira lortzen, nahiz ez behar den neurrian, kultur, politiko eta elizako erakundeak erabateko abolizioaren alde modu eraginkor batez lan egin eta interesa izatea. Txalo berezi bat merezi du *Amnesty International* taldeak behin eta berriz heriotz zigorraren aurkako ekintzak bultzatzen ari bait da. Kontutan har ditzakegu modu berean Espainiako Giza Eskubideen Elkargoa, Heriotz zigorraren aurkako Elkargo Espainolak, Zuzenbide penalaren Katedradunak (3),e.a.

Zorionez, joera abolizionista teorilari espezialista askorengan eta zenbait nazioren legerian garatzen ari da (4). Korronte honetan emaitza aipagarria da 1983.eko Apirilaren 28an heriotz zigorrarekin zerrikusirik duen Gizonaren eskubideen eta oinarrizko askatasunaren Europar Konbentzioaren 6. Protokoloa zabalik geratu zela Europako Kontseiluaren Estatu Kideei sinatzeko aukera emanez (5). 1985.eko martxoaren lean indarrean jarri zen, gutxienekoz beharrezkoa den bost herritako kopuru batek berronetsi ondoren: Austria, Dinamarka, Espainia, Luxenburgo eta Suediak. Protokolo hau aginduzko izaeraz heriotz zigorra debekatzen duen nazioarteko lehen tratadua da. Gaur egunean beste bederatzi Estatu Kidek sinatu dute Protokoloa, baina oraindik ez dute berretsi. Zazpi Estatu Partaidek ez dute ez sinatu ezta

---

(3) BERBERO BERDUGO, BERISTAIN, *La pena de muerte. Seis respuestas*, 2. argitarapena, Estatuko aldizkari Ofiziala, Madrid, 1978, 238 or.

(4) ANCEL *Marc*, «Quelques observations sur l'abolition de la peine de mort», *Crime and Criminal Policy*. Papers in honour of Manuel López-Rey eta Arrojo, Franco Angeli, Roma, 1985, 33 or.

(5) COUNCIL OF EUROPE, *Protocol N.º 6. To the Convention for the protection of Human Rights and fundamental freedoms concerning the abolition of the death penalty*, Strasbourg, 1983-6-28.

berretsi ere: Chipre, Irlanda, Islandia, Liechtenstein, Malta, Erresuma Batuak eta Turkiak.

Protokolo honek behartzen ditu Estatuak bake garaian egiten diren lege hausteetarako pena abolitzera. Baina, gerra garaian edo gerra hurre-hurreko garaian inposatu eta exekutatzeko baimena eskaintzen da, aurretiazko legeek hala badiote. Konbentzioaren 64. Artikuluak oharterazten duen aurka, Protokolo honek ez du erreserbarik onartzen sinaduraren unean.

1986.eko Urtarrilaren 17an Europako Parlamentuak Europar Komunitate osoan heriotz pena abolitzeko helburuan iharduten zuen Ebazpen bat hartu zuen. Ebazpenak Europako Kontseiluko Estatuen Partaideei Giza-eskubideen Europako Konbentzioari Europako Konbentzioari buruzko 6. Protokoloa berrestea erregutzen zien.

Eskaera-galdakizun abolizionista honetara heldu aurretik animali arrazoidunak ezagutzea merezi duten eta zailak izan diren bideak eraiki ditu hamaika pauso emanez, besterik ez bada modu orokor batez. Eskaera-galdakizun abolizionista hauez dago ondo ulertzerik Eboluzionismoaren munduikuskera orokorra kontutan hartzen ez badugu.

## HERIOTZ PENA "BIBALIODUNA"-REN HISTORIA

Heriotz penaren garapenak estali eta neurri batean agertu ere egiten du gizatasunaren historia osoa (eta historiaurrea) pertsona eta bere taldearen sentimendu sakon eta pentsamenduen alorrean. Arrazoi honengaitik, hontaz, zuzenbide penaleko beste edozein gairi buruz baino gehiago idatzi eta eztabaidatu da. Historia triste eta «biktima» bat da, baina geroz eta gutxiago. Batzurentzat historia bibalioduna beste edozein gertakizun gizatiar, irudimenezko, historiko, sozial eta juridiko bezala (1). Zuzenbidea eta kriminologiaren Historian munduikuskera eboluzionistak ez du behar bezain eragin haundirik izan. Ikerketa epistemologikoak beharrezkoak dira biologi-antropologiaren historiaren ikuspegitik eta kultur-antropologiaren ikuspegitik, eboluzionismo ezorganiko (aurrebiologikoa), organiko (biologikoa) eta gizatiar (kultur eta juridikoa) ikuspegi batetik ere.

---

(1) F. FECHNER, Vier Thesen über die Funktionalität des Rechts in der menschlichen Gesellschaft, Ein Rechtssoziologischer Überblick, *Pena de morte,* Coimbra, 1967, 333 or. hurk. J. DELGADO PINTO, «El derecho como fuente de agresión y de pacificación», *I Curso Monográfico sobre AGRESIVIDAD,* ed. Castalia, Madrid, 1980, 97. or. hurk.

Boterea bidegabeki daukaten horiek (eliteak eta jende multzoak), mendeak joan ahala, hau modu neurtuago batez erabiltzen dute, doktrina eta legezko abolizionista joerak bere gora beherak baditu ere, Cuello Calón-ek abolizionismoak lehen gerrate mundialaren aurretik jasotako indar haundia ondorengo urtetan gutxitu egin zela eta batez ere Europatik kanpoko herrietan indar haundia galdu zuela egiaztatzean onartzen duen bezala (2). Baina nire eritziz, egunetik egunera intensibo nahiz extensiboagoa den korronte abolizionistak jarraitu eta menperatu egiten du gora behera guztiak gaindituz.

Zuzenbide penalaren kapitulu honetan (ohore gutxien duena) ikusgarriak dira hala ere, alderdi baikor batzu:

— Erakunde juridiko-penal nagusien giza-aurretiko aintzindariak ikertzeko komenientzia,

— hauen gorapen abolizionista, egungo errepresibo eta mendekuzko Zuzenbide penaleko makrogarapenaren paradigma eta adierazle,

— judiziozko barkamena, graziazko eskubidea eta diruzko konposaketa ordez ematea, azaltzaile batzu diotenez, heriotz zigorraren arloetan sortu (eta/edo garatu) dena batez ere (3).

— heriotz zigorraren transpertsonalitateak ezagutza teoria erradikal eta bete-betetak erraztu dizkie epistemologo batzuri.

---

(2) Eugenio CUELLO CALON, *La moderna penología,* Tomo I, Bosch, Barcelona, 1958, 128. or.

(3) Marc ANCEL, *La pena capital,* Naciones Unidas, Nueva York, 1968, 25. or. hurk. 92. hurk. E. CUELLO CALON, *Opus cit.*, 1958, 147. or. M. PÉREZ Y DE LA MOLINA, *La sociedad y el patíbulo, ó la pena de muerte,* Madrid, 1854, 278, 289. ok.

Peter BRANDT, *Die evangelische Strafgefangenenseelsorge. Geschichte-Theorie-Praxis,* ed. Vandenhoeck Ruprecht, Göttingen 1985, 265. or. hurk.

— maitatzeak eta heriotzak sustrai bera dute. Zerbaitengaitik idatzi dira horrelakoak: «las más bellas historias de amor acaban con la muerte, y esto no es algo sin ton ni son. Cierto, el amor es y subsiste como *la superación de la muerte,* pero no porque la elimine, sino porque el amor mismo es muerte. Sólo en la muerte es posible la entrega total del amor, porque sólo en la muerte podemos quedarnos enteramente a la merced. De ahí que los amantes se lancen tan sencilla y castamente a la muerte; no se arrojan a un sitio extraño, sino al recinto íntimo del amor» (L. Boros, *El hombre y su úlitma opción,* Madrid 1972, 66-67 ok.). Honelako zeredozer esaten zuten Euskal Herrian heriotzera kondenaturik zeudenek idatzitako bertsoek, kondenaren unetik aurrera urte beteko epea bait zuten (tradiziozko ohitura zen bezala) beren esperientzia bertsotan idazteko besteentzat exenplu gisa balio izateko,

— boterearen gehiegikeriaren pairatzaile askok (beren manifestaldi tragikoenean) zigor krudel honen aurrean borreroen eskuak garbitzen dituen portaera bat hartzen du maiz; eta zenbaitetan, heriotz penaren mendeku gogorraz baliatzen dira gizatasuna aberasten duten oblazio altruista transzendentalak diren esperientziak bizitzeko.

Lauaxeta, euskaraz «lau haizeetara» esanahia duen izenaz ezagutzen dugun Esteban Urkiaga, 1937.

---

(4) Herbert Flieger, *Todesstrafe.* «Die Würde des Menschen ist unantastbar», Novalis Verlag, Schaffhausen, 1982,

H. G. Hinderling, *Rechtsnorm und Verstehen. Die methodischen Folgen einer algemeinen Hermeneutik für die Prinzipien der Verfassungsauslegung,* Bern, 1971.

Zezenean ez bada ere gai hontaz ari dira G. Bettiol eta L. Pottoello Montovani, Diritto Penale, 1986, 13 or. hurk. 50. hurk., 144. hurk., 384. hurk., eta,

J. Rabkin, Justice and Judicial Hand-Wringing: The Death Penalty Since Gregg, *Criminal Justice Ethics,* 1985.eko. uda, 20 or.

eko ekainaren 25ean hil zuten, goizeko 6'30 etan, Alfonso Moreno, S.J. Jaunaren gidapena jasoz. Ez zen denbora asko Lauaxetak hau idatzi zuenetik: «Goiz eder honetan erail bear nabatxindor baten txintak gozotan naukela! El naiten leiora begiak iritz-gabe... Gudan jaus nadilla zuzentzara aldeez ormari atzez goiz eder argian... Erri zintzo onenak zaindu dagiala il gintzaren atsa, il gintzanen ala» («Goiz eder honetan erahil behar naute, urretxindor baten kantak nire arima gozatzen duen artean. Ez dago ihintzik nire begietan leihora hurbiltzean... Gudan jaus nadila zuzentasunaren alde borrokan, eta ez ormaren atzean... Herri honen fedeak zaindu ditzala indarra eta berarengaitik hil ginen guztien arnasa»).

Gogora ditzagun Viktor E. Frankl-ek *«El hombre en busca de sentido»* bere liburu amaieran erabiltzen dituen azken esaldiak: «Después de todo, el hombre es ese ser que ha inventado esas cámaras de gas de Auschwitz, pero también es el ser que ha entrado en esas cámaras con la cabeza erguida y el Padrenuestro o el Shema Israel en sus labios» (5). Gogora ditzagun baita ere Montes Jaunak transkribatu dituen zenbait exekutatuen azken esanak: «Padres y madres! Ved a dónde conduce el abandono de la familia. Yo soy culpable; pero es mayor la culpa de mis padres que me dejaron sin amparo y sin educación»; «Pido perdón a Dios y a los hombres. Que mi triste ejemplo sirva de lección a todos los que me contemplan»; «Muero con serenidad: he merecido mi suerte»; «Amigos, pedid a Dios que me perdone»; «En nombre de Dios que perdonó a los ladrones y asesinos, perdonadme también a mí»; «Deploro mi condena, y muero como buen cristiano»; «Lo que sucede es muy triste; pero lo tengo bien

(5) Viktor E. FRANKL, *El hombre en busca de sentido,* Herder, Barcelona, 1980, 128. or., (Diorkiren itzulpena).

merecido». Zirkunstantzialki ederrak izan diren beste orrialde asko (garairako eta bere geografi-lekutasunerako hala izan direnak) idatzi dituzte heriotzera kondenaturik egon diren pertsonek (6). Kapitulu berezi bat mereziko luke Jerusalenen Nazareteko Jesusen epaia eta hilketa, eta honek zapalezinak diren askorengan izan duen ondorioa (7).

Heriotz zigorraren giza-aurreko jatorri eta garapen sekularranitza nahi bezain ondo aztertzerik ez dugunik, hau ikuspegi zabal batetik begira, zenbaitetan gurutzatu edo elkarreragin edo atzera etortzen diren hiru garaietan laburtzera behartuak gaude:

A — Ordaintze erlijiosoaren garaia (teozentrismoa).

B — Erreakzio juridiko-legislatiboaren garaia (nomozentrismoa, Monarkiak edo diktadura absolutuak).

D — Kreazio giza-kriminologikoaren garaia (homozentrismoa, Eskubidezko estatu sozial eta demokratikoa).

---

(6) P. MONTES, *Derecho penal,* Vol 2.°, Madrid, 1929, 360. or.

Iñaki BARRIOLA, *19 condenados a muerte,* Vascas Argitaletxea, San Sebastián, 1978, 193.or.hurk.

Ramón de GALARZA, *Diario de un gudari condenado a muerte,* Vascas argitaletxea, San Sebastián, 1977, 72, 156, 186. ok.

Manuel MENÉNDEZ VALDÉS, *Siete meses condenado a muerte,* 2.ª edición, Ed. España, Madrid, 1929, 104.or.hurk.

Pedro HERRERA PUGA, *Grandeza y Miseria en Andalucía. Testimonio de una encrucijada histórica (1578-1616),* Granada, 1981, 391.or.hurk.

(7) Bertrand de MARGERIE, «Mort sacrificielle du Christ et peine de mort chez saint Thomas d' Aquin, commentateur de saint Paul», *Revue Thomiste,* T. LXXXIII-N.° 11 (juillet-sept. 1983),395.or.hurk.

R. FABRIS, «Gesú di fronte ai malati e alle esperienze di morti», AA. VV., *La spiritualitá del NT,* Roma 1985, 119-131. ok.

**Ordaintze erlijiosoaren garaia**

Guizatasunaren arbasoengandiko lehen garaietatik, *homo sapiens* bera baino lehenagotik, biktimek ematen duten hilketaerantzuna gure aitalehenen bizitzan ere ematen da. Aintzinean eta Erdi Aroan ezagutzen ditugun herri gehientan, zigorrik naharoena zen hura. Jarrera abolizionista XVIII. menderarte ez dela zabaltzen hasten esan daiteke.

Heriotz zigorra —historikoki— bekatu «larriaren» erantzun erlijioso bezala agertzen da, jainkotasunak ordaina jaso eta bere burua betetzeko. Hau dela eta Aintzinako herriek hau erabili dute beste delitu eta bekatu larrien zigor bezala erabiltzeko. Arrazoi horrengaitik, askotan apez-epaileak eskua ezertzen dio errudunari exekuzioaren aurretik, komunitatearen bekatu-delituak berari igortzen zaizkiola adierazteko.

Mende askotan zehar, odolaren mitoak odola bera bizitzarekin identifikatu du, eta garbitze eta barkamen botere bat eman zaio heriotz zigorrean isurtzen den odolari. Batzutan, mito hark giza-sakrifizioak eskatzen zituen herrietako jaietan (8).

Antzineko gizarte haiek, portaera erabat kaltegarria zen haren aurrean, ez zuten justizia egiteko bidea jarraitzen, mendeku bidegabeak eta/edo pertsona errugabeei zuzendutako mendekuak eragotzi edo biktima eta honen familia, eta delitugilea eta honen familiaren arteko erasoaldiak eteteko bidea baizik. Denborarekin eta boterearen garapenaren ondorioz lortzen da delitugileen santzioak zuzenki inposatu

---

(8) Jean-Marie AUBERT, *Chrétiens et peine de mort,* Paris, 1978, 238.or.hurk.
Manuel PÉREZ Y DE LA MOLINA, *La sociedad y el patíbulo,* Jean IMBERT, *La peine de mort,* Paris, 1972, 22, 31.ok.hurk.

(agintaritzatik) eta finkatzea (9). Garapen honetan noski, salbuespen asko eman da.

Aintzineko gizarteetan boterea bidegabeki erabiltzen zuten horiek heriotz zigorra inposatzen zuten zenbaitetan. Ezagutzen ditugun arautegi zaharrenek zigor hau ezartzen dute gertakizun askotan. Hammurabi-ren arautegiak ia berrogei delitutarako (lapurreta, administral-galbideratze kasuetan, lege-hauste sexualetan...) inposatzen du. (Cfr. *Código de Hammurabi,* Federico Lara PEINADO-k prestatutako argitarapena. Editora Nacional, Madrid, 1982, 68 or.). Gure aro aurretiko XVI. mendean, siriar legeek mutilazioa finkatzen zuten zigorrik arruntena bezala, baina zenbait kasutan heriotz zigorra betetzea agintzen zuten.

Heleniar zuzenbidean kontrako tribu eta famili taldeenganako autodefentsak harrera ona du, baina zenbait krimen berezitan, gehiengoak erlijioaren eremuan egindakoak, heriotz zigorra ere erabiltzen da.

Judutar herriak, testamendu zaharrak agertzen duen bezala, delitu askotan heriotz zigorra erabiltzen du, bereziki idolatria edo portaera sexual zenbaitekin erlazionaturikoetan. Testamendu Berrian erabateko aldaketa bat ezartzen da. Ebangelioaren arabera delitugilea hiltzea alferrikakoa, ezduina eta premiagabekoa da. Drapkin-ek esaten duen bezala, hebraitar zuzenbide zaharrean heriotz zigorra dugu bibliako legeek arautzen dituzten zazpi zigorren artean ulergaitzena (10).

---

(9) Jacques LECLERCQ, «Reflexions sur le droit de punir», *Estudios Penales*. Homenaje al R.P. Julián Pereda, S.J. Preparado por A. Beristain, Bilbao, Univ. de Deusto, 1965, 473.or. hurk.

(10) Antonio BERISTAIN, «El catolicismo ante la pena de muerte»,

BARBERO SANTOS, BERDUGO, BERISTAIN, GARCÍA VALDÉS, eta beste zenbaitek idatzitako honetan: *La pena de muerte. Seis res-*

Gehienetan, aintzineko erlijio eta sineskeriek exekuzioa jendaurrean egiten behartzen zuten, sinbolismoz jositako oso metodo ezberdin eta gogorrak erabiliz, René Girard-ek modu zabal batez azaltzen duen «chivo expiatorio»-arena adibidez (11).

Hauek ditugu garai haietan gehien erabiltzen ziren exekuzio teknikak: 1/ Harrika egitea. 2/ Altuera batetik behera botatzea. 3/ Gurutzifikapena. 4/ Bizirik erretzea. 5/ Urperatuz itotzea. 6/ Oraindik bizirik dagoen kondenatuaren lurperatzea. 7/ Zintzilikatzea. 8/ Paluztatzea. 9/ Animali baten azpian zapaltzea (Indian XIX. mendean oraindik ere, kondenatua elefante baten azpian jartzen zuten). 10/ Astintzea (Txina zaharrean bereziki). 11/ Pozoadura (Sokrate). 12/ Ezlokatu eta tantaia erabiliz hezurrak puskatzea. 13/ Norabide ezberdinetara zuzentzen diren zaldien bidez zatitzea, e.a. Aintzineko zenbait herritan bizitza kentzean baino gehiago, hiltzen uztean datza exekuzioa.

Gaur egunean oraindik, lege islamikoak arautzen ez duen herri arabiar guztietan, Mufti-a da arazo erlijiosoez jakintza haundien duena komunitate osoan, onartu behar dituena sententziak formaltasun baten barruan egon daitezen.

Txina inperialean borreroek biktimari aurpegira ez begiratzen saiatzen ziren geroago honen arima

---

*puestas,* 2.ª ed., Bol. Oficial del Estado, Madrid, 1978, 163.or. hurk.

Israel DRAPKIN, Crimes and Punishments in Ancient Hebrew Laws, *Festschrift für GÜNTER BLAU zum 70. Geburtstag am 18. Dezember 1985,* Ed. Walter de Gruyter, Berlin, 1985, 613. or.hurk.

C. THOMA, Pena de muerte y tortura en la tradición judía, *Concilium,* 1978, 722.or.hurk.

(11) René GIRARD, *La violencia y lo sagrado,* Ed. Anagrama, Barcelona, 1983, 129.or.hur. Joaquín Jordak egindako itzulpena.

Idem, Culture «Primitive», giudaismo, cristianesimo, *La pena di morte nel mondo,* Bologna, 1983, ed. Marietti, 75.or.hurk.

itzuli eta berari agertzearen beldurrez. Gaur egun, 1987.ean, biktimak belaunikatu egin behar du eskuak bizkarrean lotuak dituelarik, eta borreroa zutik jartzen da *biktimaren atzean* eta soldadu edo poli zia batek egiten dio tiro garondoan errudunari, honek bera ikusi gabe.

## Nomozentrismoaren garaia

Erlijio eta Zuzenbidearen garapen historikoarekin batera, sistema judiziala ere sekulartzen ari da pausuz pausu, autonomia haundiagoa lortu eta hain sakratuak ez diren legetan oinarrituz. Zientziak lehentasuna ari dira lortzen sineskeria eta sorginkeriaren gainetik. Adibide gisa aipa ditzakegu heriotz zigorraren praxia eta erregulazioa erromatar munduan, germaniar munduan, monarkia absolutuetan eta XVIII... eta XX. menderainoko diktaduretan.

Denboraldi luze honetan delitu larri guztientzat heriotz zigorra ematen da jandaurrean, neurri gogorrak erabiliz, etorkizuneko delitugai guztiak beldur daitezen. Senecak ondo agertzen du herriaren atsekabea zera idaztean: «cuanto más pública sea la ejecución de la pena de muerte mayor efecto se logrará para la mejoría de las costumbres de los ciudadanos en general».

Aintzineko Erroman (kristoren aurreko v. mendean) Hamabi Taulek heriotz zigorra ezartzen dute aldez aurretik suteak egitea pentsatzen dituzten konbiktuen aurka, gezurrezko lekukotasuna, kalumnia larria,... azpieroskeriaren aurka. Errepublika garaian *cives romani* gutxi batzu baino ez zituzten exekutatu; esklabuei maiztasun haundiz aplikatzen zitzaien zigorra dugu hau, ordea. Inperioaren azken garaian, kristautasunaren onespenaren ondorioz, heriotz zi-

gorra eremu zabalago batetan hasi ziren erabiltzen, batez ere heresiako kasuetan.

Erromanistek heriotz zigorra ezartzen zen kasu guztien zerrenda egiten dute: parrizidio klasikoenetik hasi, *crimen perduellio*-a (hau da, estatuaren aurkako delituak, aberriaren aurkako etsaitasun krimeak), *crimen maiestatis*-a, agerian dagoen ebasketa, gezurrezko testigantza, e.a. Exekuzioaren deskribapena egiten digute (Errepublika garaian zenbaitetan astindu egiten zituzten gizonak lehenengo), gurutzikapena, lepamoztea, Tarpeya arrokatik jaustea, ixilean egiten den gartzelako gosea (batez ere emakumeei egiten zaiena), ormarterkatzea (elizgizonei bereziki), espataz lepamoztea, kondenatua bizirik lurperatzea, itotzea, *culleum*-a egitea, e.a. (12).

Espezialistek diotenaren arabera (13), Germaniar Zuzenbideak oraindik ere, heriotz zigorraz (zenbaitetan edonola erabiliz) gastigatzen ditu delitu larriak ondoren aipatzen den moduan aplikatuz: zatikatu (zaldukerian dabiltzanen zigorra), bizirik lurperatu (emakumeak bereziki, baina baita sexuzko krimenak ere, bortxakeria batez ere egin duten gizon errudunak), lurperatu edo su egitea (gehiengoetan emakumea ahalke kontuak direla eta), ormarterkatu (gehienetan legegizonen zigorra). Germaniar Zuzenbide-

---

(12) E. CUELLO CALON, *La moderna Penología*, 176.or.hurk. 211.hurk.

Jean IMBERT, *La peine de mort*, Presses Universitaires de France, Paris, 1972, 30.or.hurk.

(13) VON AMIRA, *Die germanischen Todesstrafen*, Akademie der Wissenschaften, Munich, 1922, 126.or.hurk.

IMBERT, *La peine de mort*, 75.or.hurk.

John LAURENCE, *A History of Capital Punishment, with special reference to Capital Punishment in Great Britain*, Kennikat Press, London, 1932, berrinprimaketa 1971, 14.or.hurk., 220.hurk.

BARBERO SANTOS, *Pena de muerte. (El ocaso de un mito)*, Buenos Aires, Depalma, 1985, 67.or.hurk.

STRÖM, *On the sacral origin of the germanic death penalties*, Lund, 1942.

aren ezaugarria dugu heriotz zigorraren ekintzan delitu motaren arabera prozedura ezberdinak erabiltzearen: Modalitaterik bigunena lepamozketa, larritasun gutxieneko kasuetan inposatzen dena. Beste muturrean, urkatzea, modurik gogor eta desohoragarrienetako bat, bandolerismoari dagokiona, delitu larri bezala zailkatutako bat. Azkenik, Germaniar Zuzenbideak duen beste bereizgarri bat ekarri behar dugu gogora: *inimicus*-ari bake ezosoa dagokio, traidoreari bake eza dagokion bezala; eta bi hauek biktimaren familiak delitugilea hil (odolaren mendekua) edo beste norbaitek hau hiltzea ondoriozta dezakete.

Inkisizioaren lehen garaiko eliz-legerian, XIII. mendetik XV.a bitarte hain zuzen, heriotz zigorra zenbait autorek adierazten duten baino gutxiagotan erabili zen; André Laingui eta Arlette Lebigre-k (14) frogatzat agertzen digute Bernard Gui inkisidoreak, 1307.etik 1323.era, 42 heriotz sinatu ez izana.

Monarkia absolutuen garaian ere heriotz zigorra erabiltzen da delitugile asko zigortzeko, batez ere delitugile politiko izenaz ezagutzen ditugunak zigortzeko.

Heriotz zigorrarekin zerikusi haundia duen bandolerismoa aipatu beharra dago, oso gai konplexua eta bibliografia zabal baten gai izandakoa (15). Julio Caro Barojak italiako XIV. mendeko bandolerismoaz idatzitako orrialdeetan honi buruz gertakizun historiko eta literaturazko gai bezala idazten duenean (16), Cola di Rienzo-k 1347.eko ekaina eta uztaile-

---

(14) André LAINGUI, Arlette LEBIGRE, *Histoire du droit pènal. Vol. II La prodéduce criminelle,* ed. Cujas, Paris, 1979, 55. or.

(15) Carlos GARCÍA VALDÉS, *No a la pena de muerte,* Edicusa, Madrid, 1975, 60.or.hurk.

(16) Julio CARO BAROJA, *Realidad y fantasía en el mundo criminal,* Consejo Sup. de Investigaciones Científicas, Madrid, 1986, 89.or.hurk., 135.or. bereziki.

ko hileetan emandako lege zorrotzez eta heriotz zigorraz ari da: «varios nobles y algunos monjes fueron ejecutados y otros presos». Erdi Aroko bandolerismoaz zera dio: «sigue dándose con representantes en la nobleza y el sacerdocio», beraz ez da harritzekoa nobleak eta fraileak exekutatu eta heriotzera kondenatuak izatea.

Heriotz zigorra maiz eta zekarki erabilia izan zen Aro berri aurreko Europan, nahiz batzuk mozketa erabiltzen zuten honen ordez (ondorio txarra ematen zituen krimenezko politikan ere), baita lan bortxatuak eta deportazioa ere. Europako mendebaldeko herrietan heriotz zigorraren unerik gorena XVII eta XVIII. mendeetan ematen da. Esate baterako, XVIII. mende bukaerako ingeles legeek heriotz zigorra inposatzen zuten berrehun delitutan gutxienez.

Erdi Arotik XVIII. mende bukaerarte, Europako sistema penalak jendaurreko mendekua eta beldurra zabaldu nahi izan zituen. Hau dela eta heriotz zigorra, gogoratzeaz bakarrik erabat beldurtzen gaituzten metodoak erabiliz egiten ziren: Alemanian Erromatar Zuzenbide klasikoak guraserhaileei aplikatzen zien tortura berdina erabiltzen zen, eta haurritzean aritutako emakumeari bizitza kentzen zitzaion makilakadak emanez. Inglaterra eta Italian heriotzera epaitutakoaren gorpua sasi eta zikintasunaren artean herrestan eramaten zuten, oraindik bizirik zegoela erraiak ateratzen zizkioten, sutean botzeko, eta ondoren, zatikatu egiten zuten. Espainian zaldi hezigabe baten buztanari lotu, gogorki hago-

---

Berdin beste lan honetan: *Los Derechos Humanos ante la Criminología y el Derecho Penal,* ed. Universidad del País Vasco, San Sebastián, 1985, 281.or.hurk.

randu eta irakiten zegoen olio edo berun urtea bezalako isurki gartsuak ziztatzen zizkioten (17).

Heriotz zigorrera epaitutakoei eskeinitako adintasun erlijiosoak gora beherak sorterazi ditu, bai alde bai aurkako iharduerak. Honi buruz Pedro de León, Friedrich von Spee (1631.ean) eta Jacob Schmid (18) jesuitek argitaratutako zenbait gauza nabarmentzea merezi du.

**Kriminologiko-humanistaren sortze garaia**

Ilustrazioak argudio sendoak ematen zituen heriotz zigorra eta hain ezgizatiarra den sistema penal osoaren gogortasunaren aurka. Gogora ditzagun 1721.ean, Montesquieuk bere *Cartas Persas*-etan egiten dituen erasoak, Voltairek egindakoak, e.a. Espainian aipagarria da Fray Martín benediktarraren eritzia. 1762.ean, Cesare Bonesana (1738-1798) abolizionisten aita Beccariako markesak idatzitako «*Dei delitti e delle pene*» liburua agertu baino bi urte lehenago Fray Martín-ek honela idazten zuen: «Por malvado que sea un hombre, será más útil vivo que muerto a la sociedad si se le separa de ella en un sitio donde se le haga trabajar. Eso otro de que un

---

(17) Manuel PÉREZ Y DE LA MOLINA, *La sociedad y el patíbulo*, 18.or.hurk.

GARCÍA VALDÉS, *No a la pena* ... 18.or.hurk.

L. RADZINOWICZ, *A History of English Criminal Law and its Administration from 1.705*, vol. I, Londres, 1948, 4.or.hurk.

(18) Pedro HERRERA PUGA, *Grandeza y Miseria en Andalucía. Testimonio de una encrucijada histórica (1578-1616)*, Granada, 1981, 391.or.hurk.

Peter BRANDT, *Die evangelische Strafgfangenenseelsorge. Geschichte-Theorie-Praxis*, Ed. Vandenhoeck Ruprecht Göttingen, 1985, 78.or.hurk., 174.hurk., 223 eta 294.hurk.

RADBRUCH, «Ars moriendi», *Elegantiae Juris Criminalis*, 2.ª. ed., Basilea, Verlag für Recht und Gesellschaft, 1950, 157.or. hurk.

castigo de muerte sirve para escarmentar a otros, está bien pensado, pero no corresponde en (a) la práctica. Lo que se logra no es el escarmiento, pues cada día se multiplican las maldades de todo género...» (19).

XVIII. mendetik aurrera krimenezko ekintza *versus* mendekuzko kontraekintzaren arteko dialektika gainditzen hasten dela esan daiteke —zentzu batean—. Krimenezko ekintzari giza-jokaeraz erantzuten zaio sekulan egin den baino gehiagotan; zenbaitetan «bidezkoa» den baino eskuzabalago, lagunkideagoa den *kreazio* batez erantzuten zaio.

Aintzineko herrien justizian paper garrantzitsuena idolojainko mendekariek, eta geroago (zentzu bateko gero kronologiko bat baino ez dena) mendekua eta beldurra ainarritzat zuten lege logiko-razionalek betetzen bazuten, orain homozentrismoa, androgenesi amankomuna, gizatasun balioak, eta beste batzuren artean gaur egun Martin Buber-ek azaltzen duen ni-zuaren arteko harremanak dira garantzitsuenak.

Munduikuskera honek argibide haundia eskaini du Ilustrazio garaitik aurrera (20), arrazoia, sentimendua eta gizatasunaren barnea argitzen poliki poliki jarrera abolizionistaren alde, eta jarraitzaileak lortzen, zalantza eta atzerakada asko ematen badira ere. Atzerakada hauen arrasto gisa esan beharrekoa da gaur egunean zenbait Estatutan askatasun osoa dagoela apelazioak egiteko, XVII. mendean 1670. eko *Ordonnance Criminelle* famatuak heriotz zigo-

---

(19) Ikus Antolín LÓPEZ PELÁEZ, *Los escritos de Sarmiento y el siglo de Feijóo,* 1902, 155. or.
Berdin, «Un precursor de Beccaria», *Revista Contemporánea,* 1898.

(20) Herbert FLIEGER, *Todesstrafe.* «Die Würde des Menschen ist unantastbar», 128.or.hurk.
Mario A. CATTANEO, Morale e politica nel dibattito dell'illuminismo, *La pena di morte nel mondo,* ed. Marietti, Bologna, 1983, 105.or.hurk.

rrera bultzatzen zuen epai guztien aurka jokatzea behartzen zuen artean. Frantzian ordenantza hau indarrean egon zen aldarrikatzetik Iraultza eman arte.

Modu berezi eta baikor batez izan zuen Beccariak eragina sistema penalaren teorilari eta praktikoengan, hain zuzen ere Ornella Voccak dioen bezala (21), XVIII. mende bukaerako eta XIX. mende hasierako Inglaterra, Frantzia, Alemania, Austria eta Errusiako erreforma abolizionistetan (21).

Jakina den bezala, Beccariak harrera ona izan zuen Lardizabalengan, baina heriotz zigorraren gaiari dagokionean azken hau bestea baino retentzionistagoa agertu da. Lardizabalek heriotz zigorraren zilegitasuna mantentzen du, baina begiramendu eta zuhurtasun haundiz erabiltzea eskatzen du, bakarrik beharrezko eta eragingarria izan daitezkeen kasuetan erabilia izan dadin txukun eta gogorkeria baztertuz (22).

Gaur egunean, gure kultur hesparruko herrietan, heriotz zigorraren alde agertzen diren horien eremua txikitzen ari da, datu soziologikoek eta legezko testuek frogatzen duten bezala (23). Bi lehenengo abolizio estatulak Toscanako Leopoldo II.ak 1786.urtean aldarrikatutako arautegiari esker, eta 1787.ean Austriako Jose II.ari esker lortu ziren, hau aplikatu eta garatzeko eremu aproposa aurkitu ez zuten

---

(21) Ornella VOCCA, *Evoluzione del pensiero criminologico sulla pena di morte (Da Cesare Beccaria al Codice Zanardelli)*, Napoli, 1984, 31.or.hurk.

(22) Manuel de LARDIZÁBAL Y URIBE, *Discurso sobre las penas contraido a las leyes criminales de España para facilitar su reforma*, 2.ª ed., Imprenta de Repullés, Madrid, 1828, 166.or. hurk.

(23) Eugenio CUELLO CALON, *La moderna penología*, 167. or.hurk.

adibide utopiko gisa. XIX. mendean abolizionista gehienek abolizio partziala eskatzen dute. 1889.eko italiar Arautegia ezarri ondoren, ordea, erabateko abolizioa eskatzen hasten dira berriz ere (24).

(24) Marc ANCEL, *La pena capital,* 1968, 27.or.hurk.

## LEGERIA KONPARATUA

Gaur egunean, Amnesty International-en txosten pribatu eta publikoek eta beste zenbait agirik (1) diotenaren arabera, heriotz zigorra abolitua dago 30 herri hauetan garaia eta delitua edozein delarik: Australia, Austria, Cabo Verde, Kolombia, Costa Rica, Dinamarka, Dominikar Errepublika, Ekuador, Fiji, Findandia, Aleman Errepublika Federala, Frantzia, Holanda, Honduras, Islandia, Kiribati, Luxemburgo, Mozambike, Nikaragua, Noruega, Hegoaldeko Gales Berria, Panama, Portugal, Salomon (ugartea), Suedia, Turalu, Uruguay, Vanuatu, Vaticano eta Venezuela.

---

(1) Amnesty International, USA THE DEATH PENALTY, Briefing, 1987. Amnesty International taldearen txostena, *La Pena de muerte,* Londres, 1979. Amnesty International-ek hilero sei bat orritako txosten publiko eta/edo pribatu bat idazten du. Beste zenbait gauzen artean epai eta exekuzioen berri ematen du, hiria, epaituaren izena, eta exekuzioaren zergatia xehetasun batzu emanez azaltzen dituelarik.

IX. atalean azaldutako bibliografia orokorra ikus daiteke.

Eric PROKOSCH, *La pena di morte nel mondo,* ed. Marietti, Bologna, 1983, 10.or.hur.

BARBERO SANTOS, *Pena de muerte (el ocaso de un mito),* Buenos Aires, Depalma, 1985, 157.or.hurk.

Hugo Adam BEDAU, *The Death Penalty in America,* 3. argitarapena, New York, Oxford, 1982, 21.or.hurk.

Beste 18 herrik heriotz zigorra delitu guztientzat abolitu dute, legeria militarrak zehaztutako delituak eta/edo adibidez gerra garaian bezala, egoera berezietan betetako delituak ezik. Herriak honako hauek dira: Brasil, Kanda, Salvador, Espainia, Holanda, Israel, Italia, Malta, Mexiko, Monako, Nepal, Zeelanda Berria, Panama, Papua (Ginea Berria), Peru, Britainia Haundiko Erresuma Batua, San Marino, eta Suitza. Estatu Batuetan estatuko legerietan arau ezberdinak daude heriotz zigorrari buruz.

Heriotz zigorra ohizko garaietarako eta/edo delitu arruntentzat mantentzen da 133 herri edo lurraldetan: Afghanistan, Albania Algeria, Angola, Anguilla, Saudi Arabia, Argentina, Bahamak, Bahrain, Bangla Desh, Barbados, Belgika, Belize, Benin, Bermuda (ugartea), Bolivia, Bostwana, Butan, Birjina Irlak, Brunei, Bulgaria, Burma, Burundi, Camerun, Cayman (ugartea), Afrikar Errepublika Zemtrala, Comores (ugartea), Kongo, Iparraldeko Korea (Herri Errepublika Demokratikoa), Hegoaldeko Korea, Bolikosta, Kamerun, Kuba, Txad, Txile, Txina, (herri Errep), Txekoslovakia, Cypre, Djibouti, Dominika, Egypto, Ethiopia, Filipinak, Gabon, Ghana, Gambia, Grezia, Granada (ertamerika), Guatemala, Ginea, Ginea-Bissau, Ekuator Ginea, Guyana, Haiti, Hong Kong, Hungaria, India, Indonesia, Iran, Iraq, Irlanda, Jamaika, Japonia, Jordania, Kamputxea, Kenya, Madagascar, Malawi, Malaysia, Maldivak, Mali, Marokko, Maurizio, Mauritania, Mongolia, Montserrat, Mozambike, Nambia, Afrikar Errepublika Zentrala, Aleman Errepublika Demokratikoa, Rwuanda, Errumania, San Kristobal eta Nevis, Santa Luzia, San Vicente, Samoa, Santo Tomé eta Printzea, Senegal, Seychelleak, Sierra Leona, Singapore, Somalia, Hegoafrika, Sri Lanka (Ceylan), Sudan, Surinam, Swazilandia (Afrika), Taiwan, Tanzania, Thailandia, To-

go, Tongra, Trinidad eta Tobago, Tunisia, Turkos eta Kaikos (ugarteak), Uganda, Sivietar Errepublika Sozialisten Batasuna, Alto Volta, Viet Nam, Iparraldeko Yemen (Arabiar Errepublika), Hegoaldeko Yemen (Herri Errepublika Demokratikoa), Jugoslavia, Zaire, Zambia, Zimbabue.

Hauetako zenbait herritan berrogei ta hamar gutxi gora behera-ez da kondena epairik bete 1973. etik aurrera gobernuko politika arrazoiak direla eta. Honela izan da Alto Volta, Algeria, Belgika, Bolikosta, Ginea, Guyana eta Seychelleetan.

Mugimendu abolizionista lehen esan bezala, zentzu batetan indartzen ari da. Azken aldi hontan heriotz zigorra abolitu dute. Espainian 1978.ean, bake garaietako delituetarako; Brasilek 1979an, deletu arruntetarako; Luxemburgo, Nikaragua eta Norvegiak 1979an, delitu mota guztietarako; Peruk 1980. ean, delitu arruntetarako; Frantziak 1981.ean edozein delitu motarako; Holandak 1982.ean delitu guztietarako; Salvadorrek 1983.ean ohizko delituetarako; Hegoaldeko Gales Berriak eta Australiak 1986. ean, delitu guztietarako.

Aldi berean, ordea, Nazio Batuetako partaide zenbaitek (2), heriotz zigorraren abolizioa lortzeko ideiatik urrun, arau honen bitartez zigortzen den delitu kopurua ere haunditu egin du. Izan ere, nazio arteko arautegitik urrundu badira, hala gertatu da ere indulto eskabidea egiteko eskubidea ukatzean.

---

(2) AMNESTY INTERNATIONAL, *Manual sobre la pena de muerte,* 1983, 12. or.

Marc ANCEL, «Quelques observations sur l'abolition de la peine de mort», *Crime and Criminal Policy,* Papers in honour of Manuel López-Rey y Arroyo, Franco Angeli, Roma, 1985, 33. or.hurk.

Herri bakoitzeko praxia eta legeria komentatu eta zehazteko lekurik ez badugu ere, egokia litzateke, nahiz modu labur batez Estatu batzuri buruzko zenbait gauza kontutan hartzea.

Mendebaldeko Europan legeria abolizionista da menperatzen duena. Aleman Errepublika Federalak, 1945.ean sortu zenetik, heriotz zigorra abolitu zuen edozein baldintzentarako, Oinarrizko Legearen 102. artikuluan. Erabaki parlamentari hau hartzeko eragin haundia izan zuen batez ere Hirugarren Reich-ean heriotz zigorraren gainezko erabilpenak, Jescheck adierazten duen bezala (3). Austriak ere heriotz zigorra abolitu zuen erabat 1968.ean, Konstituzio federaleko 85. artikuluan: «heriotz zigorra abolitua geratzen da».

Frantzian Herri Batzarreak abolitu zuen 1981.eko Irailaren 18an. Mitterrand lehendakariak hitz eman zuen aurretik egindako hauteskunde kanpainan abolizioa emango zuela. 1959.etik 1978.era heriotz zigorra berrogeita hamabi alditan inposatu zen eta hamazazpi aldiz exekuzioa betetzera heldu.

Britainia Haundiko Parlamentuan egindako debateak ospatu ondoren, 1965.ean heriotz zigorra ezabatu egin zuten asasinatze kasuetarako, bost urtetako denboraldi batez. Abolizio hau epe mugagabe batetarako luzatua izan zen 1969. urteko abenduaren 19an; baina oraindik ere indarrean jarraitzen du saldukeria eta piratakeria, kalte eta armategietako suteetarako. 1975.ean Komunen ganbarak ukatu egin zuen berriz ere indarrean jartzeko aurkeztutako proposamena. 1979.ean gauza bera gertatu zen, eta ja-

---

(3) Hans-Heinrich JESCHECK, *Tratado de Derecho Penal. Parte General,* 71. pasartea, Bosch, Barcelona, 1981, 1.054. or. S. Mir Puiz eta F. Muñoz, Condek itzulia (bibliografiarekin).

rrera honen alde jokatu zuen botari kopuru haundiago baten laguntzaz (4). Aditzera eman daiteke 1918an Inglaterran ordurarte indarrean zegoen heriotz zigorra abolitu egin zutela 5 shillinetako balioko epasko bat egiten zen kasuetarako.

Suitzak 1937. urteko kode penalaren bitartez abolitu zuen heriotz zigorra, eztabaida lehiagarri zenbaiten ondorio bezala. Holandak 1970. urtean eremu zibiletik kendu egin zuen, baina gerrako delituetarako inposasu egin zuen berriz ere 1943.ean.

*De facto* dauden herri abolizionisten artean Belgika aipatu behar dugu. Kode penala berrikusteaz arduratzen den Batzordeak *de iure* abolizioaren alde eman zuen botua. 1979.eko apirilaren 5ean, Batzordeko zortzi kidek erabateko abolizioaren alde eman zuten botua eta bik bake garaietarako abolizioaren alde, eta sei lege hau indarrean jarraitzearen alde agertu ziren, nahiz erabili gerra garaietan baino ez zen erabiliko. Bi kidek ez zuten parte hartu.

Belgikako legerian gaur egun ere heriotz zigorrak iraun egiten du. Delitu zibil baten ondorioz (asasinatze bat) azken exekuzioa 1918. urtean inposatu zen. Estatuaren kanpo segurtasunaren kontrako delituren bat egiteagaitik ordea asko dira epaituak izan direnak. Azken aldian, 1944.etik 1951. arte, 242 izan dira gerra garaian kontrakoaren lankide

---

(4) Luis ARROYO ZAPATERO, La experiencia de la abolición de la pena capital en Gran Bretaña, *Homenaje a J. Antón Oneca*, Salamanca, 1982, 11.or.hurk.

Ikus ROYAL COMMISSION on Capital Punishment 1949-1953, *Her Majesty's Stationery Office*, London, 1953, Murder Act, 1965.eko azaroaren 8 a, (Abolition of Death Penalty).

(5) MINISTERE DE LA JUSTICE, Commission pour la Revision du code pénal, *Rapport sur les principales orientations de la réforme*, Bruselas, 1979, 83.or.hurk.

COUNCIL OF EUROPE, *Protocol N.° 6. To the Convention for the protection of Human Rights and fundamental freedoms concerning the abolition of the death penalty*, Strasbourg, 1983, IV.28.

izateagaitik epaitu dituztenak (6). 1975.eko ekainetik aurrera zigorrik gogorrenaz zehatutako delituen artean baiketa ezartzen da, biktima hil edo hegorantzen duen bahiketa, eta 1976.eko ekainean hegazkinaren bahiketa ezartzen da baldin eta heriotzarik sortarazten badu. 1951.etik aurrera barkamen eskaerek arrakasta haundia izan dute eta ez da heriotz zigor bakar bat ere bete (Bigarren Gerrate Mundialaren azken garaietik aurrera) (7). Kode penala berrikusteaz arduratzen den Batzordeak, aurreprojektuari buruz oharpenak egiten dituen 176 orrialdeetan (1986. eko martxoa), ez du heriotz zigorraz tutik ere aipatzen. Urte berean, 1986.ean, belgikar Gobernuak 6. Protokoloa sinatu zuen, gizonaren Eskubideen Babes konbentzioari buruz eta heriotz penaren abolizioarekiko oinarrizko askatasunari buruzkoa, beraz 1987. urtean *de iure* abolizioa onartu beharko da. Eritzi hontakoa izan da Kode Penaleko erreformaren komisari erreala, R. Legros irakaslea (Ikus *Moniteur* belgikarra, 1986.eko abendua, 152 or.); baina ez du abolizioaz hitzegiten kode Penal militarrean.

1929.eko ekainaren 7 atik 1969.eko abuztuaren la bitarte Estatu Vatikanoan indarrean zegoen legeria penalak, Italiako Konkordatuak dioenaren arabera, heriotz zigorra ezartzen zuen bizitza, zintzotasuna eta Erromako Pontifizea eta atzerriko estatuburuen askatasunari eraso egiten zien delitugilearentzat, azken hauenganako elkarrekikotasuna batez gero. 1969. etik aurrera baliorik gabe utzi zuten zehapen historiko hau.

---

(6) Raymond Screvens, «La Peine de Mort en Belgique», *Pena de Morte,* 1. Tomoa, Comunicaçôes, Facultade de Direito da Universidade de Coimbra, 1967, 233.or.hurk.

(7) Amnesty International, *La pena de muerte,* Londres, 1979, 121.or.hurk.

Europako Ekialdeko herriek heriotz zigorra mantentzen dute. Aleman Errepublika Demokratikoak arau-hauste politiko eta militar larri eta asasinatze kasuetarako, kode penaleko 60. pasarteak dioenaren arabera, «Inperialismoaren izaera oldar eta ezgizakorra» dela eta (8).

Sovietar Errepublika Sozialisten Batasunean (SESB) hemezortzi dira bake garaian heriotz penaz zigor daitezkeen arauhausteak. Indarrean dagoen Batasuneko kode penaleko 23. artikuluak «aparteko zigor neurri gisa» ikusten du heriotz zigorra. Kodeari buruzko 1971. urteko Irazkin ofizialaren arabera zera aldarrikatzen da: «la tendencia es hacia la abolición completa tan pronto como las condiciones se den, es decir, antes de la liquidación final de la criminalidad y del remplazo del castigo por métodos de influencia social»... eta osatzen da esanez tribunal batek zigor hau xeda dezakeela «sólo allí donde la necesidad quede indicada por circunstancias especiales que agravan la responsabilidad del culpable y por la peligrosidad excepcional de su carácter», hau da, egilearen Eskubide penalaren eremuan, ekintza beraren Eskubide penalean baino gehiago (9).

Jugoslaviar kode penal berriak, 1977.eko uztailaren 21etik indarrean dagoena, heriotz penaz zigortzen dituen kasu kopurua haunditu egin zuen. Gauza bera gertatzen da Errumanian 1969.eko urtarrilaren letik aurrera, kode penal berria indarrean jartzen den

---

(8) JESCHECK, *Tratado,* Barcelona, 1981, 1.057. or.

(9) Friedrich-Christian SCHROEDER, *Das Strafrecht des realen Sozialismus. Eine Einführung am Beispiel der DDR,* Westdeutscher Verlag, Opladen, 1983, 146.or.hur. Heriotz zigorra onartzen du ere 1979.eo martxoaren 1 eko Kubako Kode, 21. Legea, 29. artikulua.

Ikus *Das kubanische Strafgesetzbuch von 1. Marz* 1979, SEMON eta FRANKEk itzulia, Günter BLAUk egindako sarrerarekin, ed. Walter de Gruyter, Berlin, 1983.

egunetik. Heriotz zigorra gutxienez ondoren aipatutako artikulu hauetan agertzen da: 156, 157, 158, 159, 160, 161, 162, 163, 164, 165, 167, 176, 223, 224, 225, 358...

1970.etik aurrera, (1969.eko) poloniar kode penalak heriotz zigorra bete arazten du bi arau-hauste arrunt gertatzen direnean (hilketa maulatia eta lapurreta armatua), baita bereziki larriak diren beste zazpi delitu mota betetzen direnean. Epaia urkabean betetzen da. Militarrak berriz fusilatu egiten dituzte. Ratajczak-ek dioenaren arabera (10) Epaimahaia heriotz zigorra (sehr zurückhaltend anzuwenden) modu zuhur batez bete arazten saiatzen da.

Estatu Batuetako Gorte Gorenak konstituziokontrako aldarrikatu zuen heriotz zigorra 1972.eko ekainaren 29an. Aldez aurretik, urte bereko otsailaren 18an, Kaliforniako Gorteak modu berean konstituziokontrako aldarrikatu zuen. Bi Gorteek jarrera hau hartzen zuten konstituzioko zortzigarren emendakikina, zeinetan zigor «gogor eta erabilgabeak (edo ohigabeak)» debekatzen bait dira, heriotz penaren aurka zegoela argumentatuz. Gogor kritikatzen ziren heriotz zigor-judizioetan nolanahi egindako prozesuak, baita hiltzeko penaz zigortzen ziren arauhausteen sailkapen desegur eta ezegokiak ere.

Gorte Goren Federalean epaiak bost botu lortu eta beste lau aurka izan zituen (11). Zaffaronik dioen

---

(10) Aleksander Ratajzak, Zur Entwicklung des Strafrechts in der Volksrepublik Polen, *Festschrift für* Günter Blau *zum 70. Geburtstag am 18. Dezember 1985,* Walter de Gruyter, Berlin, 1985, 539, 547. ok. Beste zenbait gauza, Marian Ciëslak, Principios y tendencias de política criminal en la república popular de Polonia, *Cuadernos de Política Criminal,* 1978, 46. or., Agustin Zugaldia Espinar-ek itzulia.

(11) Scarfone, The mandatory death penalty for murder by lifers: foregoing procedural safeguards on the illusory promise of deterrence, *Syracuse Law Review,* 1986, 1303.or.hurk.

bezala «eztabaidaren funtsean arazo politiko latza sumatzen da Gorte Gorenak bete behar duen funtzioari buruz». Alde agertzen diren bost abolizionistek, ikuspegi dinamiko batetik, errealitateari funtzio aldakor bat antzematen diote, beste lau erretentzionistentzat berriz ez da zaintza baino izango honen funtzioa.

Legeria penalak 34 Estatutan hiltzeko pena zein kasutan inposa zitekeen zirkunskribatu eta lehendik epaimahaiek nola edo hala erabilitakoak mugatu ondoren, 1976. urtean Gorte Gorenak aldarrikatu zuen (zazpi botu alde eta bi kontra izanik) heriotz pena konstituzionala dela baina ezin dela legerian zigor absolutatu gisa aurrikusi.

Gaur egunean, Amnesty International-en txostenari jarraiki (1987. urtea), ondorengo estatu hauek heriotz zigorrari buruz legeri ez dutela indarrean esan daiteke: Alaska, Hawai, Iowa, Kansas, Massachusettes, Maine, Michigan, Minnesota, North Dakota, South Daka, West Virginia eta Wisconsin. Ondoren aipatuko ditudan herrialdeetan ez dago heriotz zigorrik: Guam, Puerto Rico, AEB-etako Irla Birjinak, edo Kolombiako barrutian.

Justizia Militarreko Kode Uniformeak hiltzeko pena mantentzen jarraitzen du. Kode honek 1985.eko azaroa arte gerra garaietako arau-hausteentzat baino ez zuen onartzen heriotz zigorra. 1985.eko azaroan, ordea, Reagan lehendakariak emendamendu bat erantsi zion kodeari —the Department of Defense Authorization Act. 1986— bake garaietan espionaian aritutako kondenaturik dauden militarren artean in-

---

J. F. BRESNAHAN, La pena de muerte en EE.UU., *Concilium,* 1978, 675.or.hurk.

Eugenio Raúl ZAFFARONI, *Tratado de Derecho Penal, Parte General,* V. Tomoa, Ediar, Buenos Aires, 1983, 100.or.hurk. (bibliografiarekin).

posatuz. Gaur egunean soldadu bat dago lege militar hau dela eta hiltzeko pena betzera kondenatua. 1961.ean eman zen Kode Militarrak esaten duenarekin bat datorren azken exekuzioa.

Ia lau mila exekuzio bete ziren Estatu Batuetan 1930.etik 1963a bitarte. Amnesty International taldeak dioenez, 1976.ean 582 pertsona zegoen exekuzio gertagarri baten zain; hauen artean 300 beltz, 260 zuri, 13 txikano, 8 indiar eta portorrikar bat.

1985.eko Urtarrilaren 9an Roosevelt Green exekutatu zuten, ikasle zuri baten asasinatzeaz bere burua errugabea aitortu zuena. Hil zorian zegoela epaikideek injustizia larri bat egiten ari zirela adierazi zuen. Bere bizitzako azken orduak telebista ikusten eman zituen, eta bere azken bazkaria, arraultze-tarta, atzera bota zuen. Aulki elektrikoan izan zuen hilketa bere amaren aurrean izan zen, gaztearen borondatez; beste hamabi pertsona ere badira eszena haren lekuko. Amerikako Estatu Batuetako Auzitegi Gorenak exekuzioa atzeratzea ukatu zuen, eta Georgiako autoritate judizialak, abokatuek egindako barkamen eskaera ukatu zuen. Exekuzio honekin 34 ziren dagoeneko Ipar Ameriketan egindakoak 1976. urtean Auzitegi Gorenak heriotz pena birjarri zuenetik.

1986. urteko abuztuan zehar badira bete izan diren zenbait heriotz zigor Estatu Batuetan. Texaseko Estatuan adibidez, abuztuaren 20ean exekutatu zuten bat xiringada hilgarri batez. Hildakoak, Randy Lyon Wolls, 36 urtetakoa, 1979.eko Ekainaren 16 ean, Texaseko Kerrville herrian, automobilistentzat haize agerian dagoen zinema batetan sarrerak saltzeaz arduratzen zen emakumea hil zuen. Betty Stotts zuen izena, 44 urtetakoa; kolpatu, ganibetaz zastatu eta bizirik erre zuen. Wolls ondoren salpostuaz jabetu zen eta lanari ekin zion bostehun dolar bildu zituen arte. Ondoren Bettyren autoan gorpua sartu eta zi-

neman barneratu zen, non poliziak berehala atxilotu bait zuen emakumearen gorpuaren aldamenean eserita filmea ikusten zuen artea. Eraileak gogoratzen ez zuen hilketa batengatik epaitua izatea bidegabea iruditzen zitzaiola deklaratu zuen, une hartan drogaren eraginpean bait zegoen. Randy Lyon Woollsen azken afaria bi gazta-hamburgesa, patata frijituak eta te hotz batek osatu zuten. Presondengiko bozeramale batek presondegi lokatetik 25 km.tara dagoen heriotz ganbarara eraman zutenean urduri samar zegoela adierazi zuen. Bettyren alaba batek, Deborahk, bere ama oso erlijiosa zela jakinarazi zuen eta asasinatzea gertatu baino egun batzu lehenago heriotzeko ordua zetorkiola nabaritu eta ohar bat utzi ziela senarra eta lau seme-alabentzat.

Egun batzu pasatutakoan, abuztuaren 26ean, Chester Lee Wicker, 37 urtetakoa, hil egin zuten ziztada hilgarri batez, neska gazte bat hondartzan bizirik lurperatzeagatik. Aste hortan bertan beste asasino konbiktu bat exekutatu zuten Texaseko Estatu berean, zeinetan heriotz zigorra 1982.ean birjarri bait zuten. Harrez geroztik Texasen 19 pertsona hil dituzte.

1986. urte bereko irailaren 11ean Charles Francis Rumbaugh gaztea, 28 urtetakoa, hil zuten errudunzat jo bait zuen bere burua 1975. urtean, berak 17 urte zituenean bitxigile bat asasinatu zuela esanez. Ziztada hilgarri batez hil zuten. Charles Rambaugh heriotz zigorra jasatera kondenatu zuten asasinatze bat eta 54 dolarreko lapurreta baten ondorioz. Amnesty Internationalak gogor egin zuen hilketa honen aurka, zeren eta honek nazioarteko hitzarmenak bortxatzen bait zituen —Estatu Batuak sekulan berronetsi ez zituenak— zeinetan debekatua bait zegoen 18 urtetik beherako lege-hausteen egileak hiltzea.

Teorian EE.BB. etako Mendiku Elkarteak aukera ematen die Medikuei ziztada hilgarria erabiltzen den exekuzioetan kontseilari gisa parte hartzeko, zuzenki hilketan parte hartu gabe. Hain zuzen ere, mendikuak esaten du zein farmako eta zein dosi den egokiena eta errudunak hilketa hortarako zain egokiak dituen egiaztatzen du, baita beste ziztada baten beharra izango balu ziurtagiria luzatu ere, erruztatua lehenarekin hil ez bada (12).

XIX. mendean zehar eta XX. mende hasieran Gobernu askok heriotz zigorra abolitu egin zuten Latinamerikan; baina azken aldi honetan zigorra berriz ere ezartzeko joera agertu da, batez ere iraultza politiko garaietan edo gobernu diktadore edo kolpe militar baten ondorioz, hirurogei eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan Argentina, Bolivia, Brasil eta Txilen gertatu zen bezala. Azken hontan 1973.eko irailean, kolpe militarraren ondorengo sei hilabeteetan milatsu pertsona hil zuten. Kuban exekuzio sumario ugari egin ziren 1959. urteko iraultzaren ondorengo denboraldian.

1975 urtez geroztik zazpi dira bederen heriotz zigorra baliorik gabe utzi duten herri amerikarrak: Argentina, Brasil, Kanada, Salvador, Mexiko, Nikaragua eta Peru.

Bestalde, judiziozko heriotz penaz gainera, Latinamerikako zenbait herritan, Argentina eta Guatemala bereziki, talde paramilitarrek, gobernuko agintaritza militarraren laguntzaz edo onharpenaz, asasinatzeak, legezkontrako atxilotzeak eta desagerpen ugari burutu zituzten. Horrelakoak eta tortura erabiliz burututako hilketa eta heriotzak maiz gertatzen

(12) J. Kevorkian, Opinions on capital punishment, executions and medical science, *Medicine and Law,* 1985, 515.or.hurk.

dira. Brasil, Txile, Salvador, Nikaragua, Dominikar Errepublika, Paraguay, Uruguayen... (13).

Funtsezko bost arrazoi ematen ditu Zaffaronik (14) Argentinan «heriotz zigorra» izena ezagutzen duguna konstituziokontrakua dela frogatzeko: ez da zigorra, konstituzioko 18. artikuluak debekatzen duen oinaze mota bat da, legeak proposatzen duen helburua lortzeko neurri arruntki desegokia, 18. artikulua bortxatzen du arrazoi politikoek eraginda ezarria izatean eta Konstituzio Nazionalak azpimarratutako baloreen ordenuari garnazpi egiten dio.

Japoniar legeriak hamazazpi lege hausteetarako onartzen du heriotz zigorra (dueloan norbait hila gertatzen bada adibidez), eta aginduz inposatzen du atzerriko erasoei erantzuna emateko zirikatzen aritzen direnentzat. 810. urtetik 1.156.era, Heian izeneko denboraldi hartan, ez zuen baliorik izan. 1896 urtetik aurrera urka da heriotz zigor metodo gisa erabiltzen den prozedura (Arautegi penaleko 11. artikulua), zazpi prisondegitan erabiltzen dena, eta bakoitzak bere borreroa omen du. Hilketak ixilean egiten dira eta ez dira publikoki iragartzen. Eskura daitekeen informazio bakarra Justizi Ministraritzak aldiro argitaratzen dituen estatistikak dira. Ixilean emateak atxilotuen familia ,beren familiako norbait hila gertatzearen ondorioz senti dezakeen lotsaz zaintzen duela dio Ministraritzak. Reuters Agentziako

---

(13) Alessandro BARATTA, Aspetti extragiudiziali della pena di morte, *La pena di morte nel mondo,* Bologna, 1983, 175.or. hurk.

BERDUGO, La pena de muerte en el actual derecho iberoamericano, *La pena de muerte 6 respuestas,* 1978, 87.or.hurk.

AMNESTY INTERNATIONAL, *La pena de muerte,* 1979, 121.or. hurk.

LÓPEZ-REY, *Criminalidad y abuso de poder,* Madrid, 1983, 92.or.hurk.

(14) E. R. ZAFFARONI, *Opus cit.,* T. V., Buenos Aires, 92. or.hurk.

berriemaileak oraindik erabat ziurtatu ez diren berrien arabera, 1954. urtea eta 1974. urtea bitarte Japonian 336 pertsona hil zirela pentsatzen du. Ezagutzen ditugun beste iturburu batzuk diotenez, betetzen den exekuzio kopurua gutxitu egin da azken ehun urte hauetan: 1880 hamarkadan 200 exekuzio betetzen ziren urteko, eta 1971.etik aurrera 20 ko batazbesteko bat urteko. 1979, 1980, eta 1891. urteetan exekuzio bat baino ez zen bete urte bakoitzean. 1983.eko uztailean, Sakae Menda errugabetzat jo zuen legeak beste prozesu batean, heriotz-pabilioian 33 urte igaro ondoren, hilketa bat egiteaz akusaturik.

Datu bereziki interesgarriak eskeintzen ditu Jose Llompartek, Sophia-Universitateko (Tokyo) katedradunak, Lublineko «Katolicki Uniwersytet Lubelski» Univertsitateko *The Review of Comparative Law an Criminology*-an agertzen den oraindik argitaratu gabeko «Die Vollstreckung der Todesstrafe in Japan» bere lanean.

Llomparten arabera, 1946. urtea eta 1971.a bitarte 510 pertsona hil zituzten Japonian (garai hartan epaitutakoen %80a); 1966 eta 1980. urte tartean 140 pertsona urkatu zituzten. 1955.etik 1984.era Lompartek datu hauek jaso ditu:

| Urtea | Heriotz zigor-epaiak | Exekuzio kopurua | Exekuzioaren zain dauden heriotz zigorrera epaituak |
|---|---|---|---|
| 1955 | 15 | 32 | 62 |
| 1956 | 24 | 11 | 75 |
| 1957 | 27 | 39 | 62 |
| 1958 | 20 | 7 | 76 |
| 1959 | 14 | 30 | 57 |
| 1960 | 33 | 39 | 51 |
| 1961 | 22 | 6 | 69 |
| 1962 | 13 | 26 | 56 |
| 1963 | 17 | 12 | 61 |
| 1964 | 9 | 0 | 70 |
| 1965 | 7 | 4 | 72 |
| 1966 | 13 | 4 | 81 |
| 1967 | 14 | 23 | 71 |
| 1968 | 11 | 0 | 82 |
| 1969 | 11 | 18 | 71 |
| 1970 | 14 | 26 | 58 |
| 1971 | 6 | 17 | 48 |
| 1972 | 8 | 7 | 47 |
| 1973 | 4 | 3 | 49 |
| 1974 | 2 | 4 | 46 |
| 1975 | 3 | 17 | 29 |
| 1976 | 2 | 12 | 18 |
| 1977 | 2 | 4 | 16 |
| 1978 | 4 | 3 | 17 |
| 1979 | 4 | 1 | 20 |
| 1980 | 7 | 1 | 26 |
| 1981 | 3 | 1 | 28 |
| 1982 | 1 | 1 | 28 |
| 1983 | 1 | 1 | 27 |
| 1984 | 3 | 1 | 27 |

Krimen Judiziamenduko Legearen 475 artikuluak Justizi Ministrariari exekuzioa epai irmoaren ondorengo sei hileetako epe berruan bete arazten agintzen dio. Hurrengo artikuluak (476) exekuzioa ondorengo bost egunen barruan bete behar dela xedatzen du.

Praktikan, askotan, Justizi Ministrariek ez dute sei hiletako epea betetzen. Zenbait kasutan urteak eta hamar urtetakoak ere igarotzen dira; adibidez *Sadamichi Hirosawa* 1955 maiatzaren 7 an jaso zuen heriotz zigor epaia, baina 1987.eko apirilean gartzelan zegoen oraindik (hogeitamar urte baino gehiago) bere hilketaren egunaren zain. Hiltzeko penaz zigortu eta exekuzioaren zain gartzelan dagoen pertsonen kopurua oso haundia da, 70 eta 80etik gorakoa batzutan. Exekuzioaren ministrari ordenaren zain gartzelan egote hori hiltzeko penaren barnean sartzen da, beraz zigor honek ez du preskribatzen, errudunа gartzelan baldin badago, kode penaleko 32.1. artikuluak preskripzio epe bezala adierazten duen 30 urtetako epe hori igarotzen bada ere.

Ekialde erdiak (Egypto, Iran, Iraq, Israel, Jordania, Lybia, Syria eta Yemen) heriotz zigorra onartzen dute asasinatze eta Estatuko barne eta kanpoko segurtasunari uko egiten dioten lege-hauste berezietarako.

Koran-ari jarraituz, lege islamiarrak hiltzeko penaren bitartez zigortzen du borondatezko asasinatzea. Lege honek, Jainkoak ezaguterazi digula pentsatzen den honek, ordena publikoa mantendu nahi du, baita hiritarren arau moralak ere. Apostasiako kasuetan ere hiltzeko pena zigor bezala erabiltzen da noski (15).

---

(15) G. VASSALLI, En marge du droit pénal islamique, *Mèlanges en l'honneur du Doyen Pierre Bouzat*, Pedone, París, 1980, 75.or.hurk.

Hong Kong-en ezik, herri asiar guztietan dituzte heriotz zigorra aurrez ikusten dituzten legezko xedapenak. Hautako askotan, batez ere ordena publikoa trabatu edo arriskuan jartzen duten lege hausteen kasuan. Hau da Txinako Herri Errepublikan gertatzen dena. Honetan prozesu masiboak egiten dituzte; epaituak prozesuak amaitu eta berehala exekutatuak izan dira. 1980.eko urtarrilaren 1ean txinar kode penal berria indarrean jarri zen, zeinetan hiltzeko penaz zigortzen diren zazpi lege hauste arrunt eta «iraultzaren kontrako» hamalau aipatzen bait dira, «herriari eta Estatuari benetako kaltea egiteko izatera nardargarria» duten kasuetan. 1980.etik aurrera legeriak heriotz zigorra onartu du beste 23 lege haustetarako. Adibidez: lapurreta, ondasunak bidegabeki erabiltzea, laguntaldeen arteko borrokak, irabizi ezmoraletik bizitzea, erakunde sekretu bat antolatzea, emakumeei eraso egitea, asasinatzeak burutzeko metodoak erraztea, e.a.

1983.eko abuztuan txinar agintaritza krimenen aurkako kanpaina bat egiten hasi zen. Abuztua, iraila eta urrian milaka ta milaka pertsona atxilotu zituzten eta beste horrenbeste hil. Londresen argitaratu den *Documentos* saileko *China* argitarapenaren arabera, Amnesty International taldeak seirehundik gorako pertsona kopurua hil zela jaso zuen. Hain zuzen, 1983.eko abuztuaren 23 an, ehun mila pertsoneko kopuru baten aurrean 30 pertsona hil zituzten estadio batetan. Hile hauetan apelaziora jotzeko epea jeitsi egin zuten hamarretik hiru egunetara. Esate baterako, Cao Gourong eta Xu Siangping gaz-

---

Ahmad Abd Al-Aziz Al-Alfi, Punishment in Islamic Criminal Law, Bassiouni, *The Islamic Criminal Justice System*, Oceana Publications, New York, 1982, 227.or.hur.

M. Arkoun, Pena de muerte y tortura en el pensamiento islámico, *Concilium*, 1978, 732.or.hurk.

tea krimena gertatu eta handik sei egunetara hil zituzten. Txinar lege inperialak mendebaleko legeria garaikideek baino gizatasun haundiagoz jokatu zuen. Adibidez, ebasketak ez zuen heriotz zigorra merezi ebatsitakoak zilarrezko 120 ontzatako balioa edo hirugarren aldiz pertsona bakar batek aldi bakoitzean 50 ontzatako balioko bat lapurtu bazuen baino.

Birmania, Filipinak, Formosa, Indonesia, Malaysia eta Singapore bezalako herrietan heriotz zigorra bete arazten da zilegitasunik gabeko sorgorkari trafikoarekin zerrikusirik duten lege hausteetan. Indonesiako agintaritzak, zuela 21 urte, kolpe militar baten saialdian parte hartzeagatik 1986.eko urriaren 9 an bederatzi pertsona komunista hil zituztela.

23 herrik onartu dute azken aldian heriotz zigorra drogarekin erlazionatutako delituetan erabiltzeko, hauetariko seik 1986.aren ondoren. Afrika, Mauriziok (1986) hain zuzen. Iparramerikan Arizona eta Floridak. Asian, Brunei Darussalam (1982), Burma (1974), Txina (1982), Indonesia (1976), Hegokoreako Errepublika (1961), Malaysia (1975), Filipinak (1972), Singapore (1975), Sri Lanka (1984), Taiwan (1950 edo lehenago), Thailandian (1961): Europan, Turkian. Ekialdean, Algeria, Bahrein (1984), Egypto (1966), Iran (1959), Iraq, Jordania, Kuwait, Syria, Emiratos Arabiar Batuetan (1986). (Xehetasun haundiak ditugu AMNESTY INTERNATIONAL taldearen 1an honetan: *Informe* ACT 05/39/86, Distr. SC/DP/PO/C O/GR/PG, 1986. eko abendua).

Afrikar gobernu gehienek heriotz zigorra onartzen dute, baina erabilpenaren maiztasuna asko aldatzen da herri batzutatik bestetara. Askotan epaitu eta hil egiten dituzte lege hauste politikoak egin dituzten pertsonak epaiketa sumarisimoak izan ondoren. Heriotz zigorraren exekuzio tasak Hegoafri-

kan, duela urte batzuz geroztik munduko haundienetako bat da.

## Berehalako aurrekariak eta egungo legeria Espainian

Heriotz zigorra indarrean egon da bai praktikan, bai Espainiako legeria penalean ere bere lehen garaietatik (16). Une honetan hemen aipa ezin ditzakegun salbuespenak ezik, zigor honen kontra daudenak XVIII. mendearen erdi aldetik aurrera hasi dira ezadostasuna agertzen.

Kodifikazio Batzorde Orokorra, 1843.eko abuztuaren 19 an Errege Dekretuak izendatua, 1848.eko kode penala prestatzearen arduraduna, deseginda geratzen da 1846.eko uztailaren 31ko Dekretuak esanarekin. Aldez aurretik. 1844.eko azaroaren 12 eta 14ean, hiltzeko pena berarekin zerrikusirik ez duten lege-hausteetan gaizkoaduraren erregelek eraginda, ezartzeko aukera galerazteaz arduratu zen. Jarre-

---

(16) M. BARBERO SANTOS, La peine de mort en Espagne. Histoire de son abolition, *Mélanges en l'honneur du Doyen Pierre Bouzat,* Ed. A. Pedone, París, 1980, 103.or.hurk.

Carlos GARCÍA VALDÉS, *No a la pena de muerte,* Edicusa, Madrid, 1975, 53.or.hurk.

Carlos GARCÍA VALDÉS, *La pena capital. Estado actual,* Madrid, 1979.

Concepción ARENAL, «El reo, el pueblo y el verdugo o la ejecución pública de la pena de muerte», *Obras Completas de Concepción Arenal,* XII. Tomoa, Madrid, 1896.

Gerardo LANDROVE DÍAZ, «La abolición de la pena de muerte en España», *Anuario de Derecho penal,* I. alea (1981), 17. or.hurk.

J. BOIX REIG, «Comentario al Proyecto de Ley sobre abolición de la pena de muerte en el Código penal», *Cuadernos de Política Criminal,* 1978, 207.or.hurk.

Alonso SERRANO GOMEZ, «Consideraciones criminológicas sobre los efectos de la abolición de la pena de muerte en España», *Anuario de Derecho penal,* III. alea (1982), 609.or.hurk.

ra honetan gogor ekin zuten Vizmanos eta Luzuriagak.

Kezka hauen ondorioz, Batzordeko Lehendakariak hauteman zuen hiltzeko pena imposatzeko ez zela nahiko edozein gertakizun gaizkoagarri gertatzea, baizik eta beharrezkoa zela bereziki hauetako batzu gertatzea, beraz 111. artikuluaren lehen pasarteari zera erantsi zioten (17): «salvo lo que se determine para casos especiales». Era honetan, zigor heriotza legeak zuzenki inposatzea eskatzen ez zuen kasuetan galeraztea lortzen zen. Heriotz zigorra mugatu nahi izan honek 75. artikulua bezalako beste prezeptu batzu lantzea ondorioztatu zuen, gaur egunean, aldaketa txikiak izan ezik, indarrean jarraitzen dutenak (1983.eko ekainaren 25eko erreforma arte).

1984. ean, Manuel Perez eta De la Molinak, *La sociedad y el patíbulo ó La pena de muerte histórica y filosóficamente considerada* bere liburuan, luze eta sistematikoki azaltzen du historiak aipatzen dituen gizarte eta herri guztietan inposatzen den heriotz zigor ikaragarriaren aurkako uste osoa, zeinaren alde bere zientzia eta ulerpideari esker errespetagarriak diren gizon asko agertzen bait dira. Honako hau frogatzen duten arrazoi garrantzitzuenak komentatzen ditu: «que la ausencia» «de las cualidades que deben concurrir en los buenos castigos, y en cuya defensa no sabemos que se aleguen más que argumentos, ineficaces todos, o porque son negativos, o porque carecen de la robustez necesaria. Uno por uno lo hemos ido examinando, y uno por uno

---

(17) Manuel GALLEGO DÍAZ, *El sistema Español de determinación legal de la pena,* Estudio de las reglas de aplicación de penas del Código Penal, Ed. ISAI, Madrid, 1985, 127.or. hurk., 172 hurk.

también creemos haberlos dejado todos refutados» (18).

1854 eta 1859.eko abolizio ezosotako saialdi eta/edo projektuak (hiltzeko penaren abolizioa lege hauste politikoen kasuan) eta 1896 eta 1906.eko abolizio osotakoak aipatzea merezi du (19). 1902.eko Montillako kode penal projektuak ez zuen heriotz zigorra barneratzen.

Heriotz zigorra 1932.eko azaroaren 5 eko *Gaceta*-n argitaratu zen 1932.eko kode penal berriak abolitu zuen lehen aldiz, Bigarren Errepublika garaian, eta indarrean jarri zen urte bereko abenduaren 1ean, baina zuzpertu 1934.eko urriaren 11ko Legeak egin zuen (legeria arrunt berezian), 1935.eko ekainaren 20 ko legeak luzatua. Erregimen frankistak birjarri egin zuen 1938.eko uztailaren 5 eko legea) beharrezkoa ikusten zuelako eta «Estatu indartsu eta justu baten seriotasunarekin batera» datorrelako, bere arrazoien Esposaketak dioen arabera. Lege hau noski 1944.eko kode penalean agertzen zen eta 1978. arte iraun zuen. Aurrerantzean baliorik gabe geratu zen «gerra garaitarako lege penal militarrek besterik ez badute xedatzen», 1978.eko konstituzioaren 15. artikuluan erabakitakoaren arabera.

Abenduaren 21 eko 45/1978 Errege Dekretu Legeak (1978.eko abenduaren 23 ko EAO) Justizia Militarreko Justizia Militar Kodeko, aire-itsasketaren Lege Penal eta prozesal eta Merkatal Flotako disziplinarioko lege agindu batzu aldatu zituen konstituzio-aginduarekin bat etortzeko. Rodriguez Deve-

---

(18) M. PÉREZ Y DE LA MOLINA, *La sociedad y el patíbulo, ó la pena de muerte histórica y filosóficamente considerada*, 1.ª ed. 1854, 375. or., 2.ª ed., Madrid, 1878.

(19) J. MONTES, *Derecho penal*, 2.ª ed. II. alea, Madrid, 1929, 369.or.

sak behar bezala eztabaidatu du (20). Gero egunean Espainian indarrean dagoen legeria militarra azalduko dugu.

---

(20) J. M. Rodríguez Devesa, *Derecho Penal. Parte General*, Madrid, 1981, 837.or.hur. (bibliografiarekin).

## NAZIOARTEKO DATU ETA ESTATISTIKAK

### Datu orokorrak

Azken urteetako eta egungo heriotz zigorraren arazo ugariak ikuspegi kriminologiko, epistemologiko eta biktimiologiko hurbilago batez ezagutu ahal izateko, lagungarriak izango dira argitarapen berriek eskeintzen dizkiguten kualitatezko eta/edo zenbatasunezko datuak. Gutxi dira modu zuzen eta zehatz batez heriotz zigorrera bultzatu zituzten kualitateak, epaileen, asasinatzeen e.a.en egoera faktiko objetibo eta subjetiboak aztertzen dituzten ikerketak. Berrienetakoen artean aipagarria da H. Culverren (1) 1977.etik 1984.a bitarte AEB-etan exekutatu zituztez 32 pertsonen ezaugarri pertsonalei buruzkoa. Azken aldian arreta berezia eskeintzen zaie botere politika, delitugilea eta epailea eta biktimaren arteko erlazioen ikerketei.

---

(1) John H. Culver, «The states and capital punishment: executions from 1977-1984», *Justice Quartely,* Washington, 1985, 567.or.hurk.

(2) Manuel López-Rey, *Criminalidad y abuso de poder,* ed. Tecnos, Madrid, 1983, 98.or.hurk.

R. Paternoster, Prosecutorial discretion in requesting the death penalty: a case of victim-based racial discrimination, *Law and Society review,* 1984, 437.or.hurk.

XIX. azken aldiko eta XX. mendearen hasieratik Montes Aitak aukeratutako ondorengo zifrak gogoraraztea merezi du (3).

| | *Epealdia* | *Epaituak* | *Exekutatuak* | *Indultatuak* |
|---|---|---|---|---|
| ESPAINIAN: | 1867-1899 | 1.145 | 398 | 747 |
| | 1900-1901 | 368 | 37 | 331 |
| | 1.900-191- | 1.513 | 435 | 1.070 |
| INGLATERRAN: | 1901 | 42 | 32 | 11 |
| | 1903 | 55 | 41 | 14 |
| BELGIKAN: | 1857-1863 | % 100 a | % 3 a | % 97 a |
| FRANTZIAN: | 1873-1880 | 199 | 68 | 131 |

Ezagutzen da 1826.etik 1980.a bitarte Frantzian eman zen gilotinatuen kopurua, baita 100.000 biztanle bakoitzeko gizahilketa kopurua zenbatekoa izan zen ere (4).

---

G. E. Dix, Psychological abnormality and capital sentencing. The new «diminished responsibility», *International Journal of Law and Psychiatry,* 249-267. ok.

R. Samuel Gross eta Robert Mauro, «Patterns of death: an analysis of racial disparities in capital sentencing and homicide victimization», Stanford Law Review, 1984, 27-153 ok.

(3) J. Montes, *Derecho penal español,* II. alea, Madrid, 1929, 370.or.hurk.

(4) J. M. Bessette, *Il était une foi... la guillotine,* Ed. Alternatives, Paris, 1982, 104 or.

| | *Gilotinatuak* (zenbaki absolutuak) | *Hilketak* (100.000 biztanleko) |
|---|---|---|
| 1826/1830 ...... | 360 | ...... 1'24 |
| 1831/1836 ...... | 154 | ...... 1'29 |
| 1836/1840 ...... | 147 | ...... 1'12 |
| 1841/1845 ...... | 178 | ...... 1'07 |
| 1846/1850 ...... | 160 | ...... 1'19 |
| 1851/1855 ...... | 158 | ...... 1'01 |
| 1856/1860 ...... | 120 | ...... 1'76 |
| 1861/1865 ...... | 63 | ...... 0'69 |
| 1866/1870 ...... | 47 | ...... 0'74 |
| 1871/1875 ...... | 75 | ...... 0'84 |
| 1876/1880 ...... | 30 | ...... 0'78 |
| 1881/1885 ...... | 21 | ...... 0'92 |
| 1886/1890 ...... | 42 | ...... 0'89 |
| 1891/1895 ...... | 59 | ...... 0'91 |
| 1896/1900 ...... | 27 | ...... 0'80 |
| 1901/1905 ...... | 11 | ...... 0'83 |
| 1906/1910 ...... | 25 | ...... 1'08 |
| 1911/1915 ...... | 32 | ...... 1'06 |
| 1916/1920 ...... | 40 | ...... |
| 1921/1925 ...... | 67 | ...... 1'30 |
| 1926/1930 ...... | 47 | ...... 1'83 |
| 1931/1935 ...... | 37 | ...... 1'12 |
| 1936/1940 ...... | 33 | ...... 1'06 |
| 1941/1945 ...... | 44 | ...... 4'64 |
| 1946/1950 ...... | 121 | ...... 0'82 (17'68 1944.ean) |
| 1951/1955 ...... | 26 | ...... 0'59 |
| 1956/1960 ...... | 14 | ...... 1'66 |
| 1961/1965 ...... | 5 | ...... 1'21 |
| 1966/1970 ...... | 3 | ...... 0'78 |
| 1971/1975 ...... | 3 | ...... 0'87 |
| 1976/1980 ...... | 3 | ...... 0'93 |

XX. mendeari dagokionean, Marc Ancelek, Estatu Batuek argitaratutako ikerketan, datu zehatz ugari eskeintzen ditu nazioarteko mailan.

Middendorff-Kaiser (5) beren aberriari buruz ari dira. Hauek diotenez, 1939-1945. eko gerrate ga-

(5) Günter KAISER, *Kriminologie,* Heidelberg, 1984, 15 eta 20. kapituluak. Gauza bera, Wozu Todesstrafe? Die Todesstrafe

raian, ziurtasun osoz jakin ez bada ere, Alemaniako auzategi zibilek, gerra hasieratik 1943. urterarte, 8.359 bat heriotz kondena-epai sinatu dituztela suposatzen da. Une hontatik gatazka honen bukaeraraino 18.141 bat ebazpen eman zituzten. Gerra bukaeratik 1949.eraino 34; hauetatik 24 bete ziren. Lehenengo gerrate mundialean, 1914-1918, Alemaniako auzitegi zibilek 141 heriotz kondena-epai baino ez zuten eman. 1949.eko maiatzaren 23an heriotz zigorra abolitua geratu zen erabat.

M. Buchhorn-ek (6), Alemanian 1933.etik 1939.erako epean heriotzera epaitutakoen kopurua eta hildakoen kopurua zehazten du, baita 1940-1943ko denboraldian heriotzeko kondena-epaien kopurua.

| *Urtea* | *Kondena* | *Herri Auzitegia* | *Exekuzioak* |
|---|---|---|---|
| 1933 | 78 | — | 64 |
| 1934 | 102 | 4 | 79 |
| 1935 | 98 | 9 | 94 |
| 1936 | 76 | 10 | 68 |
| 1937 | 86 | 32 | 106 |
| 1938 | 85 | 17 | 117 |
| 1939 | 139 | ? | 219 |

1940, 1941 eta 1943.ean 250, 1.292 eta 5.336 pertsonei heriotz kondena-epai eman zieten hurrenez hurren.

Jörg Friedrichen ikerketa berriaren arabera (7), epaile alemaniarrek Nazismo garaian, 1933.etik 1945.

---

aus Kriminologischer Sicht, EVANGELISCHE AKADEMIE HOFGEISMAR -en, *Die Drohung mit dem Tod oder das Leben mit der Todesstrafe,* Akademietagung, 27-29 August 1976, 1.or.hurk.

Zehaztasun gehio beste honetan: BUREAU OF JUSTICE STATICS, Bulletin, *Capital Punishment 1984, U.S.* Department of Justice, 1985.eko abuztua.

(6) M. BUCHHORN, *«Sie heben es nichts anders verdients»... Zur Diskussion um die Todesstrafe,* Baltz Verlag, Basel 1979, 7. or.

(7) Jörg FRIEDRICH, *Freispruch für die Nazi Justiz. Die*

erako denboraldian, heriotzera zigortu zituzten 32.000 pertsona, erdia judizio zibiletan eta beste erdia judizio militarretan. 32.000 hauetatik, 30.000 1941.etik 1944,erako denboraldian kondenatu zituzten. 1942.etik 1945.era exekuzio kopuruen hilabeteko batazbestekoa 720 koa izan da, 1914.etik 1918.era auzitegi zibilak eta militarrak apaitutako 291 ko kopuruarekin pareka ezina.

Estatu Batuetan, Th. Sellin espezialistak dioenez (8), 1930. urtetik 1965.era 3.856 pertsona izan ziren exekutatuak; hauen artean % 86'3 a asasinatze lege hausteak betetzearen ondorioz, % 11'7a indarkeria fisikoko delituak direla eta. Exekuzio kopurua gutxitzeko joera bat nabari da; 1930.eko garai hartan urteko exekuzioen batazbestekoa 166 koa zen; 1960 ean aldiz, urteko 56 exekuzio betetzen ziren. 1960 ean 210 kondenatu zeuden iparrameriketako gartzeletan hiltzeko penara zigortuak; 1965. ean 331.

Azken aldian Amnesty International taldeak bere USA txostenean, THE DEATH PENALTY, BRIEFING (9), Estatu Batuetako exekuzio kopurua goranzko zifratan argitaratzen du: 1890.eko hamarkadako 155 exekuzioetatik hasi eta 1.000tik gorakoak 1920.eko hamarkadan. Haundiagoa izan zen 1930.eko hamarkadako exekuzio kopurua, eta haundiena 1935.ekoa 199 ko kopuru batekin. Goroago, exekuzioak gutxitu egin dira urteko 100 etik beherako kopuru batetara 1950. arte. 1960.ean urria izan

---

*Urteile gegen NS-Richter seit 1948.* Eine Dikumentation, Edit. Rowohlt, Reinbek bei Hamburg, 1983, 13. or.

(8) Th. SELLIN, *The Penalty of Death,* Beverly Hills, California, 1980.

(9) AMNESTY INTERNATIONAL, *USA the Death Penalty,* Briefing, Londres, 1987, 4, 5, 9.or.hur. Testuan «Kondenak»... eta «metodo»ei buruz jasotakoak txosten zabal honetan agertzen dira.

zen heriotz zigor kopurua. 1900.etik 1967.era, exekuzio gehienak Estatu Batuetako hegoaldeko herrietan bete ziren. 1930.etik 1967.era, 3.829 pertsona exekutatu zituzten Estatu Batuetan. 1967.etik ez da exekuziorik bete 1977.eko urtarrila arte. 1977 eta 1986.eko denboraldian hildako % 90 a pertsona zuriak hiltzeagatik exekutatu dute, nahiz biktima beltz kopurua ia zuriena bezain haundia izan den. 32 pertsona gutxienez, 15-17 urtetakoak, hiltzeko pena jasatera zigortuta aurkitzen dira iparrameriketako 15 Estatutan, 1986.eko urrian.

*1986.eko urriaren 1eko heriotz zigor-epai eta exekuzioak*

| *Estatua* | *Hiltzeko gelan dagoen preso kopurua* | *1977.etik aurrerako exekuzio kopurua* |
|---|---|---|
| Alabama | 79 | 2 |
| Arizona | 65 | |
| Arkansas | 29 | |
| California | 190 | |
| Colorado | 1 | |
| Connecticut | — | |
| Delaware | 5 | |
| Florida | 247 | 16 |
| Georgia | 105 | 7 |
| Idaho | 14 | |
| Illinois | 98 | |
| Indiana | 38 | 2 |
| Kentucky | 29 | |
| Lousiana | 49 | 7 |
| Maryland | 19 | |
| Mississippi | 46 | 1 |
| Missouri | 43 | |
| Montana | 5 | |
| Nebraska | 13 | |
| Nevada | 36 | 2 |
| New Hampshire | — | |
| New Jersey | 21 | |
| New Mexico | 5 | |
| North Carolina | 62 | 3 |
| Ohio | 67 | |
| Oklahoma | 63 | |
| Oregon | 1 | |
| Pennsylvania | 87 | |
| South Carolina | 44 | 2 |
| South Dakota | — | |
| Tennessee | 57 | |
| Texas | 218 | 18 |
| utah | 7 | 1 |
| Vermont | — | |
| Virginia | 34 | 5 |
| Washington | 8 | |
| Wyoming | 3 | |
| GUZTIRA .... | 1.788 | 66 |

## *AEB-etako exekuzio metodoak*

| *Metodoa* | *Estadua* | *Metodoa* | *Estadua* |
|---|---|---|---|
| Urkatzea | Delaware*<br>Montana*<br>Washington*<br>Nebraska | Gasa | Arizona<br>California<br>Colorado<br>Maryland<br>Mississippi*<br>Missouri<br>N. Carolina* |
| Sila elektrikoa | Alabama<br>Arkansas<br>Connecticut+<br>Florida<br>Georgia<br>Indiana<br>Kentucky<br>Louisiana<br>Ohio<br>Pennsylvania<br>S. Carolina<br>Tennessee<br>Virginia<br>Vermont+(a)<br>New Hampshire+ | Ziztada hilgarria | Arkansas*<br>Delaware*<br>Idaho*<br>Illinois<br>Mississippi*<br>Montana*<br>Nevada<br>New Jersey<br>New Mexico<br>N. Carolina*<br>Oklahoma<br>Oregon<br>S. Dakota+<br>Texas<br>Utah*<br>Washington*<br>Wyoming |
| Fusilamendua | Idaho*<br>Utah* | | |

* Exekutatzeko, indarrean hautabide ezberdinak dituzten Estatuak.

\+ 1977.etik aurrera heriotz zigorrik izan ez duten Estatuak.

(a) Vermont-en 1972.a baino lehenagoko Estatu dago zuzendua izan ez dena.

1985.etik aurrera Estatu Batuetan 18 izan izan dira exekutatu dituzten pertsonak. «Heriotz pabiloi»-ean dagoen jende kopuruak igotzen jarraitzen zuen, eta 1986.eko urriaren 1 ean 37 estatutan 1.788 pertsona izan ziren guztira.

Hugo Adam Bedauk 1970.etik 1979.era AEB-n polizia federal, estatal edo lokalen aurka egiten diren hilketen garrantzia azpimarratzen du (10).

| *Urtea* | *Hildako polizien kopurua* |
|---|---|
| 1970 | 100 |
| 1971 | 129 |
| 1972 | 116 |
| 1973 | 134 |
| 1974 | 132 |
| 1975 | 129 |
| 1976 | 111 |
| 1977 | 93 |
| 1978 | 93 |
| 1979 | 106 |
| Guztira | 1.143 |

Munduko beste toki batzuri buruz, 1984.ean zehar, Amnesty International taldeak otsailean 14 herritan gutxienez 88 heriotz pena diktatu zituztela eta hile berean 81 pertsona exekutatu zituztela jakin zuen. Hurrengo hilean 14 herritan 40 hiltzeko pena diktatu ziren, 37 pertsona hil zituzten 10 herritan. Urte bereko apirilean 129 koa izan zen 16 herritan heriotz zigorra jasan zutenen kopurua, eta 47 exekuzio bete ziren 7 herritan.

Amnesty Internationalen Buletin Informagarriaren 6. alearen arabera (1984.eko ekaina), beldur ziren Egipton, Larrialdiko Estatuaren Segurtasuneko Auzitegi Gorenak Auzitegi honen aurrean lege haus-

(10) BEDAU, *The Death Penalty in America,* 3. ed., New York, 1982, 45.or.

te politikoetan salututako 302 horien artetik 299 pertsona heriotz zigorrera zigortuko ote zituzten.

1984. urteko hamabi hileei buruz 1.513 exekuzio eta 2.067 kondenaz txostenik bada. Zoritxarrez, benetazko kopuruak, ezagutzen ditugun hauek baino haundiagoak dira.

1985.ean Amnesty Internationalek 61 herritako 1.489 kondenari buruzko agiriak zituen eta 44 herritan betetako 1.125 exekuziori buruzkoak ere bai. Kopuru honi Amnesty Internationalen eskuetara heltzen ez diren horiek erantsi behar zaizkio, baita toki askotan elkarte honek egiaztatzen ez dituen exekuzio sumarioak ere. AI-ren zifrek judizioa eta epai motaren bat egon zela uste edo frogatu zituzten kasuak barneratzen dituzte soilik. Iraqen adibidez, 1985.ean lege hauste arruntak edo (gehiengoa) politikoak betetzeagatik ehundaka pertsona exekutatu zituzten herrian, gobernuak baieztatutako 19 besterik ez ziren barneratu. Txinan (135) eta Iranen (470) ziurtatutako kopuruak, errealak baino askoz ere txikiagoak zirela uste zen. Beste herriei buruz ez dago datu zehatzik. Era honetan Hegoafrika (137 exekuzio baieztatuak) eta Saudi Arabia (45 eko bat) ditugu, 1985.ean, oraindik ere exekuzioak betetzen dituzten artekoak. Pakistanen 57 pertsona gutxienez izan ziren erahilak.

Lehendik, 1981. urtean bazen mundu guztian exekutatua izan zen 3.278 ko kopuru baten berri. Exekuzio hauen gehiengoa Estatu kopuru mugatu batean bete da:

— Iranen, 4.500 exekuzio (edo gehio) 1979.eko otsaileko iraultzaz geroztik; 2.616 exekuzio inguruan 1981. urtean zehar.

— Iraqen 1981. urtean 350 exekuzioren berri daukagu. Hauen artean hiltzeko pena dituztenen ka-

su politikoak prozesuzko garantiarik gabeko Auzitegi Berezi batek epaitu zituen.

— Hegoafrikan, zifra ofizialek diotenez, 1981. urtean 96 pertsona justiziatu zituzten (130 1980.ean eta 133 1979.ean).

— Pakistanen urtero 100 bat pertsona izan dira exekutatuak. Haunditzen ari da auzitegi militarretan apelaziora jotzeko aukerarik gabeko prozesuzko exekuzio kopurua (11).

1986.eko otsailean Amnesty Internationalek jakin zuen 14 herritan 80 pertsona kondenatu eta 9 herritan 22 pertsona exekutatu zituztela.

Sarritan, leku askotan, auziaren ondorengo orduetan bete izan dira exekuzioak, eta honek, zenbaitetan ez ditu oinarrizko prozesu arauak bete. Iranen 1985. urtean zenbait atxilotu exekutatu zituzten auzi sumarioak izan ondoren, asistentzia letraturik gabe edo apelaziora jotzeko eskubiderik gabe.

Pertsona asko izaten dira heriotz zigorrera exekutatuak Europan oso larriak ez diren lege hausteak egiteagatik; Txinan, 40 lege-haustetarako erabiltzen da heriotz zigorra; eta 1985. urtean pertsona batzu exekutatu zituzten «elkarte sekretu atzerakoi» batetan parte hartzeagatik; «sineskeria feudalak esplotatzeagatik».

## Espainiari buruzko datuak

Rodriguez Devesak, bere «*Contribución a la imagen numérica de la pena de muerte en España*» ikerketan, gutxienez 15 heriotz zigor egiaztatzen ditu Justizia Militarreko Kontseilu Gorenak 1940-44 eta 1955-65 ean egindakoak. Baina, kopuru hau erreali-

(11) Eric PROKOSCH, *La pena di morte nel mondo,* 1943, 4. or.

tatean ematen denaren zati txiki bat baino ez da, Madrileko katedradunak ondo zuzenduta eman duen eritziaren arabera (12).

(12) RODRÍGUEZ DEVESA, Contribución numérica a la imagen de la pena de muerte en España, *Rev. Estudios Penitenciarios,* 1967, 361.or.hur.

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1940-44 eta 1955-65. URTEAK | | | | | |
| | 15 heriotz zigor Justizia Militarreko Kontseilu Gorenean | | | | | |
| | Lege-hauste arruntak | | | | Lege-hauste militarrak | |
| | asasinatzea | lapurtu eta hiltzea | bandidaia | atrakua | saldukeria | indar armatuei iraintzea |
| | 2(1942) | 3(1955)<br>1(1958) | 2(1956) | 2(1941)<br>2(1959) | 2(1940) | 1(1943) |
| Guztira | 2 | 4 | 2 | 4 | 2 | 1 |

Exekuzio eta indultu kopurua hamar urtekotan, 1870.etik 1917.era, Zuzenbide Penalean ikerketa berdinaren esanaren arabera, 1.597 izan dira denera, modu honetan banatuak:

| urteak | *exekuzioak* | *indultuak* | *guztira* |
|---|---|---|---|
| 1870-79 | 136 | 129 | 265 |
| 1880-89 | 119 | 239 | 358 |
| 1890-99 | 114 | 327 | 441 |
| 1900-09 | 40 | 276 | 316 |
| 1910-17 | 43 | 174 | 217 |
| GUZTIRA .... | 452 | 1.145 | 1.597 |

Ondorengo laukian hamarkada bakoitzeko bete den heriotz zigor eta lege hauste kopurua (aiterhaiteak, asasinatzeak, hilketa eta lapurreta, errege-hilketak, lehergailuak) azaltzen da.

| *urteak* | *aiter-haiteak* | *asasina-tzeak* | *bilketa eta lapurreta* | *errege bilketa* | *leher-gailuak* | *Denera* |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1870-79 | 31 | 95 | 89 | 2 | — | 217 |
| 1880-79 | 44 | 101 | 195 | 1 | — | 341 |
| 1890-99 | 82 | 153 | 184 | — | — | 419 |
| 1900-09 | 58 | 132 | 177 | — | 3 | 370 |
| 1910-19 | 38 | 75 | 96 | 1 | — | 210 |
| 1920-29 | 29 | 41 | 41 | — | 1 | 112 |
| 1930-… | — | — | — | — | 1 | 1 |
| 1947-56 | 14 | 21 | 54 | — | — | 89 |
| 1957-66 | — | 4 | 15 | — | — | 19 |
| Guztira | 296 | 622 | 815 | 4 | 5 | 1.778 |

1970. urtetik aurrera hilketa suposatzen zuten lapurretetan inposatutako heriotz zigorrak, Auzitegi Gorenak argitaratutako jurisprudentziatik ondorioztatuak, gizonezkoei dagozkie. 851 ko kopuru batetik, berrogei baino ez dira emakumezkoak (13):

| *urteak* | *gizonezkoak* | *emakumezkoak* | *guztira* |
|---|---|---|---|
| 1870-79 | 86 | 3 | 89 |
| 1880-89 | 193 | 2 | 195 |
| 1890-99 | 172 | 12 | 184 |
| 1900-09 | 163 | 14 | 177 |
| 1910-19 | 89 | 7 | 96 |
| 1920-29 | 40 | 1 | 41 |
| 1930-... | | | |
| 1947-56 | 53 | 1 | 54 |
| 1957-66 | 15 | — | 15 |
| Guztira ... | 811 | 40 | 851 |

Indultuei dagokienean hilketa ondorioztatzen den lapurretei 1953 tik 1965 era inposatzen zaizkien heriotz zigorrei buruz Rodríguez Devesak eskeintzen dituen datuak gogoraraztea merezi du.

| *urteak* | *inposatutako zigorra* | *exekutatuak* | *indultatuak* | *hilketa-lapurreta totala* |
|---|---|---|---|---|
| 1953-54 | 13 | 7 | 6 | 28 |
| 1955-56 | 7 | 3 | 4 | 22 |
| 1957-58 | 11 | 3 | 8 | 12 |
| 1959-60 | 1 | 1 | — | 14 |
| 1961-62 | 1 | — | 1 | 16 |
| 1963-64 | — | — | — | 8 |
| 1965 | 2 | — | 2 | ? |
| Guztira ... | 35 | 14 | 21 | 100 |

---

(13) RODRÍGUEZ DEVESA, *Derecho Penal español. Parte General,* 10. ed. SERRANO GÓMEZek berrikusi eta gaurkotua, Madrid, 1986, 899.or.

Zifra hauek argi uzten dute heriotz zigorren exekuzio kopurua jeixteak ez duela hauei zegokien lege hauste kopurua haunditu ez kuantitatiboki, ezta kualitatiboki ere, alderantziz baizik, bereziki larriak diren jokabide kriminalek ere gutxitu egin ditu.

**Jendarteko eritzia Espainian**

Gallup E.A.k, Nazioarteko Gallup Erakundearen partaide espainiarrak, 1973.etik 1986.eko urria arte aldizkako zundaldiak egin izan ditu Espainiako jendarteko eritziak heriotz zigorrari buruz zein aldaketa izan dituen ikusteko (14).

Azken zundaldiak, 1986. urteko iraila eta urrikoak, (Penintsula eta Balear Irletako 119 herritar) 15 eta urte gehiagoko 1.038 pertsonei, beren etxeetan, horrela galdetzen zien: «Asasinatze kasuetan erruduntzat hartzen den horri heriotz zigorra aplikatzearen alde ala aurka agertzen zara?».

Garai honetan %68ak ematen du bere eritzia, 1973an berriz %61ak besterik ez. %61 honen artetik, garai, hartan, %39a aurka agertzen zen, alde, berriz, %27a. Gaur egunean eritzia ematen duen %88 horren artetik, %55a hiltzeko penaren aurka agertzen da eta %33a alde.

1977. urtean, Gorte Konstituziogilea sortuz geroztik eritziak zehatzagoak dirudite. Heriotz zigorraren aurkako kopuru haundiena (%58a) erreferendum konstituzionalaren aurreko hileetan ezartzen da; orduan %7a baino ez zen eritzirik gabe agertzen zena. Hiltzeko penaren aldeko eritzi kopuru haundiena ordea, ETA-ren terrorismoaren gorbiztearen aldian nabaritu zen, 1979.eko uztailean: %47 bat heriotz

(14) Diario madrileño YA, 1986.eko azaroaren 9a.

zigorraren alde agertzen da, %42 ko kopuru abolizionista baten aurrean. Modu berean, 1981.eko apirilean, Espainiako terrorismoaren historiako garai latzenetako baten ondoren eta otsailaren 23 ko Estatu-kolpearen ondoren, hiltzeko penaren aldeko kopururik haundiena lortzen da (%48a) bere burua abolizionistatzat hartzen duen %35 baten aurrean.

Ondoren azaltzen diren 1, 2 eta 3. irudiek, daturik garrantzitsuenak laburtzen dizkigute.

1. IRUDIA



Euskadin, zundaldi hauen arabera, abolizionismoa ahultzen joan da 1977.ean demokraziari hasiera eman zitzaionetik. (Jende kopuru haundien zuen) Eusko Alderdi Jertzailearen (EAJ) kide eta gogaideak heriotz zigorraren aurka agertzen ziren aldi hartan, 1981. urtean %74 era eta 1985.ean %54 ra gutxitu zen artean.

## Heriotz zigorrari buruzko inkesta Gipuzkoan

1984.eko maiatzean Kriminologiako Euskal Institutuak, M.ª Jose Amilibia, Susana Corcuera eta Beatriz Iribarren lankide bezala zituelarik, heriotz zigorrari buruzko inkesta bat egin zuen, Andoain, Eibar, Hernani, Irun, Lasarte, Oihartzun, Pasaia

2. IRUDIA




3. IRUDIA



Antxo, Pasaia Donibane, Orereta, Donostia eta Zarautzen 343 pertsonei galderak eginez.

Ondoren egindako galderak eta erantzun portzentaiak transkribatzen ditugu.

1. Heriotz zigorraren alde ala aurka zaude?

a) Alde: %10a
b) Aurka: %89a
d) Ez du erantzuten: %5a

2. Ezarriko al zenieke zuk hiltzeko pena 1975. eko irailean azken aldiz kondenatu eta exekutatu zituzten horiei?

a) Bai: %5ak
b) Ez: %92ak
d) Ez du erantzuten: %2ak

3. 1987an zigor hau kendu ondoren, hilketa kopurua haunditu, txikitu ala orain arte bezala mantenduko da?

a) Haunditu egingo da: %9ak
b) Gutxitu egingo da: %4ak
d) Berdin jarraituko du: %83ak
e) Ez du erantzuten: %3ak

4. Hauetako kasuren batetan inposatuko al zenuke heriotz zigorra?

1) Aldez aurretik erabakitako hilketa:
bai: %8ak
ez: %85ak
ez du erantzuten: %6ak

2) Adingabe bat bortxatu et ahitzea:

| | |
|---|---|
| bai: | %30ak |
| ez: | %64ak |
| ez du erantzuten: | %5ak |

3) Estatuburu baten hilketa:

| | |
|---|---|
| bai: | %9ak |
| ez: | %84ak |
| ez du erantzuten: | %6ak |

4) Hiritar bat hiltzea poliziak eman dizkion tratu txarren ondorioz:

| | |
|---|---|
| bai: | %31ak |
| ez: | %65ak |
| ez du erantzuten: | %2ak |

## Erantzuna eman dutenen datuak

ADINA:

| | |
|---|---|
| 10tik 20 urtetara: | %9ak |
| 20tik 30 urtetara: | %46ak |
| 30tik 40 urtetara: | %16ak |
| 40tik 50 urtetara: | %12ak |
| 50tik 60 urtetara: | %6ak |
| 60tik 70 urtetara: | %2ak |
| Ez du erantzuten: | %4ak |

SEXUA:

| | |
|---|---|
| Gizonezkoak: | %56a |
| Emakumezkoak: | %41a |
| Erantzunik gabe | %1a |

ERLIJIOA:

| | |
|---|---|
| Ezaxolatiak: | %42a |
| Katoliko praktikariak: | %21a |
| Katoliko ez praktikariak: | %35a |

| | |
|---|---|
| Beste erlijio baten sinestunak: | %1a |
| Erantzunik gabe: | %1a |
| KLASE SOZIALA: | |
| Goikoa eta erditik gorakoa: | %3a |
| Erdikoa: | %76a |
| Erditik beherakoa eta behekoa: | %14a |
| Erantzunik gabe: | %7a |
| IDEOLOGIA POLITIKOA: | |
| Eskuindarra: | %5a |
| Zentrista: | %18a |
| Ezkertiarra: | %64a |
| Betere ez: | %4a |
| Erantzunik gabe: | %7a |

Erantzun hauek 1977.eko udaberrian jaso eta *Cuestiones penales y criminológicas* (15) liburuan argitaratutakoekin kanpora daitezke.

---

(15) A. Beristain, *Cuestiones penales y criminológicas,* Reus, Madrid, 1979, 586.or.hurk.

## HERIOTZ ZIGORRAREN ALDE

Kapitulu honetan hasiko gara heriotz zigorraren aldeko argudioen «dekalogo»-a telegrafikoki zerrendatzen. Ondoren bereziki kontutan hartzea merezi duten argudio hauetako batzuri buruz gauza batzu aipatuko ditut.

Imaginean eta gaur egunean (kopuru txikiago batetan) munduko herri eta kultur alor guztietan (politikoak, filosofoak, elizgizonak, penalistak, kriminologoak, legelariak, medikuak, literatuak, e.a.) heriotz zigorraren aldeko guztiek orri ugari idatzi dute beren jarreraren alde. Hauen arrazonamendu guztiak hurrengo hamar kapituluetan labur daitezke:

1. Agintaritzak heriotz zigorra inposatzeko eskubidea du komunitateak aldez aurretik botere hori eskeini bait dio.

2. Delitugileak, lege haustea egitean, bizitzeko eskubideari uko egin dio. Agintaritzak ezagutu, ezagutarazi eta formaldu egin behar du prozesu hilgarri hau (Rechtsverwirkungstheorie).

3. Legelari, politiko, filosofo eta legegizon askok heriotz zigorraren zilegitasunaren alde egin izan

du eta horretan jarraitzen du. (Argintaritzaren argudioa).

4. Zigor hau beharrezkoa gertatzen da kriminaltasun larriaren aurka egiteko, aurretik duen indarra eta sortzen duen beldurrarengaitik.

5. Urrikigabeki zabaltzen da hau bidezko ordain bezala lege hauste ez konbentzionaletara.

6. Justiziak eta delituak bortxatu duen ordena juridikoaren itzulerak beharrezkoa bilakatzen du.

7. «Gorputz» amankomuneko menbro batek gaixotasun sendagaitz eta kutsakor bat baldin badu, kalte haundiagorik ez izateko irtenbide bakarra menbroa «moztea» da, osotasunaren alde jokatuz.

8. Herri gehienetan heriotz zigorra erabilia izan da eta oraindik ere erabili egiten da. Abolizionistak ziren zenbaitetan berriz inposatu egin dute.

9. Ordeztezina da. Betirako askatasun gabezia ez da beharko litzatekeen bezalako garantia aproposa.

10. Iraganak eta egungo estatistikek ere, hiltzeko pena abolitzen denean delikuentzia haunditzen dela frogatzen dute.

**Irazkina**

Hiltzeko penaren zilegitasunaren eta/edo beharraren aldeko hamar arrazoi nagusi hauek, hauen aldekoek adierazten duten bezala, ondoren aipatuko ditugun oinarrizko bost kapitulutan taldeka ditzakegu. Gero, haurrengo atalean, jokaera abolizionistaren aldeko jarrera defendatzean, hemen transkribatu di-

tugun heriotz aldekoen teorien kritikari ekingo diogu, objektibotasun haundienaz (gure errefusaketa ondorengo orrialdeetarako gordetzen bait dugu).

A. — Baimena duten espezialistek diotenez heriotz zigorrak *lehen mailako prebentzio orokorra* eskatzen du. Lehen mailako prebentzio bezala gizartea orokorrean hartzen badugu, askok pentsatzen dute Damokleren ezpatak hiritar bat heriotz zigorraz meatxatzen duenean, lege hauste larri bat egitekotan, legea hausteko asmoa burutik kentzeko indarra duela.

Hiritarrek lege sistema behar bezala errespetatuko dute soilik baldin honek, krimengileen bizitzan erabakia hartzeko boterea badu. Gaur egunean, beste garaietan bezala, gizartea justizi administrazioaren arduradunen onespen osoaren beharrean aurkitzen da zenbait girotan hain zabalduta dagoen irregulartasuna gaindi dezan.

Kriminologo eta soziologo askok beldurra sortzen duen indarra aztertu du inkesta eta datu enpirikoak erabiliz. Espezialista hauetako batzuk hiltzeko penak delikuentzia gutxitu arazten duela ondorioztatzen dute (1). Duela zenbait mende, Lugo bezalako Errenaisantzako legegizon kanonistek, heriotz zigorrik gabe dena nahasi (Omnia perturbarentur) egingo zela baieztatzen zuten (2).

Estatu Batuetan, R. Lempert kriminologoak, 1983. urtean ospatutako Symposium on Current Death Penalty Issues komentatzean, gai honi buruz-

---

(1) Informazio zabala H. A. BEDAUren, *The Death Penalty in America,* 94-102 ok.

(2) LUGO, *Disputationum de Justitia et Jure, tomus primus,* Venetitis, 1718, disput. X, 2. atala, 56. zb. eta hurk.

A. BERISTAIN, *La pena-retribución y las actuales concepciones criminológicas,* Ed. Depalma, Buenos Aires, 1982, 25.or.hurk.

ko eritziak erdibituak, «parekatuak» daudela esaten du (3).

B. — *Bigarren mailako prebentzioaren* beharra, hau da, lege hauste larriak betetzeko arriskuan dauden pertsona edo pertsona talde zenbait beldurtzeko beharra, euskarri garrantzitsua da hiltzeko pena berredukitzearen alde daudenentzat.

Hauek heriotz penak delitugile politikoen artean beldur izugarria sortzen duen indar berezi bat duela diote, terroristen artean hain zuzen, gaur egunean neurri haundi batetan ematen dena.

Botere politikoa, ekonomikoa, polizi-boterea e.a. gainez erabiltzen dutenek (arma eta droga trafikoak), askatasun gabeko zigorra ematen bazaie, errejimen politikoa aldatuko dela pentsa eta espero dute, bere aldekoek boterea hartuko dutela eta, orduan, heurak gartzelatik irtengo direla eta lanpostu garrantzitsuak bete ahal izateko ohorez irtengo direla.

Beste sektore haundi batek «zoro zoroan» egiten diren delitu larriak aipatzen ditu, delitugileari gertatzen zaion bezala, hilketa bat edo gehio egin ondoren epe luzeenerako askatasunik gabeko zigorpean aurkitzean eta hori baino zigor haundiagorik izango ez duenik, bere burua ezbehar haundiagoak egitera ... bultzatzen du itxaropen guztia galdu bait du, dagoeneko ez du ezer galtzekorik. Asko direnez zigor askatasungabetzaile haundiena jasotzen duten lege hausteak, penalista batzuk beharrezkoa ikusten dute zigor gogorrago bat (heriotz zigorra) ezertzea lege auste oso larrietarako (the perpetrators of terrible crimes-for example, Lee Harvey Oswald and James Earl Ray are properly the objects of great anger).

---

(3) R. LEMPERT, «Capital Punishment in the '80's: Reflections on the Symposium», *The Journal of Criminal Law and Criminology*, 1983, 1.110-1.114. ok.

Heroiak ohoratzea bidezkoa bada, hala izaten da delitugile gaiztoenak exekutatzea ere bai (... if it may rightly honor its heroes, it may rightly execute the worst of its criminals) (4).

Aditzera eman daiteke kutsapenaren eragoztea eta/edo zatiaren osotasunarekiko menpekotasunaren argudioa, ñabardura ezberdinez Santo Tomas, Alfonso de Castro, Suárez, e.a.ek garatu zuten bezala (5). Santo Tomasek, *Suma Theologica*-n honako hau idatzi zuen: «... gorputz osoaren osasunarentzat beharrezkoa balitz atal baten mozketa, ustela badago eta besteak zorna baditzake esate baterako, mozketa goresgarria eta osasuntsua litzateke. Halaber, pertsona bakoitza komunitatearekiko zatia osotasunarekiko den gauza bera da; eta, beraz, gizon batek arriskuan jartzen badu gizartea eta bekatu batez gaizterazten badu, goresgarria eta osasuntsua da honi bizitza kentzea ongi amankomuna babesteko.

---

(4) Walter BERNS, *For Capital Punishment: Crime and the Morality of the Death Penalty,* Ed. Basic Books, New York, 1979.

IDEM, The Morality of Anger, H. A. BEDAU, *The Death Penalty in America,* 335 eta 341. ok.

Jermy RABKIN, «Justice and Judicial Hand-Wringing: The Death Penalty Since *Gregg*», *Criminal Justice Ethics,* 1985.eko uda, 20. or.

(5) F. SUÁREZ, *De legibus,* III, III. kapitulua, 3 hurk., De Legibus III, XXV. kapitulua, 2.

William DANIEL, *The Purely Penal Law Theory in the Spanish Theologians from Vitoria to Suárez,* Ed. Gregorian University Press, Roma, 1968, 111 eta 203. ok. Alfonso de Castrok, heriotz zigorraz egiten duen argumentazioan zera dio: «Cuando un médico quiere sanar y curar un cuerpo enfermo, no amputa sin más aquel miembro malo porque perjudique de algún modo al organismo, a no ser que aquél esté ya tan podrido o tan deshecho que con razón se tema que su contacto ha de dañar a los demás... En todo lo cual, como no se vea obligado para evitar un mal mayor, siempre tiende a conservar todos los órganos».

A. de CASTRO, *De potestate legis poenalis*, I. liburua, VI. kap.

(6) Tomás de AQUINO, *Suma Teológica,* 2-2, q. 64, 2. artikulua.

C. — Heriotz zigorraren alde *hirugarren mailako prebentzio* gisa sortzen duen indar lardergarria aipatzen da ere, hilketa larriak bete dituztenei zuzendua, berriz egin ez ditzaten, kriminologo zenbaitek honela ulertzen du hua.

Polizia saileko buruek heriotz hilketarako joera duten pertsonentzat faktore lardergarri eraginkortzat hartzen dute heriotz zigorra (the death penalty is an effective deterrent against murder) (7).

Exekutatua izan den pertsonak noski, ezin du berriz delitu egin. Gogorki erabiltzen da argudio hau mass media-etan hilketa bereziki nabarmen eta higuingarriak ematen direnean, abusuak eta tratu txarrak jasan ondoren hiltzen dituzten neska-mutilekin egiten dituztenak bezala.

Oraindik ere badira E. van den Haag bezala, asasino arrsikutsuak heriotz zigorrera kondenatzea bidezkotzat hartzen dutenak, zeren kaltea txikiagoa bait da bizirik jarraitzen badute baino, pertsona genio hiltzeko aukera emango litzaiekelako. Bost nesken bortxatzaile eta asasinoa fusilatzen badute edo garrote vil-a aplikatzen bazaio, ez dago etorkizunean neska bakar bat ere delitugile honen eskuetan erortzeko arriskurik (8).

Cuello Calón-ek eta beste zenbait autorek diotenez, heriotz zigorra zilegizkoa da merezi denean (9). Hain da izugarria hilketa batzuk sortzen duten horrorea urrikigabeki pena gorenaz zigorgarri direla pentsatzen bait du kontzientzia kolektiboak. Beha-

---

(7) *Report of the Committee on the Judiciary, United States Senate*... to accompany S. 114, 96th Congress, 1st Session, Report N.° 96-554, 1980.eko urtarrila, 7.or.hur.

(8) E. van den HAAG, «In Defense of the Death Penalty: A Legal-Practical-Moral Analysis», *Criminal Law Bulletin*, 1978, 51.or.hurk.

Bernard GRENIER, *La peine de mort. Données nouvelles*, Ottawa, 1972, 80 eta 88. ok.

(9) CUELLO CALON, *La moderna penología*, 157, 207 ok.

rrak eta, gizartea zigorra modu axolagabez hartzen duten asasino odolgabeen kontra babesteko duen eraginkortasunak, zilegi egiten dute. Kalterik ez izateko irtenbide bakarra subjektu arriskutsu hauek desagertaraztea da.

Justizia, ondo ordenaturiko gizarte ororen derrigorrezko bertute bat da eta hau bete nahi izatea eta norberak merezitakoa jasotzea, gauza santua baino ez da eta inolaz ere galdegarri... (10).

D. — Heriotz zigorrak, penalista batzuk diotenez, *Zuzenbide penalaren helburua* betetzen du: bortxatu den ordena juridikoa berresartzen du eta/edo, beste ikuspegi batetik, errua ordaintzen du, eta/edo biktimei ematen duen lasaitasuna.

Jurista kopuru haundi batek bortxatu den ordena juridikoaren berrezartzea eta/edo biktimak lasaitzea hartzen du Zuzenbide penalaren oinarri eta helburu bezala, Alfa eta Omega bezala; hiltzeko pena da helburu hauek modu hoberenean lortzen dituen zigorra, ez bait dago biktima lasaitzeko eta interes amankomunak birbaloratzeko delitugilea exekutatua izan dela jakitea bezalakorik. Historia bera da, hauek diotenez, baieztapen honen lekuko. Mende askotan, hildakoaren familiak, edo lagunek, ahaleginak egin dituzte asasinoa «akabatzeko». Norman Maileren eritziz (1980 Pulitzer Saria jaso zuen, bere *The Executioner-s Song* lanarengatik) gizarteak eskubidea izatez gain behartuta dago ere-need-hilketa larrien egile batzu exekutatzera (11).

---

(10) Ikus J. PEREDA, S.J.: Alrededor del caso Chessmann, *Sic, revista venezolana de orientación,* 1960.eko martxoa, 121-123 ok.

(11) Glen D. KING, «On Behalf on the Death Penalty», H. A. BEDAU, *The Death Penalty in America,* 3.ª ed. Oxford University Press, New York, 1982, 308.or.hurk.

Norberak bere sakonean mendeku eta ordaintze desio gaindi ezin eta ase ezin bat dauka. Heriotz zigorrak, eta honek bakar bakarrik ematen dio pertsonaren desioari erantzuna edonoiz eta edonon. Agintaritzak ez badu betetzen «kaltea haundiagoa izango da», kaltearrek eta bere lagunek beren kasa hartuko bait dute justizia. Basatiaren legea, indartsuaren legea ezartzen bukatuko dute.

*Ius vitae et necis*-arik gabeko Estatuaren ahuleziak erreakzio eta/edo ordezko bezala «desagertuen konponbide»a agertarazten du. Arrazoi berarengatik, heriotz zigorrik ez dagoen zenbait herritan politikak exekutatutakoen kopurua izugarria da (12).

E. — Hiltzeko penaren aldeko beste argudio batzu *agintaritza* erizpideetan euskarritzen dira, *polizi-judizio* eraginkortasuna eta *justiziaren barne arrazoietan*.

«Magister dixit»ari buruz, heriotz zigorraren aldeko izen asko eman daitezke, iraganari buruzkoak batez ere. Filosofiaren alorrean Kant, Hegel, Hobbes, E. Brunner, Rousseau (Goethe), J. Leclerq; joan den mendeko elizgizon gehienak: San Agustin (zenbaitek kontrakoa esaten badute ere), Santo Tomás, Suarez, Lugo, Molina, Alfonso de Castro, Soto, Alfonso M.ª de Ligorio, Lutero, Calvino; mende honetan, G. Ermecke, B. Schuler, A. Janssen, R. N. Thomsosn, B. Signori: Zuzenbide penaleko espezialista asko: Garofalo, Lombroso, Filangieri, Rocco, Manzini, Ferri,

---

(12) Elías NEUMAN-ek argudio honen garrantzia ezagutzen du, baina hala ere abolizionismoaren alde agertzen da erabat. Datu berari buruz baina beste arrazoipide abolizionista bat erabiliz,

Manuel LÓPEZ-REY, *Criminalidad y abuso de poder*, Ed. Tecnos, 1983, 92.or.hurk.

Tarde, Mezger, Welzel, Lardizabal, Silvela, Cuello Calón, Julián Pereda, Quintano Ripollés (13)...

Gaur egunean heriotz zigorraren zilegitasuna eta/edo beharraren alde agertzen diren pertsona nagusiak legea betetzeko ardura dutenen artean aurkitzen dira, hau da, delitugiletzat jotzen direnak eta delitu nabarian harrapatutakoak atxilotu eta zigor penalen arauteria martxan jartzen dutenak dira, hots, poliziak, prisondegietako funtzionariak, zenbait magistratu, lege-gizon batzu eta, bereziki, Association of Chiefs of Police (IACP) eta National District Attorneys Association (NDAA) bezalako zenbait erakundetako ordezkariak, azken zigorraren alde agertu direnak (4).

Justiziaren barnetik, G. Ermecke legegizon katolikoak azaldu bezala, *Rechtsverwirkungstheorie*-aren ikuspegi berdinean agertzen dira ñabardura batzu eginez Bertrams, S.J., Weizel eta beste zenbait, hauen artean Pio XII ñabarmentzen delarik. Ikuspegi honek aukera ematen du, behar bada eutanasia aktibo baten eskubidea zabaltzeko eta buruhiltze batetarako (15).

---

(13) Beste zenbait xehetasun, BARBERO SANTOS, *Pena de muerte. (El caso de un mito)*, 17.or.hurk,

A. BERISTAIN, Pro y contra la pena de muerte en la política criminal contemporánea,

IDEM, *Cuestiones penales y criminológicas*, ed. Reus, Madrid, 1979, 577.or.hurk.,

CUELLO CALON, *La moderna penología*, 138.or.hurk.

Carlos GARCÍA VALDÉS, *No a la pena de muerte*, Edicusa, Madrid, 1975, 105.or.hurk., 201 hurk.

(14) «Capital punishment. The point of view of the Canadien Association of Chiefs of Police», *Crime and/et justice*, 1976.eko maiatza,

Hugo Adam BEDAU, *The Death Penalty in America*, 3. ed., Oxford University Press, New York, 1982, 306.or.hurk.

(15) G. ERMECKE, *Zur ethischen Begründung der Todesstrafe heute*, 2. ed. Paderborn, F. Schöningh, 1963 (1. ed. 1959), delituaren efektu ontikoan oinarritzen da, bereziki, 39.or.hurk.

Pio XII.ak 1952.eko irailaren 13 an, honela baieztatu zuen: «Estatuak ez du inolako eskubiderik banakoaren bizitzan, ezta heriotz zigor bat exekutatzen denean ere. Botere publikoari dagokio kondenatuari bizitza kentzea bere lege haustearen ordainketa bezala, bororrek egindako delituarengatik, bizitzeko eskubidea galdu ondoren». Jarrera berdina izan zuen lehenago eta geroago ere, 1944.eko azaroaren 12 an, 1953.eko urriaren 3 an eta 1954.eko abenduaren 5 ean. Teoria honek dioenaren arabera, delitugileak, delitu egitean, bizitzeko duen eskubidea galdu egiten du; eta, beraz, presondegiko autoritatea eta agintari judiziala delitugileak ontologikoki egindako ekintzaren egiaztapen formal edo juridiko bat egitera behartuta aurkitzen da. Honelako zerbait proposatzen zuen Santo Tomasek *Suma Teologica*-n zera idatzi zuenean: «bere duintasuna gordetzen duen gizona hiltzea txarra bada ere, gizon pekataria hiltzea ona izan daiteke ordea, basapiztia bat hiltzea bezala, zeren *txarragoa bait da gizon gaiztoa basapiztia bat baino, eta min haundiagoa egiten du,* Aristotelek esandakoaren arabera» (16).

Milurtekoetan erlijio guztiek, baita kristau erlijioak ere, arrazoi ezberdinengatik bultzatu edo besterik ez bada onartu izan dute heriotz zigorra (17). Fernando Huidobro jesuitak (1903-1937), 1936.ean Martin Heidegger-en zuzendaritzapean egiten ari zen tesi doktoralaren prestaera eten zuena Kaperau bezala Hereneko 4. Banderako legionariei harrera egiteko eta 1937.eko apirilaren 11ean Aravacako fron-

---

Manuel de LARDIZÁBAL Y URIBE, *Discurso sobre las penas, contraido a las leyes...*, 2. ed., Imprenta de Repullés, Madrid, 1828, 168.or.hurk.

(16) Tomás de AQUINO, *Suma Teológica,* 2-2, q. 64, 2. artikulua.

(17) F. COMPAGNONI, *Pena de muerte y tortura en la tradición católica, Concilium,* Madrid, 1978, 707.or.hurk.

tean hil zena, 1936.eko bukaeraldean idatzi bat egin zion (Militar) Gorputz juridikoari tropek justizia beren kasa hartzea galerazteko eta justizia banatzeaz arduratzen direnak moralaren printzipioan oinarri daitezen. Idatziak bi zati ditu. Lehena agintari zibilaren ahalmen hertsakor penala justifikatzeko:

— Jainkoa dugu giza-bizitzaren jabe bakarra.
— Jainkoak ordena eta justizia nahi ditu.
— Arrazoi hauek direla eta, justiziari gogor egitea Jainkoaren kontra egitea da.
— Jainkoa ordezkatzen duen agintaritzak baino ez dezake giza-bizitzaren alorrean erabakirik hartu.
— Eta justizia banatzen dutenek Jainkoaren izenean egin behar dute, hau da, Jainkoarentzat zer den bidezkoa begiratuz eta gero azalpenak eman beharko dizkiotela kontutan hartuz.
— Zehazpen praktiko batzuk amaitzen dute azalpenaren zati hau.

Bigarren zatiak zein delituk merezi duen heriotz zigorra zehazten du. Bere ikuspegia bi baldintzatan zehazten da:

— Lege-hauste izugarriak, hau da, alde guztietatik begiratuta bidegabeak diren hilketa higuingarriak eta hauek egitera bultzatzen duen perbertsio ideologikoa. Azalpenaren bukaeraldean errudunagotzat jotzen ditu ugazaba berekoiak eta herria hezitzen arduratu ez zirenak.
— Askatasunaz eta erantzunkizunaz egiten diren zereginak. Honengatik ematen ditu hiru aringarri:

a) hertsapen morala.
b) hertsapen materiala.
d) gazte izatea.

Beste une batzutan nola edo hala ezagutzen ditugun ideiak errepikatzen ditu: heriotz zigorra ez den beste pena batzu badirela, beti hau erabiltzeak sortzen duen arriskua, herria berriz hezitzeko beharra eta heriotz zigorraz abusatzeak sortzen duen deformazio morala.

Orrialde hauen jarrera etikoa eta idazkera kontutan hartzen badugu ere, badira baieztapen «bibaliodun» eta autokritikoak. «Los mayores culpables, en cierto sentido, son los que ellos (se refiere al bando republicano) ejecutan (es decir, los patronos egoístas y los que debiendo educar al pueblo no lo hicimos), no los infelices arrastrados que matan nuestros tribunales». Jarrera gogor hau azken esaeran burutzen da: «Nos va ya dando vergüenza de haber nacido en esta tierra de crueldades implacables y de luchas sin fin» (18).

Antzeko zenbait esan zuen zenbait mende aurretik beste jesuita batek, Pedro de Leonek, 1545-1632, Sibilian 309 justiziaturi laguntza eman zienak (19). Gaur egunean presondegietako jesuita kaperauek ez dute horrela pentsatzen, hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala.

Prisondegietako kaperau protestanteek mantentzen duten antzeko jarrera permitigarriaz eta/edo

---

(18) R. M.ª SANZ DE DIEGO, Actitud del P. Huidobro, S.J., ante la ejecución de prisioneros en la guerra civil. Nuevos datos, *Estudios eclesiásticos,* 1985.eko urria-abendua, 443.or.hurk.

(19) Pedro HERRERA PUGA, *Grandeza y miseria en Andalucía. Testimonio de una encrucijada histórica (1578-1616),* Granada, 1981, 391.or.hurk.

*kritikoki* eskeintzen duten lankidetzaz Peter Brandt-en ikerketa zabalak hitzegiten digu (20).

F. — Aparteko kapitulu bat merezi dute gerrate garaietarako militar lege penalean heriotz zigorra ezartzearen aldeko argudioek, 1978.eko Konstituzioan ezartzen den bezala adibidez. Arazoa beste atal batetan aztertuko dugu.

---

(20) Peter BRANDT, *Die evangelische Strafgefangenenseelsorge. Geschichte-Theorie-Praxis*, Ed. Vandenhoeck y Ruprecht, Göttingen, 1985, 78.or.hurk., 174 hurk., 223 eta 294 hurk.

## HERIOTZ ZIGORRAREN AURKAKO ARGUDIOAK

### Zerrendaketa laburra

Heriotz zigorraren aurka argudio ugari ematerik bada. Garrantzitsuenak ondorengo hamabi puntuetan hauetan laburtzen dira:

1. Agintari publikoak ez du heriotz zigorra inposatzeko eskubiderik eta botererik giza-bizitza ukiezina bait da: «Ez duzu hilko». Pertsona orok gordetzen du bere barruan botere judizialak gizartearen alde desegin ezin duen zentzu absolutu bat.

2. Geroz eta gehiago dira egunetik egunera heriotz zigorraren abolizioaren alde egiten duten legelari, kriminologo, filosofo eta elizgizonak.

3. Heriotz zigorraren indar hertsatzaile eta beldurgarria ez da honen beharra sentitzeko bezain bestekoa. Krimen-efektu bat sortzen du.

4. Lege hausteen erantzunak, giza-justizia berak (eta jarraitzaile batzuren arabera, jainkotasunak) ez dio gaizkiari gaizkia eta heriotzari heriotza emango. Mendekua litzateke. Ez litzateke zigorra izango. Behar bada segurantzako neurria izango litzateke.

5. Heriotz zigorrak ez du justizia egiten, ez du bortxatutako ordena juridikora itzul arazten. Ezereztatu egiten ditu.

6. Gaur egunean badira min gutxiago eta eragingarriagoak diren beste zigor batzu lege haustea edozein delarik ere, adibidez batiereko eskatasun gabetza, komunitatearen zerbitzurako lanak, froga...

7. Herri askotan —geroz eta gehiago— heriotz zigorra abolitua dago eta emaitza baikorrak izan ditu kriminaltasuna eta birtxertaketa sozialari dagokionean.

8. Iraganak eta gaurko estatistikek heriotz zigorra abolitzean ez dela delitugiletza zabaltzen frogatzen dute.

9. Auziaren okerra, maiztasun erlatibo batekin ematen dena, konponezina da kondenatua hiltzen bada.

10. Gizarte moderno eta postmodernoak begi txarrez ikusten du zigor honi buruzko guztia, v.g., borreroaren irudia, exekuzioaren publizitatea... (jadanik XVI eta XVII. mendeetan, delitu jarraiaren teoriari ematen zaio hasiera heriotz zigorra ekidintzeko hirugarren ebasketaren egileei: *latro famosus*).

11. Gorputz zigorrak desagertzen ari dira onespen orokorraren aurrean. Hiltzeko pena apurka-apurka urperatzen ari den lurraren azken irlotea da.

12. Pertsona orok duen balio paregabea kontutan hartzen badugu, delitugilearen hilketak kalte eta galera haundiak sortzen dizkio hirikide askori, inori irabazi nabarmenik sortu gabe.

**Argudio batzuri buruzko irazkina**

Heriotz zigorra mantentzearen aldeko argudioez azaldutakoarekin batera orain arrazoi abolizionista nagusienak azalduko ditugu.

A). *Lehen aitzineurri* bezala lege hausterik ez egiteko (gure kasuan delitu larriak) hiritarrengan eragina sortzen duten teknika eta kontrolak hartzen baditugu, heriotz zigorrak benetazko indar beldurgarririk ez duela pentsatzen dugu hala dela frogatzen bait digute gizarte ikerketa eta ikerketa sikologiko baliotsuek, baita delitugile arriskutsuenen nortasunari buruzko ikerketa serioek ere.

Kriminologo dexentez (1) egin dituzte gai honi buruzko lekuan lekuko ikerketak. Heriotz zigorra, egiten nahiz eskubidez abolituta dagoen herri kopurua zenbatu dute, ekonomia, ohitura, historia, e.a. antzekoa duten herrien hilketa larri kopuruarekin gonbaratu dute, baina heriotz zigorra indarrean aurkitzen den tokietan, eta azken herri hauetan horrenbesteko lege hauste edo gehiago betetzen dela ondorioztatu da (2).

Ikertzaile kopuru haundi batek ondorio hau ez dela beharbada frogatzen pentsatzen du, baina seguraski, kontrako ondorioak ere ez luke seriotasun

(1) Carlos LANDECHO, Reflexión Criminológica sobre la pena de muerte, *Razón y Fe,* Madrid, 1970, 467.or.: El análisis de las investigaciones realizadas por criminólogos de excepción durante las dos últimas décadas lleva a la conclusión de que la aplicación de la pena de muerte no tiene argumentos positivos a su favor: ni su intimidación es mayor que la de otras penas ni contribuye a un menor peligro de las víctimas.

(2) E. A. FATTAH, «The preventive mechanisms of the death penalty: a discussion», *Crimcare Journal,* 1985, 109.or. hurk.

B. FORST, «Capital punishment and Deterrance: Conflicting Evidence?, The Journal of Criminal Law and Criminology, 74. alea, 3. Zb. (1983), 927-942. ok.

zientifikorik izango. Eritzi hontakoak dira W.C. Bailey, Bedau eta ikatskide asko (3).

Beste ikertzaile zenbaitek argumentazio hau oso zaila edo ezina dela onartzen du, zeren hain dira ezberdinak geografia, politika, historia, gizarte egoera e.a., hilketa eta beldurtzen duten faktoreen kopuruari buruzko datuen gonbaraketa objetiboa egitea galerazten bait dute.

Kriminologiazko argitarapen askok dio ez dagoela benetazko erlazio zuzenik delitugiletza eta heriotz zigorraren artean, eta honen arabera pertsonen aurkako bortxazko delituen garapena komunitate mugatu baten giza eta ekonomi baldintzen arabera ematen da, baita une historiko batetan komunitate horretako moral balioen sistemaren mugikortasunaren arabera ere. Gizarte horrek heriotz zigorra erabili edo abolitu izanak ez du eraginik (edo izatezkotan eragin eskasa du) gorapen honetan. Heriotz zigorra izendatzeak delitugiletza gutxitzen laguntzen duela pentsatzea, abolizioak susper dezakela pentsatzea bezain okerra da (4).

Hitz gutxitan, aurreko kapituluan aipatu ditugun heriotz zigorraren aldeko zenbaitek baieztatzen duenaren aurka, arazo honi buruzko ikerketa estatistikoek indar beldurgarririk ez duela frogatzen dute, edo, hala ez bada ere, ez dute baduenik frogatzen.

Beste ikuspegi batetatik, espezialista batzuk behin eta berriz esaten dute heriotz zigorra aplikatzeak, beldurtu beharrean, delitugiletza indartzen duela; indarkeria kriminalaren zergati batetan bihurtzen da.

---

(3) W. C. Bailey, «Disaggregation in Deterrence and Death Penalty Research: the Case of Murder in Chicago», *The Journal of Criminal*... (1983), 827-859. ok.

(4) Robert Badinter, «Francia. Abolición de la pena capital: la experiencia francesa», Naciones Unidas. *Boletín sobre prevención del Delito y Justicia Penal*, 11. Zb., Viena, 1984.eko abendua, 20. or.

Zeren hiritarrek, agintaritzak delitugileen bizitza errespetatzen ez duela ikustean, joera mimetikoak bultzaturik, beren etsaiak, beren aurka «delitu egiten dutenak» hiltzeko legitimotasun oso dutela pentsatzen bait dute.

R. Paternoster-en ikerketa monografikoak indar probokatzaile, kriminal hau azpimarratzen du, bera eta beste batzuk «*brutalization effect*» edo «*Counterdeterrence balance*» izendatzen dutena (5).

B). *Bigarren aitzineurria* eraginkorragoa izan daiteke heriotz zigorra abolitzen bada zeren kriminaltasun haundi bateko giroetan bizi eta delituzko «ekintzara pasatzeko» arriskuan dauden pertsonen kasuan, eta delitu larri bat egiteko irrikitzen daudenak (politiko eta/edo sasierlijioso amorratuak adibidez), beren delituzko ekintza aurrera eramateko adorea lortzen bait dute martiri bihurtzeko ideiaren aurrean.

Bestalde oraindik ere indarrean jarraitzen du Ferrik egindako oharpena delitugileek, sentiberatasun eskasa izatez gainera, ezuste haundikoak direla esan zuenean: «Lo studio della psicología criminale... ha offerto una serie di dati... che credosi debbano riunire sotto due fondamentali anomalie... e cioè nella insensibilità morale e nella imprevidenza... imprevidenza determinata de una deficiente forza di associazione delle idee, e rivelantesi pur essa in manifestazioni diverse, le quali tutte concorrono a far mancare l'ultima repulsione dal delitto, che sarebbe appunto la previsione delle conseguenze dolorose a cui questo conduce» (6).

---

(5) R. Paternoster, «Race and Victim and Location of Crime: the Decision to Seek the Death Penalty in South Carolina», *The Journal of Criminal*... (1983), 754-785.ok.

(6) Ferri, *Sociologia criminale,* Torino, 1929, n. 10.

1987.eko Amnesty International-en laburpenaren arabera, Estatu batean heriotz zigor exekuzioek asasinatze kopurua igotze lagundu zuen —killings increase after executions—. Laburpen honek, duela gutxi arte SESB-ean kontzientzi preso bezala zegoen Andrei Sakharov-en lekukotasuna transkribatzen du: «Heriotz zigorra gizartearen oinarri legal eta etikoak zulapetzen dituen erakunde inmoral eta basati bat da. Atzera botatzen dut etorkizuneko delitugileengan beldurra sor dezakeenik. Aurkakoa gertatuko delakoan nago: indarkeriak indarkeria besterik ez dakar (7).

C). *Hirugarren aitzineurria*ri dagokionean argia da honetan oinarritzen direnen argudioaren sendotasun eskasa heriotz zigorraren alde. Delitugilea justiziatuz gero ez duela berriz delitu egingo ukaezina bada ere, baieztapen hori sinplezia bat baino ez da, zeren berak delitu gehiago egiten ez badu ere, baliteke (eta hala dela uste dugu) beste pertsona batzuk exekutatuaren «exenplua» jarraituz delitu egitera bultzatuak izatea. Hau, esan dugun bezala, batez ere delitu mota batetan gertatzen da, zergati politiko eta sasierlijiosoen kasuan, kondenatuaren inguruan sortzen den heroitasun giroagatik.

Delitugileek ez diote lege hausteak egiteari uzten heriotz zigorra onartuta egoteagatik zeren beraiek poliziak *ez dituztela atxilotuko* pentsatzen bait dute. Horrez gainera, beren nortasunaren ezaugarriek (honetan Ferritik hasi eta J. Pinatel barne denak bat datoz) heriotz zigorraren eraginez hunkitzen diete.

Hirugarren prebentzio edo prebentzio bereziaren kontzeptu osoa erabiltzen badugu, esan beharra dago, honen helburua ez dela delituak ekidintzea, bir-

---

(7) AMNESTY INTERNATIONAL, *USA the Death Penalty,* Briefing, Londres, 1987, 18.or.hurk.

pertsonalizatzea baizik, berriz ere horrelakorik ez egiteko, eta alderantziz, gizartearen alde lan egiteko, bera «ezberdina» izaten jarraitzen badu ere. Aitzineurri bereziak, helburu ezkor bat balitzez gain (etorkizunean deliturik ez gertatzea), helburu baikor bat lortu nahi du: iraganeko delitugilea birsozialtzea. Beraz, aitzineurri bereziak heriotz zigorraren abolizioa eskatzen duela ondorioztatzen dugu, zeren birsozialtzea bizi den delitugileak baino ezin bait du lortu. Exekutatuak inoiz ez.

Norabide honetan, egungo nazioarteko Zuzenbide penalak abolizioaren aldeko argudio bat eskeintzen du, estradizioko tratatuek heriotzera zigortutako delitugileen eskaintza arautzen dutenean, epai ez betetzea eskatzen ohi dute eta. Horrela bada, 1985. eko gure legearen 4. artikuluko 6. zenbakiak zera dio: estradizioa eskatzen duen Estatuak, estraditatzen den pertsona hori ez duela exekutatuko bermatzen ez duenean... ez dela estradizioa onartuko (8).

Cherif Bassiounik bere Nazioarteko Kode penalean ez du heriotz zigorra onartzen (9).

D). Heriotz zigorraren aurkako beste argudio bat bere funtsezko helburuan daukagu (hiltzeko penak pertsonak hil nahi ditu eta hala egiten du), baita egungo zientzia *biktimiologikoan* ere.

---

(8) RODRÍGUEZ DEVESA, *Derecho penal español. Parte General,* 9. ed., SERRANO GOMEZek berrikusi eta eguneratua, Madrid, 1985, 249.or.hur.

BUENO ARUS, Extradición y pena de muerte en el ordenamiento jurídico español, *Anuario de Derecho penal,* I. fax (1981), 399.or.hurk.

CHERIF BASSIOUNI, *International Extradition and World Public Order,* ed. Oceana Publicantions Inc., Nueva York, 1974, 359-60, 459-63. ok.

(9) CHERIF BASSIOUNI, *Derecho penal International. Proyecto de Código penal International,* J. L. de la CUESTA ARZAMENDIk itzulia, ed. Tecnos, Madrid, 1984, 229.or.hurk.

Heriotz zigorra berreduki nahi duten batzuk diotenez honek ordena juridikoa zuzpertu eta biktimen nahia egiten du. Baina, ez da egia zuzenbidezko ordena birjantzen duenik, haiek ulertzen duten moduan, modu egonkor eta atzerakor batez: ezta biktimen nahi *hori* egiten duenik. Mendekuzko instintu honek ezin du legeriaren munduikuskeran harrera onik izan, René Girard-ek azaldu eta frogatzen duen bezala (10).

Zuzenbide penalak ez du nahi egungo ordena juridikoak atzera egin eta atzokoarenean bihurtzerik. Ulerkuntza juridikoak aurrerakoia izan behar badu, doktrinak eta kode zibilak dioen bezala (3.1. artikuluan), are gehiago zigorrak, iraganeko ordena juridikoa eta egoera gainditzen saiatu behar du. Hiltzen duenak ez du aurrerapenik sortzen.

Bestalde, biktimak ez du bere mendekuzko instintuak asetzeko beste pertsonak hiltzeko eskubiderik. Agintaritza instintu hain lotsagarri, aurpegiragarri eta ez gizatiar hori moteldu eta/edo gainditzen lagundu behar du. Biktimari gizartearen aurrean biktima bezala ikusia izateko aukera eman behar dio, hau da jasankor agertzeko. Gizartearekiko duen eginkizun lagunkideak krimenezko ekintza hilgarri pairatzaile horri zeinu bereko jarrera batez ez erantzuten behartzen du bere burua, etorkizuneko ordena berriaren egitura garatzen. Agintaritzak ez du ahaztu behar pertsona bera izatez autosortzailea eta heterosortzailea dela, baita bidegabeki inferitu dioten sumintasunean ere. Alderantziz jokatzea biktima eta delitugileari bere androgenesia, duintasuna eta bizitza eta elkarbizitzarako oinarrizko eskubidea ukatzea

---

(10) R. Girard, Culture «primitive», giudaismo, cristianesimo, *La pena di morte nel mondo,* ed. Marietti, Bologna, 1983, 75.or.hurk.

litzateke. Animaliaren heriotza, pertsona beraren heriotzarekin nahastea litzateke.

Gaur egunean, heriotz zigorraren aldekoek ere onartzen dute delitugilearen sufrimendua ez dela premiarik gabe haunditu behar, ez dela ez mendekuzko, ez demagogi sentimendurik bultzatu behar; epaituaren duintasuna errespetatu behar da.

Ordaintze beharraren kasuetarako heriotz zigorraren alde agertzen direnek, *ne peccetur*-aren aurrean *qui peccatum est* teoria penal absolutuak mantentzen dituztenei, aspaldidanik askok frogatu eta onartu duten zerbait ahazten zaie (11): «como todo castigo es un mal y el mal jamás es apetecible por sí mismo, así tampoco puede ser fin en sí mismo, sino medio tan sólo para la consecución de un fin»... ondasun publikoa lortzeko. Beraz epaileek ezin dute helburu gisa gizaki baten bizitza deuseztatu nahi izan, zeren horrek, zalantzarik gabe, kalte egiten bait dio gizarteari pertsona hori gabe geratzen da eta, eta pertsona orok bere balioa du.

Epaileek ez dute hiritarren prezamen haundiagoa lortuko, ez badituzte ahularen alde jokatzen duten pertsonatzat hartzen, hil dezaketen borrerotzat hartu beharrean. Delitugilea beti da ahula eta, zenbaitetan, ikuspegi batetik, biktima bera baino haulegoa (12). Heriotz zigorra onartzen den tokietan, herriak beldurturik ikusiko ditu epaileak, ez begirunez, ordea. Eta epaileei dagokienean, oker judizialaren argudioaz hiltzegitera pasako gara.

---

(11) CATHERIN, *Principios fundamentales de Derecho Penal. Estudio filosófico-jurídico,* itzulpena J. M. S. de Tejadak, G. Gili, Barcelona, 1911, 201.or.

(12) PLATÓN: «Siempre el que comete injusticia es más desgraciado que el que la sufre», *Gorgias* 479e.

Hernando Londoño Jimenezek bete-betean esan zuen bezala (13), Justizia penala huskorra da zalantzarik gabe eta etengabeki aldrebeskerietara bideratzen duten okerrak egiteko arriskuan dago, zenbaitetan, apartak direlarik; legerik drastikoenak ere, ez ditu legearen bideak itxi behar Auzategiak bete dezakeen okerraren aurrean emendakin bat aurkezteko, alderantziz, hau egitea giza eskubidea babesten duten eskubide zapalezinenganako irain jasanezin eta larri bat litzateke. Legegizon kolonbiar honek alor honetan egin dituen ikerketa eta esperientziek, bere multzo instituzionala zuzenbidezko Estatuaren errespeturik haudienean antolatu nahi duen herri orok heriotz zigorra bere zuzenbidezko ordenamendutik galerazi behar duela ondorioztatzen du, zigor honen exekuzioak errugabetasun egoera ukatzen bait dio horrela dela frogatzen duten gertakizun berrien aurrean, eta bide batez, kondenatua, familia, gizartea, eta Justizi administrazio bera ere, bidegabeki egin diren kondena guztiei kendutako bake lasai atzera emango liekeen errua onartu araziko lukeen ekintza judizial sotilik gabe geratuko lirateke.

Lehen azaldutako *Rechtsverwinkungstheorie* (heriotz zigorraren aldeko jarrerak aurkeztean) horretan oinarritzen den heriotz zigorra mantentzearen aldeko argudioari buruz, ikuspegi ezberdinetatik teoria hau atzera botatzera mugatu naiz. Batez ere epaileek ez dutelako Jainkoaren izenean (ezta legeak dioenaren arabera ere) epaitzen, eta ez daude horrelako erabateko erantzute etiko bat egiteko gaiturik, eta zigorra ez delako ordaintzea zentzu ontologiko bate-

---

(13) Hernando LONDOÑO JIMÉNEZ, *Derecho Procesal Penal*, ed. Temis, Bogotá, 1982, 131.or.hurk.

H. A. BEDAU eta M. L. RADELET, *Miscarriages of justice in potentially capital cases*, Tufts University and the University of Florida, Medford, Gainsville, 1985, 20.or.hurk.

tan. Espezialistek frogatzen dute epaileen bikal-agintaritzak ez duela zentzurik ez ikuspegi honetatik aipatzen diren pasarte neotestamentarien egungo exegesian, ezta Estatua eta agintaritzari buruzko munduikuskera kristau ezberdinetan ere. Kristau moralak ez dio onartzen giza auzitegiari barne erruduntasun etiko-erlijioso auzirik, *de internis neque Ecclesia,* eta zentzu honetan Karl Rahner-ek behin eta berriz errepikatzen du delituak ez duela barrutiki heriotz zigorra eskatzen (14). Mezu ebangelikoak (eliza ezberdinek modu hobe ala okerragoz igorritzen dutena) historikoki, nahiz ez zuzenean, penalistaren (Zuzenbide penalaren), kriminologoaren (kriminologiaren) eta gizarte kontrolaren kontzeptu eta oinarrizko sentimenduak irakitzen ditu. Hain zuzen egungo zigorra baliagarria, duina eta amakomuntasunaren ongiarentzat eta huts egiten duten hiritarren ongi bereziarentzat beharrezkoa izatea postulatzen du. Alde batetik, mendekuzko ordainketari uko egitea, eta bestetik zuzenbidearen (ez Justizia absolutuaren) birbaloratzea eta delitugileen birtxertaketa soziala eskatzen du, beren duintasuna eta eskubideen gutxiespenik gabe. Betebehar hauek, zigor heriotzak betetzen ez dituenak, kristautasunak jarrera abolizionista bat izatea eskatu eta espero dute. Gizarteak delitugilearekin solidarizatzeko duen beharkizunak, hura ere gizona bait da, eta gizarteak berak delikuentziaren sortzapen eta garapenean duen erantzunkizunak heriotz zigorraren aplikapena baztertzea dakar. Aplikatzean, Estatu bera defentsa pertsonal anarkikoaren planean ezartzen da. Estatu Batuetako Justizia eta Bake Batzordeak, Eliza eta heriotz zigorrari buruzko

---

(14) Karl RAHNER, «Schuld-Verantwortung-Strafe», *Schuld-Verantwortung-Strafe,* E. Frepyk prestatua, Zürich, 1964.
Karl PETERS, «Glaube und Strafecht», *Gedanken zur Strafrechtsreform,* Schöning. 1965, 39-56. ok.

bere 1976.eko ikerketan honako hau ondorioztatu zuen: «Puntu (teoriko eta pastoral) guzti hauek ondorengo jarduera pastoral batetarantz abiatzen dira: heriotz zigorraren abolizioaren alde egin behar da arriskuan dauden balio etikoengatik, baita honen aurkako argudio erabakikorren gabeziarengatik ere» (15).

Duela gutxi, 1975.ean, Iparrameriketako prisondegietako hogeita zortzi jesuita (Hilton Rivert eta James S. Stormes hauen artean), kaperau, kontseilari eta psikologo, New Orleansen bildurik, heriotz zigorrei buruzko Jesuiten Hitzaldian («Jesuit Conference on Criminal Justice»), honako hau ondorioztatu zuten «heriotz zigorrari dagokionean: heriotz zigorraren aurka agertzen gara barrutik txarra delako. Exekuzioak gizakiaren bizitza suntsitzez gainera, exekuzioa betetzen dutenen zakarkeria eta alde ukakorrena ere agertzen ditu. Ezmorala izatez gainera, ezberdina da bere aplikapenean, neketsua giza, finantzar eta legezko errekurtsoei dagokienean, eta zalantzazkoa eraginkortasunari dagokionean. Exekuzioa hautabide eraginkorren aldeko ikerkuntzarako eragozpen bat da».

Eritzi berdina azaldu zuten. 60.eko hamarkadan, J. Vernet eta Marcel Marcotte bezalako beste jesuita batzuk (16).

---

(15) Antonio BERISTAIN, «Capital Punishment and Catholicism», *International Journal of Criminology and Penology*, 5, 1977, 321-335. ok.

M. HONECKER, La pena de muerte en la teología evangélica, *Concilium*, 1978, 707.or.hurk.

F. COMPAGNONI, Pena de muerte y tortura en la tradición católica, *Concilium*, 1978, 689. or. eta hur.

Pierre DELOOZ, «La mort et l'au-delà», *Pro mundi vita: Dossiers*, Bruselas, 1985/4, 2-22. ok.

(16) Antonio BERISTAIN, La cárcel como factor de configuración social (Observaciones de algunos jesuitas), *Documentación jurídica*, 17. Zb., 1978.eko urtarrilla-martxoa, 174.or.hurk.

Hitz gutxiten, Elías Newmanek esaten zuen bezala (17), «La pena de muerte es un asesinato frío y legal, una conveniencia nefasta entre la ley, el juez y el verdugo para descargar como antaño el oprobio de los autotitulados decentes, en día y hora predeterminados».

Garapen historiko-kulturala argi azpimarratuz aboliziora jotzen duten aitzindari eta egungo pentsalari eta moralista kristauen laburpenik oso eta ñabarrena (B. Häring, Ernesto Eula, Giacomo Rossi, Beristain, Hortelano, Nieto Blasquez eta frantsez apezpikuak) Alfredo Etcheberryk eskeintzen du bere «La controversia filosófica sobre la pena de muerte» (Santiago-Txile, 1987) lanarekin.

Amaitutzat ematen dut kapitulu hau heriotz zigorraren aurkako taldean ezarri den jende ugariaren arteko zerrenda txiki bat aipatuz. Gogora daitezke, beste askoren artean, egungo Espainiako penalista gehiengoak. Alemanian ere: Jescheck, Maihofer, Noll, Roxin, Schultz...; Italian: Bettiol, Carnelutti, Del Veccio, L. Pettoello Mantovani, Pisapia...; Frantzian: Marc Ancel, Picca, Leauté, Stefani, Levasseur, Merle, Vitu, Reynald Ottenhof...; beste zenbait herritan: Elías Neuman (1959.aren bukaeraldean Chessmanen exekuzioaren aurkako kanpaina bultzatu zuena). Abolizionistak ditugu ere bai: Koestler, Camus, Unamuno, Correia, Gersao, Heleno Claudio Fragoso, Cornill, Mendiza Troconis, A. Quirós Cuarón, e.a. (18).

---

Marcel MARCOTTE, Libération de l'homme et respect de la vie, *Relations*, 360. Zb., Montreal, 1971.eko maiatza, 132.or.

(17) Elías NEUMAN, Barbero Santos, *Pena de Muerte (El ocaso de un mito)*, Depalma, Buenos Aires, 1985, XVIII. or.

(18) Beste zenbait espezialistak ere hainbat gauza gehio esaten du, ikus Marino BARBERO, CUELLO CALON, C. GARCÍA VALDÉS, *No a la pena...* 105. or. hurk., 201 hurk.

1974.eko maiatzaren 28 eta 29an, Bartzelonan ospatutako Zuzenbide penaleko katedradun eta irakasle laguntzailean II. Jardunaldietan, baita 1975.eko maiatzaren 28, 29 eta 30 ean Santiago de Compostelan ospatutako III. Jardunaldietan ere, partaide guztiak ahozbatez heriotz zigorraren abolizioaren alde agertu ziren. Bartzelonako IV. ondorioak zera dio: «De forma particular, se propone la abolición de la pena de muerte». Ondorio guztien testua beste hontan aurki daiteke: Antonio BERISTAIN, *Crisis del Derecho represivo*, Edicusa, Madrid, 1977, 110. or. hurk.

## HERIOTZ ZIGORRA GERRATE GARAIAN

Lehen esan bezala, herri askok heriotz zigorra abolitu dute egoera arruntetarako, gerrate garaietarako berriz, mantendu egin da. Ciceronen bertso zuhur haiek ahazten zaizkie: «cedant arma togae». Honela, 1978.eko Espainiako konstituzioak, bere 15. artikuluan zera esaten du: «heriotz zigorra abolitua dago lege penal militarrek gerrate garaietarako xeda dezaketen kasuetarako salbu». 1978.eko irailaren 26 ean Senatuko plenoak onartutako testuak «gerrate garaietan» esaten zuen; azkenik behin betiko testuan *garaietan garaietarako* hitzaz ordezkatu zuten Kongresu-Senatu batzorde Mistoaren diktamenez. Ez zait iruditzen esateko modu berri honek esaeraren zentzua aldatzen duenik (1).

Eritzi bera jasotzen dute beste Konstituzio batzuk. Italiako 1947.ekoak esate baterako, bere 27.3 artikuluan heriotz zigorra gerrateko lege militarrek aldez aurretik aipatzen dituzten kasuetan ezik ez dela onartzen esaten du. «Non è ammessa la pena di

---

(1) Autore honek ñabardura batzu ematen ditu: Felipe HIGUERA GUIMERA, *La previsión constitucional de la pena de muerte (Comentario al art. 15, segundo inciso, de la Constitución Española de 1978)*, ed. Bosch, Barcelona, 1980, 58.or.hurk.

morte, se non nei casi previsti dalle leggi militari di guerra».

Bake garaietan betetzen diren lege hausteentzat orokorrean heriotz zigorra arbuiatzen duten teorilari askok, gerrate garaietarako egiten diren lege hauste larrietarako Zuzenbide penal militarrean onartzen dute ordea, arrazoi ezkerbinak direla eta. Gogora ditzagun, besterik ez bada, Carrara, Karl Barth, Frosali, Jimenez de Asua, Ch. Helfer, Rodriguez Devesa, e.a. (2).

Gaur egunean, gerrate garaietan heriotz zigorra onartzeko argudio sendoenak lerro gutxitan labur daitezke: gerratea premiazko egoeraren oinarrizko baldintzak betetzen dituen nazioarteko ekintza bat da; gerrate garaian noizik behinkako barne desordenu larriren baten aurrean aparteko izaeraz heriotz zigorra zilegi bihurtzen duten premiazko egoerak sortzen dira (3).

Kontzeptu berezia ematen du Raul Zaffaronik, heriotz zigor izendatutakoak Zubenbide penal militarrean zigor izaera galdu duela esatean birsozializazioa bultzatzeko aurretiko eragin berezia galdu du eta. Hala ere berak zera dio: «La muerte que se ejecuta en el ámbito jurídico-militar en *tiempo de guerra,* si bien no tiene el carácter de una pena, puede tratarse de un supuesto de inculpabilidad regulado legalmente. Por supuesto que únicamente hallará su

---

(2) Raúl Alberto FROSALI, «Sulla pena di morte in generale e nel Diritto penale comune italiano», *Estudios penales en Homenaje al P. Julián Pereda,* Deustoko Univertsitatea, Bilbo, 1965, 390.or.hur.

J. M. RODRÍGUEZ DEVESA, *Derecho penal español. Parte General,* 10. ed., SERRANO GOMEZek berrikusi eta gaurkotua, Madrid, 1986, 900.or. (bibliografiarekin).

CARRARA, *Programma del Corso di diritto criminale, parte generale,* ed. Giusti, Lucca, 1875, 661. pasartea.

(3) Christian HELFER, *sub voce* Todesstrafe, *Handwörterbuch für kriminologie,* 2. ed. III. T., Berlin, 1975, 348.or.

explicación y límite dentro del ámbito de la necesidad inculpable. Dicho con otras palabras, se trata de un *derecho penal militar de excepción* que se funda en la necesidad terribilísima» (4).

**Heriotz zigorra espainiar Zuzenbide Penal Militarrean**

Monkloako itunetan zirriborratutako legeria penal militarraren erreforma berriak, 1977.eko urriaren 27an onartutako jokabide juridiko eta politikoko programaren Hitzarmenetan (1978.eko Espainiar Konstituzioa indarrean jarri zenetik beharrezkoa izan zena), Kode penal militarrean, Justizia Militarreko Kodean eta Zehapen-zentru Militarraren Arautegian heriotz zigorraren erregulazio berri bat eskeintzen du.

Kode Penal Militarraren projektua, Diputatuen Kongresuan, Gorte Jeneralen Aldizkari Ofizialean argitaratua, 1984.eko ezaroaren 12an (A Saila, 123-I zenbakia) 1985.eko ekainaren 13an eztabaidatu zen Kongresuaren plenoan (217. sesio-liburuan, 9.961-9.982.ok). A. Monforte Arregi (EPT) eta J. M. Bandres Moletek (EE,GM) heriotz zigorraren erabateko abolizioa eskatu zuten. Egun batzu geroago, 1985.eko urriaren 22 eta 23an, Senatuaren Plenoan egin zen debatea (Sesio-liburua, 137 eta 138. zenbakiak, 6.427-6.510. orrialdeak) Vendrell eta Duran, Renovales Vivanco (SNV), Fernandez Piñar eta Afán Rivera (PCE, GM) senadoreen heriotz zigorraren erabateko abolizioaren aldeko esposaketak barne. 1986.eko ekainaren lean *Kode penal militar* berria jarri zen indarrean 13/1985 Abenduaren 9 ko Lege Or-

---

(4) R. Raúl Zaffaroni, *Derecho penal militar,* ed. Ariel, Buenos Aires, 1980, 61.or.hur., 79.or.hurk., 83.or.
Berdin, *Derecho penal,* V. T., 109.or.

ganiko gisa aldarrikatua, eta urte bereko abenduaren 11 ren AEC-ko 196. zenbakian argitaratua (5).

Bere 25. artikuluak ondorengoa xedatzen du: «Heriotz zigorra gerrate garaian larritasun haundiko kasuetan baino ez da inposatuko, epaian behar bezala motibaturik eta gerratea formalki deklaratua izan den kasuetan edo potentzia atzerritarren batekin harreman guztiak modu txarrez bukatzen diren kasuetan». Aldez aurretik, 14. artikuluak finkatzen du «gerrate garaian» terminoaz zer ulertu behar den. Kodeak dioenez, «gerratearen deklarazio formalarekin hasten da, gerrate hurbil batetarako mobilizazioa dekretatua izatean edo potentzia atzerritarrekin etsaitasuna haustura orokorrarekin, eta amaitu hauek eteten direnean egiten da».

Ondoren, 29. artikuluak, heriotz zigorrak berarekin desgaikuntza absolutuaren eranskina daramala mugatzen du, eta 45. artikuluak 20 urtetako preskripzio epea ezartzen du hiltzeko penaz zigortu diren delituentzat.

Kode penal militar honen arabera heriotz zigorra egoera —gehiegizko— anitzetan inposa daiteke: saldukeriako delituetan (49 eta 50. artikuluak), espionaia (52. artikulua), lege eta gerrate erabileren aurkako lege hausteetan (70, 71 eta 76. artikuluak), errebelamendua (79. artikulua), heriotza edo zauri larriak sortzen dituzten zentinela, indar armatuak edo polizia militarraren aurkako delituetan (85 eta

(5) Felipe HIGUERA GUIMERA, La nueva reforma e innovación del Derecho penal militar español, *Estudios de Derecho penal en homenaje al Profesor Luis Jiménez de Asúa (Revista de la Facultad de Derecho de la Universidad Complutense)*, Madrid, 1986, 371.or.hurk.

Nicolás GARCÍA RIVAS, La reinstauración de la pena de muerte en el Código Penal Militar, *Estudios de Derecho penal en homenaje al Profesor Luis Jiménez de Asúa*, Madrid, 1986, 347. or.hurk.

86. artikuluak), baita heriotza edo kalte larriak ondorioztatzen dituzten agintaritza militarraren aurkako atentatuetan ere (87. artikulua), gauza bere albaramendu delituan (91. art.), goi mailakoari tratu txarra ematean aipatutako ondorioak sortzen baditu, edo irainak botatzean (98. art.), desobeditzean (102. art.), agintaritzaz abusatu eta heriotza ondorioztatzean (104. art.), koldarkeria (107, 109, 111. art.), manuaren eginkizunaren aurkako lege hausteetan (130. art.), arma edo transmisio zerbitzua abandonatzean (144. art.), zentinela postutik alde egitean (146. art.), eginbeharrak betetzen ez direlako serbitzuari kalte larriak egitean (147. art.), gerrauntzi edo aireuntzi militarraren osotasunaren aurkako lege-hausteetan (165. art.) (6).

Legegileak konstituzioaren markoa gainditu eta heriotz zigorra ondasun juridiko mugatu bat babesteko baino ezin dela erabili ahaztu du; gerrateko egoerarekin erlazionaturik eta hain zuzen gerrateko operazioen martxa eragozten duten delitu larrietarako besterik ez (7).

Abenduaren 22 an, 3331/1978 Errege Dekretuak onartutako *Zenapen-Zentru Militarren Araudi*ko 74-76 artikuluek diotenaren arabera, epaia tinko egiten den bezain pronto «erruztatu frogatua, gela edo departamentu isolatu batetara eramana izango da eta ez da handik arauzko ibilaldiexoa egiteko besterik

---

(6) Informazio gehio jasotzeko, García Rivas, La reinstauración... 349.or.hurk.

(7) María José Añón Roig/Javier de Lucas y Martín/Ernesto Jaime Vidal Gil, «Notas sobre una legislación amenazante», *Cuadernos de Política criminal,* 29. Zb. (1986) 285.or. hurk.

Felipe Higuera Guimera, *La previsión constitucional...* 78. or.hurk.

Idem, *El Real Decreto-Ley N.° 45/78 que sustituyó la pena de muerte: problemas y soluciones,* ed. Bosch, Barcelona, 1983.

irtengo... zaintza berezi bat izango du, bere bizitzaren aurka ezer egiterik edo ihes egiterik izan ez dezan... Berak nahi badu, presondegiko kaperauak ohizko bisitaldiak egingo dizkio. Beste apez bat edo bete erlijio batetako ministrari baten laguntza eskatzen badu, ahal den neurrian bere gustua egiten saiatu behar da...».

Heriotz zigorraren exekuzioa nola egin arazoari buruz, *Justiziako Kode Militar* berriko 871. artikuluak (Azaroaren 6 ko 9/1980 Errege Dekretua, 280. EAO) «fusilamendu bitartez eta publizitaterik gabe» egitea egintzen du. Bestalde, aipatutako Justiziako Kode Militarrean egin diren aldaketen arteko batek derogatutako 879. artikulu zaharreko jendaurreko erritual ospatsua kentzen du: «Heriotz zigorraren aurretik anderakuntza militarra doanean, epaitua uniforme osoz jantzia joango da, ofiziale balitz, bere ezpata eskoltako soldadu batek eramango lukeelarik.

Erruztatua erdian jarriz zutoihala edo banderaren aurrean, epaile instruktoreak, Ofizialeak ezpata gerrikatu, eta ondoren, berehala Sarjentu batek lurrera bota eta puskatzera doala itxura eginez hau eranztea erabakiko du. Era berean intsignia eta kondekorazio guztiak banan bana kentzen joango zaio.

Aldez aurretik Instruktoreak formula hau esango du: *Erantzi*... (epaituaren izena)-ri *bere arma, intsignia eta konderazio guztiak, hauen erabilpenerako Legeak ezduin aldarrikatzen bait du; Legeak degradatu egiten du berak bere burua degradatu du eta*».

Aurreko mendean dagoeneko, gogor eta horrorez kritikatzen zen espainiar legeria militarra heriotz zigorrari buruz hartzen zuen jarduera zela eta (8).

---

(8) Manuel TORRES CAMPOS, *La pena de muerte y su aplicación en España*, F. Góngora y Cía., Editores, Madrid, 1979, 43.or.hur.

# ERABATEKO ABOLIZIONISMOA

Filosofo, elizgizon, literatu, kriminologo, artista, soziologo eta penalista talde geroz eta haundiago batek (zeinetan ni ere aurkitzen bait naiz) bidezkotzat hartzen du egingo gizartean, erabateko erantzun abolizionista (ez absolutua) Zuzenbide penal Militarra eta gerrate garaian barne. Honela pentsatzen dute Espainian adibidez, Marino Barbero, Berdugo, Beristain, Cobo del Rosal, García Valdés, Gimbernat Ordeig-ek beste askoren artean. Jarrera bera hartzen dute atzerrian Marc Ancel, Bassiouni, Bedau, Jescheck, Elías Neumanek eta behar haundia eta gerrate kasuan ere heriotz zigorra zilegizkoa ez dela pentsatzen duen beste askok.

Espainian hiritar talde txiki bat baino ez da heriotz zigorraren abolizio konstituzionala gerrate garaietarako ere zabaltzea nahi duena. Jarrera honen erakusgai Espainiako giza eskubideen aldeko Elkartearen *Urteroko Txostena* (1986.eko abendua) ez dela honen alde agertzen. Ez du erabateko abolizioaz hitzegiten, ezta Botere publikoei egiten dien gomendioetan ere (1).

(1) Asociación pro derechos humanos de España, *Informe Anual. Derechos Humanos en España 1986,* Madrid (1986.eko abendua), 87.or.hurk.

Jescheck, 1959. urtean Kode penalaren erreformarako Komisio Nagusiari egiten dion txostenean, onarrezina aldarrikatzen du heriotz zigorra gerrate garaietan. Erretentzionistek aipatzen duten indar beldurgarria ukatzen dute eta zera gogorarazten dute: «heriotz zigorraren aurkako arrazoirik sakonena dugu gizon oro bere azken minuturarte Jainkoaren grazian parte hartzea deitua izana», eta argudio hau baliagarria da baita gerrate garaian ere (2).

Antzeko zerbait adierazten du García Sabalek beste ikuspegi batetatik: Heriotza gaitz fisikoen bukaera da, baita munduko bizipenen egunsentia ere. Bizipen hau egi bihurtzea ala ez, zientzilariek, ertz honetatik ziurta ezin dugun zerbait da. Baina beste bizitzako irudipenak biziki argitzen zuela gizonaren azken minutua, hori ukaezina da (3).

Gerratean parte hartu duten legegile bikainak ez datoz bat militarren moral gerrazalea mantentzeko heriotz zigorraren alde agertzen den argudioarekin, zeren, beraiek dioten bezala, moral eskasa bait du heriotz zigorraren beldurraren eraginpean ari den armada batek. Militarrak beren ezaugarri pertsonal eta gerratearen egoera dela eta, ez dira erraz beldurtzeko gai.

De Friburgo katedradunak dioenaren arabera (4), heriotz zigorra abolitu egin behar da premiazko

---

(2) Hans-Heinrich JESCHECK, alemaniar Kode penalaren erreformarako Batzorde Nagusiari bidalitako txostenean, *Niederschriften über die Sitzungen der Grossen Strafrechtskommission,* 11. T., Beratungen zur Todesstrafe, Bonn, 1959, 36.or.

(3) Domingo GARCÍA SABEL, «Antropopología de la muerte», *Boletín Informativo,* 166, Fundación J. March, Madrid, 1987.eko urtarrila, 31.or.

(4) Hans-Heinrich JESCHECK, *Lehrbuch,* 1. ed., 500.or., eta xehetasun berriekin 3. ed., 613.or. Bada Mir Puig eta Muñoz Condek gaztelerara egindako itzulpen bat 3. ed., II. bol., Barcelona, 1981.Zentzu berean, ALT, *Das Problem des Todesstrafe,* 1960, 163.or.hurk.

egoera eta gerrateko baldintzetan ere. Soilik ordena publikoa erabat hautsiko balitz (leherketa atomiko baten ondoren, esate baterako) eta heriotz zigorra besterik geratuko ez balitz anabasa orokorraren aurrean, gutxienez jendetzaren zati bat bizirik gelditzeko, erabili ahal izango litzateke, baina baldintza hau ezingo luke inolaz ere legemaileak arautu zeren orduan estatuko ordena berri baten eraikuntza, baldintza ezezagun batzurenpean hasi beharko bait litzateke («doch its das kein Fall, für den der Gesetzgeber Vorsorge treffen könnte»). Exekuzio hau beraz, ez litzateke guk darabilgun zigorra izango.

Erabateko abolizionismoa proposatzean gerrate garaiko legezko salbuespena ukatzen ari gara, baina, ez dugu gure erantzuna absolutu bihurtzeko asmorik. Jabetzen gara zientzia penalak, beste zientzia guztiek bezala bere barruan dituen muga eta erlatibismoarekin. Zabalik uzten diogu atea beraz, Jescheck eta beste zenbaitek bezala, «juridikozgaindiko» hilketari (nolabait izendatzeko gure egingo egoera zientifiko juridikoa gainditzen duen egoera) (5).

Heriotz zigorraren aurkako eritzi berdina hartzen du Manuel de Irujok, zenbaitetan behin eta berriz tankera jatorrez baieztatzen duen bezala. Bere orointzapenek Madrilgo Justiziako Ministraritzan (6),

---

(5) Manuel GARCÍA DONCEL, Las creencias del científico. Aproximación epistemológica, *Asociación Internacional de estudios médico-psicológicos y religiosos (X Congreso Internacional)*, Barcelona, 1986.eko uztailaren 22-27, 1.or.hurk.

Winfried HASSEMER, Hermenéutica y Derecho, *Anales de la Cátedra F. Suárez*, 25. Zb (1985), 63-85.ok.

RAYMONDIS, Epistemologie et recherche, *Memoria del VI Congreso Internacional de Criminología*, 1. Bol., ed. Instituto de Criminología de la Universidad Complutense, Madrid, 1973, 473.or.hurk.

Alberto S. MILLÁN, Presupuesto epistemológico de la criminología, *Memoria del VI Congreso Internacional...*, 509.or.hurk.

(6) Manuel de IRUJO, *Un Vasco en el Ministerio de Justi-*

abolizionista nabarmentzen dute gerrate zibil espainolaren garaian, zeren honek, lanak dioenez: «alienta emociones cristianas y democráticas, estima que la vida es el primer derecho del hombre, y reputa que su respeto y garantía constituye singular obligación en una sociedad humana digna de este hombre».

Arrazoi hauek baliozkoak jaraitzen dute izaten gerra garaian eta militarrentzat ere... Hobe esateko gerrate garaian eta militarrentzat dira baliozkoak hain zuzen ere, zeren heriotz zigorra ezartzeko norbait desaboatuta badago, hau auzitegi militarra bait da hain zuzen eta gerrate garaian, auzi hauek osatzen dituztenen prestakuntza eta lanbide nagusia kontutan izanik, eta parte hartzen duten testuinguru sozio-politiko eta egoera kontutan izanik, auzi ezgaituena delako eta justiziaz ulertu eta askotan delitugile gisa epaitua izango den pertsona baten ekintzak aztertu eta epaia diktatzeko.

Bete-betean honela idazten du Unamunok (7): «el bien juzgar exige, ante todo y sobre todo, independencia de criterio, y la disciplina jerárquica, así como el detestable y dañosísimo espíritu de cuerpo, ahoga toda independencia de él... Hay, además, algo acaso más delicado que juzgar, y es enjuiciar. Para enjuiciar hace falta más práctica, más tino, más inteligencia especial, más tradición técnica que para juzgar. Lo difícil no es fallar un proceso sino llevarlo a cabo». «Y es muy fácil, facilísimo, que quien está educado para mandar y obedecer como en la milicia se manda y se obedece, se vea inducido, por la fuerza del hábito, a aplicar al enjuiciamiento de su-

---

*cia,* 1. Oroitzapena, Buenos Aires, Ekin, 1976, 88.or.hurk. III. irazkina ikus daiteke liburuaren azken aldean.

(7) Miguel de UNAMUO, La patria y el ejército, IDEM, *Obras completas,* III. T., Madrid, 1968, 843.or.hurk.

puestos delitos, procederes y métodos que no son los más adecuados para obtener la verdad de los hechos».

Gerrateko auzategiak aritzen diren egoera pertsonal eta hiritar bereziek, lasai eta inpartzialki ez jokatzea dakarte. Gizarte eta denbora aldeko baldintzek erru hilgarri eta erremediorik gabeak egitera bultzatzen dituzte.

Gaur egun abolizio osoaren alde egiten duen beste argudio bat —zientzien filosofiaren mugek inposatzen duten erlatibismoaren barruanbizitzaren eskubidea eskubide ezgraduagarri bat izatean oinarritzen da. Beste oinarrizko eskubideak (ideologi askatasuna, barrukotasun pertsonala, heziketarako eskubidea, e.a.) maila haundi ala txikiago betetan eman daitezke, bizitzarako eskubideak, ordea, ez du mailaketarik onartzen; delitugileak badu ala ez du, *tertium non datur,* ez dago tartekorik (8). Baliorik oinarrizkoenaz ari gara. Nolakotasun sakratu arazo bat da, «*sanctity of life*», kantitateari buruz eztabaidatzen ez dena.

Ez dago gaur muturreko kasuetan premi edo/eta bidezko defentsarako egoerak direla eta zigor deuseztatzailea mantentzerik. Bidezko defentsa, baita premi egoeraren funtsa eta helburua ere, heriotz zigorraren funtsa eta behar bada helburuaren ezberdinak dira. Justifikazio eta/edo errugabekeriaren zirkunstantzia salbuesle hauek, kasuen arabera, bere helburu «arruntak» lortzeko legea eta agintaritzaren aparteko ezgaitasunean oinarritzen dira (labur esanez), kasu berezi bakoitzarako araua ez motibatzean e.a., eta nahitaezko kaltea ahal den txikiena izatea

---

(8) M. Cherif BASSIOUNI, *Substantive Criminal Law,* ed. Charles C. Thomas, Springfield, Illinois, 1978, 42.or.hurk., 120. or.hurk.

M. BARBERO, «La pena de muerte en la Constitución», *Sistema,* 1981.eko maiatza, 52.or.hurk.

nahi izaten da. Heriotz zigorra berriz, indar eta behartze zakarraren boterean oinarritzen da. Behar bada hiru erakundeen helburua berdina izango da teoria batzutan: heriotz zigorrak kalterik txikiena nahi duela pentsatzen dutenak (gogora dezagun Akinoko Santo Tomasek, Alfonso de Castro, e.a.ek organismo osoari mehatxu egiten zion atal kantzeroso, ustelduari buruzko argumentazioa).

Hemen esposatutakoa kontutan hartuz ondorioztat daiteke Konstituzio Espainoleko 15. artikuluan dagoen kontraesana, lehen pasartean, salbuespenik gabe, guztientzat bizitzaren eskubidea onartzean, bigarren pasartean judizio agintaritzari egoera berezi batzutan pertsona zenbaiti bizitza kentzeko eskubidea ematen duen artean.

Heriotz zigorraren kondiziogabeko debekua tortura edo genozidioaren debekuarekin parekidetu behar da. Ez dirudi, ordea, tratu txar, ezgizatiar edo iraingarriekin paregarria denik, zeren hauek, nik egokien ikusten dudan doktrinaren arabera, tortura baino maila txikiago batetakoak bait dira. Hau berriz beti debekatu behar da inolako salbuespenik gabe. Ez dute horrenbesteko «absolutasunik» eta gogortasunik eskatzen ordea, beste tratu gogor, ezgizatiar eta iraingarriek (9). Ez dezagun ahaztu gure kontzeptuak, errealitatearekiko hurbilketak giza esperientzia unitario nahiz aldakor eta dinamikoen ondorioak direla.

Azken finean eskakizun etikoak badu hemen erabakikorra den zerbait esatekorik. Eman dezagun aditzera K. Barth eta AEB-etako apezpikuen eritzia. Hauek beren dokumentua amaitzen dute gu hau kon-

---

(9) Angel Toríó, «La prohibición constitucional de los tratos inhumanos y degradantes», *Los derechos humanos ante la Criminología y el Derecho Penal,* Donostiako Udako IV. Ikastaroak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1986, 103.or.hurk.

tutan hartzera behartzen: «heriotzera zigorturik daudenak, gu bezala, Gizonaren Semea salbatzera etorri zen pekatari guztien artean daude: (who, like us, are among those sinners whom the Son of Man came to salve)». Eta haren azken hitzek argudiorik erabakikorrena ematen digute: «Beha dezagun barkamena eta maitasun urrikalkor garaitiaren adibide gorena den Kristo gurutzatua» (10). Biktimazioa, pena eta barkamenerako delituaren dimentsio integratzaile eta harmoniko berri hau, beste ikuspegi batetatik egiaztatzen da Fisika modernoan eta mistizismo batzutan: «las teorías y modelos principales de la Física moderna llevan a una visión del mundo que es internamente consistente y que está en perfecta armonía con las visiones del misticismo oriental». (Fritjof CAPRA, *El TAO de la Física,* Fisika modernoa eta Ekialdeko mistizismoaren arteko paraleloen azterketa bat, Luis Carcamo argitarazle, Madrid, 1984, 345.or.).

Azaldutakoaren ondorio gisa zera pentsatzen dugu: bizitzarako eskubidea —zenbait herritan geroz eta preziatuagoa—, heriotz eta eguneroko heriotza arrunterako eskubideak, heriotz zigorraren abolizioa eskatzen du zeren heriotza eta hiltzeak, honek ezsakralizatu, ezmitifikatu, ezprofanatu eta heriotza eta hilketa zitaltzean, zuzen zuzenean pertsona bakoitzaren eskubide-zeregin hain jatorra den hau ukatzen bait du (hala egiten saiatzen da), esate batera o Heidegger eta Unamunok azaltzen duten bezala; onartezina ikusten dugu gaur eta betirako (betirako zientifiko-erlatibo bat) heriotz zigorra, bada, Paduako Maisuak emandako norabide epistemologikoak gogoratuz, gure alor juridiko kriminologikoan izpiritu-

(10) U. S. BISHOPS, Statement on Capital Punishment, *Origins NC Documentary Service,* 1980.eko. azaroaren 27, 10. Bol.: 24.Zb., 373.or.hurk.

aren balioak, pertsonaren eskubideak, edozein argudio logikoren gainetik dagoela pentsatzen bait dugu: «Siamo, qui, ad un primato della cultura più che della logica» (11).

---

(11) G. BETTIOL, L. PETTOELLO MANTOVANI, *Diritto Penale,* 12. ed., Cedam, Padova, 1986, 15, 838. ok.

## Igo. ERASKINA
## 6. PROTOKOLOA (HERIOTZ ZIGORRAREN ABOLIZIOARI BURUZ)

**EUROPAR HITZARMENARI GIZA ESKUBIDE ETA OINARRIZKO ASKATASUNEN BABESERAKO (1952.eko Maiatzaren 20a), EAO., 1979-10-10 eta 1982-5-10 a.**

1950.eko azaroaren 4ean Erroman Giza Eskubide eta oinarrizko askatasunen babesaren alde Europar Hitzarmenari idatzitako Protokolo honen sinatzaile diren Europako Kontseiluaren Estatu partaideek, (aurrerantzean «Hitzarmena» izendatua izan zena),

Europar Kontseiluko Estatu partaide askotan eman den garapenak heriotz zigorraren abolizioaren aldeko joera orokor bat izan duela kontutan izanik;

Honako hau hitzartu du:

1. Artikulua

Heriotz zigorra abolitu egin behar da. Ezin da inor zigor bat egitera edo exekuziora apaitu.

2. Artikulua

Estatu batek bere legerian heriotz zigorra aurrikusi dezake gerrate garaian edo ta gerrarako arrisku

hurbila dagoeneko ekintzetarako; zigor hau ez da legeriak aurresaten dituen kasuetan eta xedatutakoaren arabera baino erabiliko. Estatu honek Europako Kontseiluko Idazkari Orokorrari jakineraziko dizkio efektu honetarako legeriari dagozkion xedapenak.

3. Artikulua

Hitzarmeneko 15. artikuluaren arabera ez da Protokolo honen xedapenen derogaziorik egiteko baimenik ematen.

4. Artikulua

Hitzarmeneko 64. artikuluak dioenaren arabera Protokolo honen xedapenei ez zaie erreserbarik onartzen.

5. Artikulua

1. Estatu orok, sinadura emateko unean edo berrespen edo onespen tresna gordailatzeko unean, Protokolo hau zein lurraldetan aplikatuko den adieraz dezake.

2. Estatu orok, etorkizuneko edozein unetan, Europako Kontseiluko Idazkari Orokorrari zuzendutako adierazpen baten bitartez, honetan izendatzen den beste edozein lurraldetara zabal dezake Protokolo honen aplikapena. Lurralde honetan Idazkari Orokorrak adierazpena jasotzen duen epetik hurrengo hileko lehen egunean jarriko da indarrean Protokoloa.

3. Aurreko bi pasarte horien arabera egindako deklarazio oro, honetan izendatzen den edozein lurralderi dagokionean, baztertua izan daiteke Idazkari Orokorrari abisua emanez gero. Atzeraldiak Idazkari Orokorrak notifikazioa jasotzen duen hurrengo hileko lehen egunetik aurrera izango du bere efektua.

## 6. Artikulua

Estatu Partaideek Protokolo honen 1. artikulutik hasi eta 5. eraino Hitzarmeneko artikulu gehigarri bezala hartzen dituzte, eta Hitzarmeneko xedapen guztaik honen arabera aplikatzen dira.

## 7. Artikulua

Protokolo honek Hitzarmena sinatzen duten Europako Kontseiluko Estatu partaideei beren sinadura emateko aukera zabalik uzten die. Berrespen, onarpen edo onespen batetara egokitua izango da. Europako Kontseiluko Estatu partaide batek ezin du Protokolo hau berronetsi, onartu edo baitetsi aurretik edo aldi berean Hitzarmena berretsi ez badu. Berronespen, onarpen edo onespen tresnak Europako Kontseiluko Idazkari Orokorraren zainpean utziko dira.

## 8. Artikulua

1. Protokolo hau indarrean jarriko da, Europako Kontseiluko bost Estatu partaidek Protokoloaren bitartez 7. artikuluaren xedapenei lotuta egoteko baimena ematen duten epearen hurrengo hileko lehenengo egunetik.

2. Aurrerantzean Protokoloari lotu nahi zaion partaide ororentzat, hau indarrean jarriko da berrespen, onarpen edo oneste tresna ematen den unetik hurrengo hileko lehen egunean.

## 9. Artikulua

Europako Kontseiluko Idazkari Orokorrak Kontseiluko partaideei zera jakineraziko die:

a. edozein sinaduraren berri;

b. ematen den berrespen, onarpen edo oneste ororen berri;

d. 5 eta 8. artikuluen arabera, Protokolo honetan indarrean jartzen diren epe guztien datak;

e. Protokolo honekin zerrikusirik duen beste edozein ekintza, berri edo komunikapen.

Hau onartzen dutelarik, azpikaldean sinatzen duten horiek, beharrezkoa den baimena izanik, Protokolo hau sinatu dute.

Estarsburgon, 1983.eko apirilaren 28an.

## Ilgn. ERASKINA
## HERIOTZ ZIGORRAREN AURKA LEGERIA MILITARREAN

### Heriotz zigorraren egungo problematika

1987. eko apirilaren 1 ean, legeria honetan bigarren aldiz, Erkideen Ganbara britainiarrak Erresuma Batuko sistema penalean heriotz zigorraren berreraikuntza eztabaidatu zuen asasinatze kasu batzutarako, hauetan aldez aurretiko asmoa, delitugilearen nortasun makurra, e.a. bezalako zirkunstantzia astungarriak ematen direnerako.

Proposamena baztertua izan zen eztabaida argi eta burutsu luze baten ondoren. Heriotz zigorraren berrezartzeko eskaera 108 kontserbadorek sinatu zuten, sir Ian Percival, Margaret Thatcher-en lehen Gobernuko *Eskatzaile orokorra* (fiskalorde orokorra) buru zelarik, exekutiboak azalduko judiziamendu kriminal lege berri bati buruzko eztabaida orokorrean.

Bi egun ondoren, hilaren 3 an, prentsa espainolak ohar hau argitaratu zuen: Iñaki Aldekoak, HB-ko buruzagia, Europar Parlamentuko Ortzadar taldeari «Yoyes»-en hilketari buruz egindako irazki-

netan, ETA-k «Yoyes» hil zuela baieztatu zuen, zeren «ejerzito batek ezin bait du bere buruzagien desertzioa onartu».

Egunkarian berri hau irakurtzen amaitu orduko, marxismoari buruz mahai gainean dudan liburura itzuli nintzen. Beste zenbait anekdoten artean ondorengoa transkribatuko dut: New York-eko *Daily Tribune*-ean, 1953. eko otsailaren 18 an, Karl Marx-ek, 1849 an hiru egunetan izandako exekuzio, buruhiltze eta asasinatzeei buruzko datuak aipatzean, zera esan zuen: «taula honek...buruhiltzeez gainera, krimengileen exekuzioaren ondoren egiten diren hilketa ikaragarrien berri ere ematen digu».

Hauek eta jendaurrean egin diren beste deklarazio batzuk zigorraren arazoari buruz pentsatu eta idaztera bultzatu naute, bereziki gerrate eta militar egoeratan gertatzen denari buruz.

### Jendarteko eritzia Espainian

Gallup E.A.-k, Nazioarteko Gallup Erakundearen partaide espainolak, 1973.etik 1986. eko urria arte aldizkako zundaldiak egin ditu espainiar jendarteko eritziak heriotz zigorrari buruz jasan dituen aldaketak autemateko asmoz (1).

Azken zundaldia, 1986. urte honen iraila eta urrian, 15 urtetik gorako 1.038 pertsonei (penintsula eta Balear Irletakoak) beren etxeetan egindakoan, honako galdera hau egiten zien: «Asasinatze baten

---

(1) F. FECHNER-ek, Vier Thesen über die Funktionalität des Rechts in der menschlichen Gesellschaft, ein Rechtssoziologischer Überblick, *Pena de morte* argitarapenean, Coimbra, 1967, 333.or.hurk.

J. DELGADO PINTO, «El derecho como fuente de agresión y pacificación», *I Curso Monográfico sobre AGRESIVIDAD*, Ed. Castalia, Madrid, 1980, 97 ok.hurk.

errudunei heriotz zigorra aplikatzearen alde ala aurka zaude?».

Denboraldi honetan % 88 ak bere eritzia azaltzen du, 1973.ean % 61 ak baino egiten ez zuen artean. % 61 honen artetik, % 39 a aurka agertzen zen, alde agertzen zen % 27 aren aurrean.

1977.ean Gorte Konstituziogileak eratuz geroztik, eritziak askoz ere sendoagoak dirudite. Heriotz zigorraren aurkako kopuru haundiena (% 58 a) erreferendum konstituzionala ospatu aurreko hileetan eman zen. Heriotz zigorraren aldeko eritzien portzentai haundiena ETA-ren terrorismoa gorbiztu zen garaian nabaritu zen, 1979.eko uztailean: % 47 a heriotz zigorraren alde agertzen da, jarrera abolizionista hartzen duen % 42 baten aurrean. Era berean, 1981.eko apirilean, terrorismoaren historiak Espainian inoiz izan duen denboraldi beldurgarrienetako baten ondoren eta otsailaren 23 an gertatutako Estatu-kolpearen ondoren, heriotz zigorraren aldeko kopuru haundiena lortzen da (% 48a), abolizionista den % 35 baten aurrean.

64 eta 65 orrialdeetan azaltzen diren irudiek, daru garrantzitsuenak laburtzen dituzte.

Zundaldi honen arabera, Euskadin abolizionismoa ahultzen joan da 1977.ean demokrazia hasi zenetik. (Gehiengoduna zen) Eusko Alderdi Jertzailearen partaide eta gogoideen arteko % 78a garai hartan heriotz zigorraren aurka zegoen, eta 1981.ean %74 ra jaitsi zen eta 1985.ean % 54 era.

**Heriotz zigorrari buruzko inkesta Gipuzkoan**

1984.eko maiatzean kriminologiako Euskal Institutuak, M.ª Jose Amilibia, Susana Corcuera eta

Beatriz Iribarrenen lankidetzaz, heriotz zigorrari buruzko inkesta bat egin zuen, Andoain, Eibar, Hernani, Irun, Lasarte, Oihartzun, Pasaia Antxio, Pasaia Donibane, Orereta, Donostia eta Zarautzeko herrietan 343 pertsonei galderak eginez.

Transkriba ditzagun ondoren galderak eta erantzunen portzentaiak.

1. Heriotz zigorraren alde ala aurka zaude?
   - a) Alde: %10a
   - b) Aurka: %89a
   - d) Ez du erantzunik ematen: %0,5ak

2. Ezarriko al zenieke zuk heriotz zigorra 1975.eko irailean azken aldiz kondenatu eta epaituak izan ziren haiei?
   - a) Bai: %5ak
   - b) Ez: %92ak
   - d) Ez du erantzuten: %2ak

3. 1978.ean heriotz zigorra ezabatua izan ondoren, hilketa kopuruak, haunditu, txikitu ala, berdin jarraituko du?
   - a) Haunditu egingo da: %9ak
   - b) Txikitu egingo da: %4ak
   - d) Berdin jarraituko du: %83ak
   - e) Ez du erantzunik ematen: %3ak

4. Heriotz zigorra aplikatuko al zenuke hauetako kasuren batetan?
   - 1) Aldez aurretik pentsatutako hilketa:
     - bai: %8ak
     - ez: %85ak
     - ez du erantzuten: %6ak

2) Adingabe baten bortxaketa eta hilketa:

| | |
|---|---|
| bai: | %30ak |
| ez: | %64ak |
| ez du erantzuten: | %5ak |

3) Estatuburu baten hilketa:

| | |
|---|---|
| bai: | %9ak |
| ez: | %84ak |
| ez du erantzuten: | %6ak |

4) Hiritar baten heriotza poliziak emandako tratu txarren ondorioz:

| | |
|---|---|
| bai: | %31ak |
| ez: | %65ak |
| ez du erantzuten: | %2ak |

Erantzuna eman dutenen datuak

ADINA:

| | |
|---|---|
| 10etik 20 urtetara: | %9ak |
| 20 tik 30 urtetara: | %46ak |
| 30etik 40 urtetara: | %16ak |
| 40 tik 50 urtetara: | %12ak |
| 50etitk 60 urtetara: | %6ak |
| 60 tik 70 urtetara: | %2ak |
| Ez du erantzuten: | %4ak |

SEXUA:

| | |
|---|---|
| Gizonezkoak: | %56a |
| Emakumezkoak: | %41a |
| Ez du erantzuten: | %3ak |

ERLIJIOA:

| | |
|---|---|
| Axolagabea: | %42a |
| Katoliko praktikaria: | %21a |
| Katoliko ezpraktikaria: | %35a |
| Beste erlijio baten sinestuna: | %1a |
| Ez du erantzuten: | %1a |

KLASE SOZIALA:

| | |
|---|---|
| Goikoa eta erditik gorakoa: | %3a |
| Erdikoa: | %76a |
| Erditik beherakoa eta behekoa: | %14a |
| Ez du erantzuten: | %7ak |

IDEOLOGIA POLITIKOA:

| | |
|---|---|
| Eskuindarra: | %5a |
| Zentrista: | %18a |
| Ezkertiarra: | %64a |
| Batere ez: | %4a |
| Ez du erantzuten: | %7ak |

Erantzun hauek, 1977. eko udaberrian jaso eta «Cuestiones penales eta criminológicas» liburuan (2) argitaratutakoekin gonbara daitezke.

## Motibazio abolizionistak

### *Zerrendaketa laburra*

Heriotz zigorraren aurka argudio ugari agertu beharra dago. Garrantzitsuenak ondorengo hamabi puntu hauetan labur daitezke:

1. Agintaritza publikoak ez dauka ez ahalmenik, ez botererik heriotz zigorra inposatzeko, giza-bizitza ukiezina bait da: «Ez duzu hilko». Pertsona orok badu inungo botere judizialek, gizartearen onerako bada ere, deuseztatu ezin duen esanguera absolutu bat.

---

(2) Eugenio CUELLO CALON, *La moderna penologia*, 1. Tomoa, Bosch, Bartzelona, 1955, 128 ok.

2. Legelari, kriminologo, filosofo eta elizgizon asko, geroz eta gehiago, heriotz zigorraren abolizioaren alde egiten ari da.

3. Indar hertsatzaile eta beldurrarazleak ez du bere beharra senti araziko lukeen maila lortzen. Efektu «kriminogeno bat sortzen du.

4. Delituari ematen zaion erantzunak, giza-justiziaren (eta partidu batzuren arabera, jainkotasunaren) ordainak ez du gaizkia gaizkiaren truk, hilketa hilketa truk emango. Mendekua litzateke. Ez litzateke zigorra izango. Segurtasun neurria litzateke behar bada.

5. Heriotz zigorrak ez du justizia egiten, ezta bortxatutako ordena juridikoa berezarri ere. Ezereztatu egiten ditu.

6. Gaur egun badira kalte gutxiago egin eta eragingarriagoak diren zigorrak delitu mota guztietarako, esate baterako betirako askatasungabetzea, komunitatearen zerbitzurako lanak egitea,... probatzea...

7. Herri askotan —geroz eta gehiago— heriotz zigorra abolitzen ari dira eta ondorioak baikorrak izan dira bai kriminalitate, bai birtxertaketa sozialaren arloetan.

8. Aintzineko historia eta gaurko estatistikek delitugiletza ez dela heriotz zigorraren abolizioarekin haunditzen frogatzen digute.

9. Judiziozko okerra, zenbaitetan gertatzen dena, konponezina izaten da kondenatua hil ondoren.

10. Gizarte moderno eta postmodernoak begi txarrez ikusten du zigor hau, v.g., borreroa, exekuzioaren publizitatea... guzti honi buruzkoa. (Dagoeneko XVI eta XVII. mendeetan delitu jarriaren teoriari hasiera ematen zaio hirugarren epaskoaren delitugileen heriotz zigorra ekidintzeko: *latro famosus*).

11. Gorputz zigorrak desagertzen ari dira guztien onespenaz. Heriotz zigorra apurka-apurka urperatzen ari den kontinente honen irlotea da.

12. Delitugilearen heriotzak, pertsona ororen balio paregabea kontutan harturik, kalte eta galera haundiak sortzen dizkio hirikide askori, inork ordea, ez du etekin nabarmenik jasotzen.

*Argudio batzuri buruzko iranzkina*

Lehen argudio erretentzionistei buruz aritu garen bezala, oraingoan zergati abolizionista nagusienez hitzegingo dugu.

A.) *Lehen aitzineurri* bezala lege hausteak (gure kasuan lege hauste lariak) ez egiteko hiritarren gehiengoarengan eragina duten kontrol eta teknikak hartzen baditugu, heriotz zigorrak ez duela indar beldurtzaile eraginkorrik sortzen pentsatzen dugu, zeren eta honela frogatzen bait dute ikerketa soziologiko eta sikologiko baliagarriek eta delitugile arriskutsuenen nortasunari buruzko ikerketa serioek.

Kriminolo dexentek (1) burutu dituzte gai honi buruzko lekuan lekuko ikerketak. Kriminaltasun la-

---

(1) Carlos LANDECHO, Reflexión Criminológica sobre la

rriaren kopurua heriotz zigorra egitatez ala eskubidez abolituta dagoen herrietan zenbatekoa den ikusi dute, ekonomia, ohitura historia, e.a.... antzekoak dituzten herrietan ematen den kriminaltasun larri kopuruarekin gonbaratu dute, baina heriotz zigorra indarrean dutenekin, eta azken hauetan horrenbesteko lege hauste edo gehiago ematen dela ondorioztatu dute (2).

Ikerlari kopuru haundi batek ondorio hori froga ezinezkotzat jotzen du, baina aurkako ondorioa seriotasun zientifikorik gabea dela pentsatzen du. Pentsamolde honetakoak dira W. C. Bailey, Badu eta ikaskide asko (3).

Beste ikerlari batzuk onartzen dute argumentazio hau oso zaila edo ezina dela zeren hain da ezberdina egoera geografikoa, politikoa, soziala, historikoa, e.a., ezinezkoa gertatzen bait da faktore beldurtzaileen kopuruari buruzko daturik jakitea.

Argitarapen kriminologiko askok delitugiletza eta heriotz zigorraren artean erlaziorik ez dagoela diote, eta hauen arabera nortasunaren garapena eta pertsonen aurkako lege haustea gogortzaleen hedapena batez ere komunitate berezi baten baldintza ekonomiko eta sozialen arabera ematen da, baina une historiko batetan komunitate horrek daraman

---

pena de muerte, *Razón y Fe,* Madrid, 1970, 467.or.: El análisis de las investigaciones realizadas por criminólogos de excepción durante las dos últimas décadas lleva a la conclusión de que la aplicación de la pena de muerte no tiene argumentos positivos a su favor: ni su intimidación es mayor que la de otras penas ni contribuye a un menor peligro de las víctimas.

(2) E. A. FATTAH, «The preventive mechanisms of the death penalty: a discussion», *Crimcare Journal,* 1985, 109.or.hurk.

B. FORST, «Capital punishment and Deterrance: Conflicting Evidence?, The Journal of Criminal Law and Criminology, 74. alea, 3. Zb. (1983), 927-942. ok.

(3) W. C. BAILEY, «Disaggregation in Deterrence and Death Penalty Research: the Case of Murder in Chicago», *The Journal of Criminal...* (1983), 827-859, ok.

balio moral sistemaren dinamikaren arabera ere. Gizarte bakoitzak heriotz zigorraren erabilerara ala aboliziora jotzeak ez du eraginik (edo oso eragin txikia du) aipatutako garapenean. Heriotz zigorra ezartzeak delitugiletza gutxituko duela pentsatzea, abolizioak piztu dezakeela pentsatzea bezain okerra da (4).

Labur esanda, aurreko kapituluan aipatu ditugun heriotz zigorraren aldeko zenbaitek esandakoarekin bat ez badator ere, arazo honi buruzko ikerketa estatistikoek heriotz zigorrak indar beldurtzailerik ez duela frogatzen dute, edo horrela ez bada ere, ez dute duenik frogatzen.

Beste ikuspegi batetik, espezialista batzuk behin eta berriz esan dute heriotz zigorraren aplikapenak beldurtu beharrean delitugiletza bizkortzen duela. Hiritarrek, agintaritzak delitugileen bizitza ez duela errespetatzen ikustean, joera imitakorrari jarraiki beren etsaiak, beren kontra «delitu egiten» dutenak hiltzeko eskubidea dutela pentsatzen dute eta.

R. Paternoster-en ikerketa monografikoak, berak eta beste zenbaitek «*brutalization effect*» edo «*Counterdeterrence balance*» izenaz erabiltzen duten indar probokatzaile, «kriminogeno» hau azpimarratzen du (5).

B). Bestalde oraindik ere indarrean jarraitzen du Ferrik, delitugileak gehienetan sentikortasun moral eskasa izatez gainera, aurrikusi ezinak direla idaztean egiten duen oharpena: «Lo studio della psico-

---

(4) Robert BADINTER, «Francia. Abolición de la pena capital: la experiencia francesa», NACIONES UNIDAS. *Boletín sobre prevención del Delito y Justicia Penal,* 11. Zb., Viena, 1984.eko abendua, 20. or.

(5) R. PATERNOSTER, «Race and Victim and Location of Crime: the Decision to Seek the Death Penalty in South Carolina», *The Journal of Criminal...* (1983), 754-785.ok.

logía criminale... ha offerto una serie di dati... che credo si debbano riunire sotto due fondamentali anomalie... e cioè nella insensibilità morale e nella imprevidenza... imprevidenza determinata de una deficiente forza di associazione delle idee, e rivelantesi pur essa in manifestazioni diverse, le quali tutte concorrono a far mancare l'ultima repulsione dal delitto, che sarebbe appunto la previsione delle conseguenze dolorose a cui questo conduce» (6).

1987.eko Amnesty International-en laburpenak dioenez, heriotz zigorrek hilketa kopurua handitzen laguntzen dute —killings increase after executions— Estatu Batuetan. Laburpen honek duela gutxi arte SESB-n kontzientzi preso izandako Andrei Sakharov-en lekukotasuna transkribatzen du: «La pena capital es una institución salvaje e inmoral que socava los fundamentos éticos y legales de la sociedad. Rechazo la idea de que posea algún efecto intimidante en los posibles futuros criminales. Estoy convencido de lo contrario: la violencia engendra sólo violencia» (7).

C). *Hirugarren aitzineurriari* dagokionean argi ikusten da heriotz zigorraren alde egiteko honi eusten dioten arrazoipidearen ahulezia. Justiziatu ondoren delitugileak beste lege-hausterik ez duela egingo ukaezina bada ere, baieztapen hau sinplezia bat litzateke, zeren eta berak asasinatzeak egingo ez baditu ere gerta bait daiteke (eta hala dela uste dugu) beste pertsonek exekatatuaren «exenplu» harturik egitera bultzatuak aurkitzea. Hau gertatzen da batez ere, lehen esan bezala, zergati politiko eta sasierli-

---

(6) FERRI, *Sociologia criminale,* Torino, 1929, n. 10.

(7) AMNESTY INTERNATIONAL, *USA the Death Penalty,* Briefing, Londres, 1987, 18.or.hurk.

jiosoak bezalakoak dituzten delitu mota batzutan, kondenatuari inguratzen dion heroitasunagatik.

Delitugileek ez diote legea zapaltzeari uzten heriotz zigorra onartuta egoteagaitik, beraiek poliziak ez dituela atxilotuko pentsatzen bait dute; eta hala balitz, ez lituzkete horrelako pena gogor bat betetzera zigortuko; eta are gutxiago exekutatuak izatera. Bestalde, beren nortasunen ezaugarriek (honetan Ferri eta J. Pinatel ere adoz daude) heriotzarenganako beldurra sentitzea galerazten diete.

Hirugarren aitzineurri edo neurri berezi gisa kontzeptu oso eta orokor bat erabiliz gero, esan behar dugu bere asmoa ez dela hainbeste delituak ekidintzea, delitugilea birpertsonalizatzea baizik berriz ere horrelakorik egin ez dezan, alderantziz, gizartearen lankide izan dadin, nahiz berak «ezberdina» izaten jarraitzen duen. Aitzineurri berezia, helburu ezkor honez gainera (etorkizunean lege-hausterik ez egotea), helburu baikor baten bila ere badabil: delitugile zaharraren birsozializazioa. Beraz, aitzineurri bereziak heriotz zigorraren abolizioa eskatzen duela esango dugu, birsozialdu bizi den delitugilea baino ezin bait daiteke. Exekutatua izan dela inoiz ez.

Norabide honetan, nazioarteko Zuzenbide penal garaikideak abolizioaren aldeko argudio bat eskaintzen dugu, zeren estradizio tratatuek heriotz zigorrera kondenatu dituzten delitugileen eskaintzarako baldintzak erregulatzen dituztenean epai beterazlea ez betetzea eskatzen bait dute. Era honetan, 1985. eko gure legeko 4. artikuluaren 6. zenbakiak esaten du ez dela estradizioa eskainiko hau eskatzen duen Estatuak erreklamatzen duen pertsona ez dela exekutatua izango bermatzen ez duen artean... (8).

---

(8) RODRÍGUEZ DEVESA, *Derecho penal español. Parte General*, 9. ed., SERRANO GOMEZek berrikusi eta eguneratua, Madrid, 1985, 249.or.hurk.

Cherif Bassiounik bere Nazioarteko kode penalean ez du heriotz zigorra onartzen (9).

D). Heriotz zigorraren aurkako beste argudio bat bere funtsezko helburuaz (heriotz zigorra pertsonak hil nahi ditu eta hala egiten du) eta zientzia «biktimiologika» modernoaz ondorioztatzen da hain zuzen.

Erretentzionista batzuk diotenez heriotz zigorrak ordena juridikoa berezarri eta biktimei poztasun bat ematen die. Baina ez dirudi onargarria denik ordena juridikoaren berrezarpen hori, beraiek ulertzen duten modu egonkor edo altzerakor horretan; ezta biktimei ematen zaien postazun hori ere. Mendekuzko ikuskera horrek ezin du harrera ona izan munduikuskera legalean, René Girard-ek azaldu eta frogatzen duen bezala (10).

Zuzenbide penalak ez du egungo ordena juridikoak atzera egin eta lehenokoa bezalakoa izaterik nahi. Interpretazio juridikoak aurrerakoia izan behar badu, doktrina eta kode zibil espainolak dioen bezala, ere gehiago oraindik aurreko egoera eta ordena juridikoa gainditzen saiatu behar du. Hiltzen duenak ez du garapenik sortzen.

Horrez gainera kaltearrak ez du bere mendekuzko instintua asetzeko beste inor hiltzea eskatzeko eskubiderik. Alderantziz. Agintaritzak hain lotsagarria,

---

BUENO ARUS, Extradición y pena de muerte en el ordenamiento jurídico español, *Anuario de Derecho penal,* I. fax. (1981), 399.or.hurk.

CHERIF BASSIOUNI, *International Extradition and World Public Order,* ed. Oceana Publicantions Inc., Nueva York, 1974, 359-60, 459-63. ok.

(9) CHERIF BASSIOUNI, *Derecho penal International. Proyecto de Código penal International,* J. L. de la CUESTA ARZAMENDIk itzulia, ed. Tecnos, Madrid, 1984, 229.or.hurk.

(10) R. GIRARD, Culture «primitive», giudaismo, cristianesimo, *La pena di morte nel mondo,* ed. Marietti, Bologna, 1983, 75.or.hurk.

aurpegira botatzekoa, hain gizatasun gutxikoa den instintu hori ahultzen eta/edo gainditzen lagundu behar du. Agintaritzak kaltearrari bere burua biktima izandako batena bezala ikusia izateko atsegina eman behar dio, hau da jasankor eta kreatzaile bezala ikusteko. Bere zeregin lagunkideak behartzen dio akzio kriminal hilkor pairatzaile horri ikur bereko beste akzio kriminal batez ez erantzuten, etorkizuneko ordena berria sortzen baizik. Agintaritzak ez du ahaztu behar pertsona bera izatez autokreatzailea eta heterokreatzailea dela bereziki, baita bidegabeki egin dioten minaren sakonetik eta minaren ondorioz. Aurkakoa kaltearra eta delitugileari bere androgenesia, duintasuna eta bizitzeko eta besteekin bizitzeko eskubide nagusia kentzea litzateke. Animaliaren heriotza, uztea pertsonaren hiltzearekin nahastea litzateke.

Gaur egunean, zigor gorenaren alde daudenek ere onartzen dute ez dela alferrik delitugilearen sufrimendua haunditzen utzi behar, ez dela mendeku eta demagogi sentimendurik piztu behar; kondenatuaren duintasuna errespetatu behar dela.

Ordaintze kasuetan heriotz zigorraren alde daudenei, *ne peccetur*-aren aurrean *quia peccatum est, delitu ez egiteko* esanaren aurrean *delitu egin duelako teoria* penal absolutuak defendatzen dituztenei duela urte asko frogatu eta onartutako zerbait ahazten zaie (11): «como todo castigo es un mal y el mal jamás es apetecible por sí mismo, así tampoco puede ser fin de sí mismo, sino medio tan sólo para la consecución de un fin»... ondasun publikoaren onerako. Beraz, epaileek ezin dute helburu gisa pertsona bat hiltzea nahi izan, honek zalantzarik gabe gi-

---

(11) CATHERIN, *Principios fundamentales de Derecho Penal. Estudios filosófico-jurídicos,* itzulpena J. M. S. de Tejadak, G. Gili, Barcelona, 1911, 201.or.

zarteari pertsona horren gabezia jasan araziko bait dio, eta honek beti izango du hainentzat balioren bat.

Hirritarrek begikortasun haundiago izango dute epaileekiko borrero bezala baino, ahularen alde jokatzen duten pertsonak bezala ikusten badituzte. Delitugilea beti da ahula eta, zenbaitetan, zentzu batetan, biktima bera baino ahulegoa (12). Heriotz zigorra onartzen den tokietan, herriak beldurrez ikusiko ditu epaileak, errespetuz ez ordea. Eta epaileei dagokienean, errakuntza judizialaren argudiora pasa gaitezen.

